

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 563/2021 Erabakia, irailaren 23koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Agintaldirako "ArabarEkin" Plan Estrategikoari

Arabako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoak, ArabarEkin-ek, bada, gobernuaren ekintza osatzen duten jarduketa estrategikoak banakatzen ditu, modu antolatuan banakatu ere, legegintzaldiak hartzen duen denbora tartean gauzatu daitezten.

Plan Estrategiko hau Arabako Foru Aldundiaren barne mailako hausnarketa, parte-hartze ireki eta feedback prozesu baten emaitza da, eta, bertan, datozen urteetako foru politika publikoetan lortu beharreko xedeak nahiz lehentasunak ematen dira. Plana egiteko, Arabako Foru Aldundiko berrogeita hamar lagunek baino gehiagok hartu dute esku, modu aktiboan, zenbait urterako plangintza konprometitua osatzeari begira.

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 5. artikuluan ezartzen denaren arabera, gobernu plan bat onartu behar da Foru Gobernuaren eratzetik urtebete pasatu baino lehen. 2020. urtearen hasieran, 2019-2023 Plan Estrategikoaren zirriborroa amaituta zegoen, laster onartzekoa baitzen. Urte horretako martxoan hasi zen COVID-19aren krisiak hasierako zirriborroa onartzea eragotzi zuen, krisiak etorkizuneko egoera aldatu baitzuen. Harrezkerotik, Arabako Foru Aldundiaren ahaleginak koronabirusak Arabako gizartearen dituen berehalako ondorioen aurkako plan sozioekonomikoa onartzera bideratu ziren. Plan hori Foru Gobernu Kontseiluak maiatzaren 26ko 213/2020 Erabakiaren bidez onartutako A Planean islatu zen. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa onartzeko ezintasuna ofizialki egiaztatu zen, gertakari honen berri izan ostean, eta Gobernu Kontseiluaren irailaren 21eko 421/2020 Akordioan jaso zen.

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 aldirako ArabarEkin behin betiko plan estrategikoa 4 ardatz estrategikotan egituratu da, eta ardatz estrategiko horiek 13 xede estrategikotan banakatu dira. Azken horiek, aldi berean, 395 jarduera zehaztetan gauzatu diren 76 ildo estrategikotan banatu dira.

Txostena 7 kapitulutan egituratzen da: lehenik eta behin, jarduketa eremuen arabera banakaturako diagnostiko estrategikoa jasotzen da. Ondoren, Foru Aldundiaren egitekoa, ikuspegia eta balioak zehazten dira. Txostenaren zati nagusian, berriz, lehen proposaturako egituraren arabera banakatzen da plana. Gero, jarduera bakoitzak 2030 Agendaren garapen jasangarrirako helburuekin daukan elkarrekotasuna aurkezten da (NBK onetsi zituen helburuok, mundu mailako ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasuna lortzeko nazioarteko ibilbide orria izan zitezten). Planak aurrera egin ahala, foru erakundearen sail bakoitzaren arabera xedeen, ildoaren eta jardueren sailkapena ematen da, plan estrategiko sektorialen eta plan orokor honetan txertaturako jarduketa adierazgarrien zerrendarekin amaitzeko.

Ondorioz, Arabako Diputatu Nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKIA

Onestea Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldirako "ArabarEkin" Plan Estrategikoa, zeina erabaki honen eranskin gisa baitoa.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunizazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019- 2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Egiaztasunak hobetzeko, Dirección de comprobación
<https://e.s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove>

Zurtagiriaren zk. Código de Verificación
u7Ww-1726-b45H-LNCS





Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

AURKIBIDEA:

1. SARRERA
 2. DIAGNOSTIKOA:
 - 2.1. EGOERA EKONOMIKOA
 - 2.1.1 MUNDUKO EKONOMIA
 - 2.1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA
 - 2.1.3 EUSKADIKO EKONOMIA
 - 2.2. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. EKONOMIA
 - 2.3. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. LURRALDE GARAPENA
 - 2.3.1. LURRALDE OREKAREN DIAGNOSTIKOA
 - 2.3.2. ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN DIAGNOSTIKOA
 - 2.3.3. TREBIÑUREN DIAGNOSTIKOA
 - 2.4. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. BERRIKUNTZA
 - 2.5. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. ENPLEGUA
 - 2.6. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. MERKATARITZA ETA TURISMOA
 - 2.7. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. LOGISTIKA ETA GARRAIOA
 - 2.8. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. LEHEN SEKTOREA
 - 2.9. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. OGASUNA
 - 2.10. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. GIZARTE LAGUNTZA
 - 2.11. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. HEZKUNTZA ETA KULTURA
 - 2.12. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. INGURUMENA ETA HIRIGINTZA
 3. EGITEKOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK:
 - 3.1. EGITEKOA
 - 3.2. IKUSPEGIA
 - 3.3. BALIOAK
 4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK:
 - 4.1. 1. ARDATZA: ARABAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA
 - 4.2. 2. ARDATZA: GIZA GARAPENA ETA GIZARTE KOHESIOA
 - 4.3. 3. ARDATZA: ARABAREN LURRALDE GARAPENA
 - 4.4. 4. ARDATZA: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
 5. 2030 AGENDAREN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIKO ELKARREKIKOTASUNA
 6. SAILEN ARABERAKO HEDAPENA
 7. PLAN ESTRATEGIKO SEKTORIALAK ETA JARDUKETA ADIERAZGARRIAK
- ERANSKINAK



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1. SARRERA:

Dokumentu honetan, Arabako Foru Aldundiak 2019-2023 laurtekorako taxutu duen XI. Legegintzaldiko Plan Estrategikoa – Ekin Araba jasotzen da.

Arabako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoak – Ekin Araba, bada, gobernuaren ekintza osatzen duten jarduketa estrategikoak banakatzen ditu, modu antolatuan banakatu ere, legegintzaldiak hartzen duen denbora tartean gauzatu daitezzen.

Plan estrategiko hau Arabako Foru Aldundiaren barne mailako hausnarketa, parte-hartze ireki eta feedback prozesu baten emaitza da, eta, bertan, datozen lau urteetako foru politika publikoetan lortu beharreko xedeak nahiz lehentasunak ematen dira. Plana egiteko, Arabako Foru Aldundiko berrogeita hamar lagunek baino gehiagok hartu dute esku, modu aktiboan, zenbait urterako plangintza konprometitu osatzeari begira.

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte hartzearena eta gobernu onarena otsailaren 8koa 1/2017 Foru Arauaren 5. artikuluan ezartzen denaren arabera, gobernu plan bat onartu behar da Foru Gobernuaren eratzetan denetik urtebete pasatu baino lehen. 2020. urtearen hasieran, 2019-2023 Plan Estrategikoaren zirriborroa amaituta zegoen, laster onartzeko baitzen. Urte horretako martxoan hasi zen COVID19aren krisiak hasierako zirriborroa onartzea eragotzi zuen, krisiak etorkizuneko egoera aldatu baitzuen. Harrezkeroztik, Arabako Foru Aldundiaren ahaleginak, koronabirusak Arabako gizartean dituen berehalako ondorioen aurkako plan sozioekonomikoa onartzera bideratu ziren. Plan hori Foru Gobernuaren Kontseiluak maiatzaren 26ko 213/2020 Erabakiaren bidez onartutako A Planean islatu zen. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa onartzeko ezintasuna ofizialki egiaztatu zen, gertakari honen berri izan ostean, eta Gobernuaren Kontseiluaren irailaren 21eko 421/2020 Akordioan jaso zen.

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 aldirako behin betiko Plan Estrategikoa – Ekin Araba lau ardatz estrategikotan egituratu da, eta ardatz estrategiko horiek 13 xede estrategikotan banakatu dira. Azken horiek, aldi berean, 395 jarduera zehatzetan gauzatu diren 76 ildo estrategikotan banatu dira.

Txostena zazpi kapitulutan egituratzen da: lehenik eta behin, jarduketa eremuen arabera banakatutako diagnostiko estrategikoa jasotzen da. Ondoren, Foru Aldundiaren egitekoa, ikuspegia eta balioa zehazten dira. Txostenaren zati nagusian, berriz, lehen proposatutako egituraren arabera banakatzen da plana.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Sarrera.

2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

Gero, jarduera bakoitzak 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) daukan elkarrekikotasuna aurkezten da (NBEk onetsi zituen helburuok, mundu mailako ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasuna lortzeko nazioarteko ibilbide orria izan zitezten). Planak aurrera egin ahala, foru erakundearen sail bakoitzaren arabeko xedeen, ildoen eta jardueren sailkapena ematen da, plan estrategiko sektorialen eta plan orokor honetan txertatutako jarduketa adierazgarrien zerrendarekin amaitzeko.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2. DIAGNOSTIKOA:

Lurraldearen gaur egungo egoeraren ezaugarriak ikustea (faktore exogeno eta endogenoek zehazten dute egoera hori), lehiakortasunaren eta susperraldiaren inertziako agertokia balioestea, plangintza behar duten sektoreak eta arloak identifikatzea eta horiek ingurune hurbilenarekin alderatzea da diagnosiko estrategiko baten xedea.

Zentzu horretan, Arabaren diagnosiko estrategikoa egiteko orduan, aintzat hartu behar da egoera ekonomikoa orokor eta hurbilenaren analisia, eta Foru Aldundiaren politika publikoetan lehentasunezkoztat jotzen diren hamar arloen gaur egungo egoera berrikusi behar da.

2.1. EGOERA EKONOMIKOA:

2.1.1. MUNDUKO EKONOMIA:

Munduko ekonomiak azken urteetan izan duen bilakaera COVID-19aren pandemiak planeta osoan eragin dituen ondorio suntsitzaileak markatu du. Mundua aurrekaririk gabeko krisi ekonomiko eta soziala pairatzen ari da, osasun sektorearen gaineko presio gogorretik datorrena, eta horren ondorioz, hainbat larrialdi egoera eta biztanleriaren konfinamendu deklaratu behar izan dira, bertan behera utzita ia jarduera ekonomiko guztia edo zati bat.

COVID-19 birusaren pandemia erritmo desberdinekin zabaldu da herrialdeen artean, ondoz ondoko kutsadura boladen bidez. Izan ere, herrialdearen arabera, mugikortasun murrizketa handiagoak eta txikiagoak eskatu dira lanari zein eguneroko bizitzari dagokienez, osasun sistemaren kolapsoa saihesteko.

Pandemiaren mundu adierazpenetik urtebete baino gehiago igaro da, eta, horren ondorioz, kutsadurak asimetrikoak izaten jarraitzen du herrialdeen artean, eta horrek ziurgabetasun handia eragiten du ekonomia globalaren etorkizunari dagokionez. Era berean, kezka handia sortzen ari da txertaketa estaldurak erritmo desberdina duelako herrialdeen artean, eta horrek dibergentzia indartzen laguntzen du, bai eta ekonomia desberdinak berraktibatzen eta munduko aberastasunaren banaketa sakontzen.

Nazioarteko Moneta Funtsaren azken zenbatespenen arabera, munduko BPGd-ak $-3,3\%$ ko murrizketa izan zuen 2020an. Hala ere, diru agintaritzek azkar



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

erreakzionatzearen eta herrialde askotan ezarritako txertatze kanpainen ondorioz, munduko ekonomiak % 6ko hazkundea izan lezake 2021ean, eta % 4,4koa 2022an.

Aurreikuspen horiek etengabe aldatzen ari dira, eta kontu handiz hartu behar dira osasun krisiak etorkizun hurbilean (2021) izango duen ibilbidearen aurrean, birusaren andui berrien zabalpenaren erritmo handiagoek izango duten ondorioari zein txertoek horiek kutsatzeko duten gaitasunari dagokienez. Pandemiaren luzapenak zehaztuko du azken orbain ekonomikoa munduko ekonomian.

Birusaren aldaera berriak kalte handiak eragiten ari dira Asiako herrialde askotan, besteak beste, kontsumo eta inbertsio ondasun askoren funtzionamendurako beharrezkoak diren erdieroaleen fabrikazioan espezializatuta dauden herrialdeetan. Haren fabrikazioa gehiegi moteldu da, eta kate efektua eragin du ondasun horien herrialde garatuetako hornitzaileengan, eta berehalako eta epe ertaineko ondorioak ditu produkzioan.

Oraingoz, suspertze zantzuak besterik ez dira ikusten pandemiaren unerik gogorrenekin alderatuta, baina oraindik goiz da erabateko susperraldi ekonomikoa hitz egiteko, irrikaz bizi nahi dugun normaltasun egoerara iritsi arte.

Errekuperazioa ez dago salbuetsita osasun egoeratik kanpoko mehatxuetatik, nahiz eta horrek zeharka eragin dituen: prezioen gainera presioak (elikagaiak, lehengaiak eta energia, batez ere), banku zentralen laguntza politika monetarioetatik pixkanaka erretiratzea; zerga politika uzartzeko aukera, herrialde gehienek gehiegizko zorpetzeen ondorioz, eta pandemia baino lehen zeuden ziurgabetasunetara itzultzea (batez ere, superpotentzia handien arteko tentsio komertzialak).

Munduko eremu geografiko nagusiak aztertuz gero, Estatu Batuetako ekonomia % 3,5 uzurtu zen pandemiaren urterik okerrenean (2020), eta Euroguneko ekonomiak, berriz, eraso biziagoa pairatu zuen (-% 6,5). Gaur egun, Estatu Batuetako ekonomia irmoki ari da portatzen, eta, beraz, 2021aren amaieran BPGd-a % 7 gehitzea espero da, aurreko urtean galdutakoaren bikoitza. Irrotasun hori lan merkatuan ikusten da: 2021eko abuztuan, Amerikako langabezia tasa % 5,2ra jaitsi zen, urte bereko otsailean puntu bat handiagoa zen arren. Hala ere, birberotze horrek pentsarazten du FEDek, zenbait urtetan lehen aldiz, interes tasen gainean jardun dezakeela; izan ere, aldi berean, hau da, 2021eko abuztuan, inflazioa % 5,4koa da, eta datu hori ez da iraunkorra denboran. Urte horretako otsailean, ez zen % 1,7 baino handiagoa, eta, beraz, zenbait analisten ustez, goraldiaren behin-behinekotasun hutsa zen.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Eurogunean, hurrengo bi urteetan, % 4,6 eta % 4,3 haztea aurreikusten da, hurrenez hurren, eta hazkunde hori desberdina izango da herrialdearen arabera (Frantzia edo Espainian nabariagoak, adibidez). 2021eko bigarren hiruhilekoari dagokion errealitateak % 2,2ko hazkundera adierazten du, nagusiki, kontsumo pribatuaren eta publikoaren arrasteak bultzatuta. Birusak aurrera egiteak eta beste herrialde batzuetako txertaketak atzeratzeak Europako esportazioek orain arte erakutsi duten joera ona geldiarazi dezakete. Hala ere, egungo inflazioa eremu horretan % 3koa da, eta urte hasieran % 1,9koa zen. AEBn izandako tentsioa bezain handia izan gabe ere, AEBko ekonomia politikaren aldaketa batek antzeko ekintzetara eraman lezake eurogunea, intentsitate txikiagokoa bada ere; eta horrek, interes tasak bultzatuko litzuke.

Bestalde, beste herrialde garatu batzuek, hala nola Erresuma Batuak edo Kanadak, datozen hilabeteetarako indarberritze irmoak aurreikusten dituzte, baina Txinako eta Indiako ekonomietarako aurreikusitakoak baino intentsitate txikiagokoak (Indian, esaterako, % 9,5eko hazkundera aurreikusten da aurten). Nolanahi ere, oso behin-behineko estimazioak dira, birusaren hedapen erritmoaren bilakaeraren araberrakoak; azken batean, txertoen banaketako asimetria handiagoen edo txikiagoen mende baitago.

2.1.2. ESPAINIAKO EKONOMIA:

Araba Espainiako Estatuako ekonomia orokorrean sartuta dago, erabakitasunez; beraz, Estatuaren egungo egoera ekonomikoaren ezaugarri diren aldagai makroekonomiko nagusien erradiografia labur bat eskaini behar da.

1. Munduko osasun krisiak eragin handia izan du Espainiako ekonomian. Hala ere, 2021. urtean zehar, BPGd-a indarrez suspertzen ari da 2020ko hondamen handiaren ostean. 2021. urteko bigarren hiruhilekoan, Espainiako BPGd-a % 19,8 hazi zen, 2020. urteko aldi berekoaren aldean. 2020. urtearen amaieran, BPGd-a % 10,8 jaitsi zen. Historikoki, gerra aldietan izan ezik, inoiz ez da hainbeste jaitsi BPGd-a 2020ko bigarren hiruhilekoko guztizko konfinamenduan bezala (-% 21,6). Pandemiak BPGd-aren hazkunderaren eredu sendo bat gaudituz aurreko urteetan. Espainiako BPGd-a urteko % 2 hazi zen 2019an, eta tasa hori Euroguneko erritmo handienetako bat zen. Batez ere etxeko ekonomietan sortzen den barne eskariak jarraitzen du izaten susperraldi horren eta COVID-19aren aurreko dinamismoaren eragile nagusia; izan ere, % 29,5ekoa izateari esker, hazkundera espero daiteke 2021eko ekitaldiaren itxierako. Familien aurrezpen metatuak, lokal eta dendak ixteagatik, dirudienez,



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

kontsumo pribatu solidoan aurkitu du irtenbidea. Espainiako esportazioak ere modu sendoan hazi dira (% 34,1), baina ez dira iritsi estaltzera lehen konfinamenduaren gainbehera (-% 38). Azkenik, inbertsioa ere berreskuratzen ari da, ekipo ondasunetan batez ere; ez hainbeste etxebizitzan. Hori horrela, enpresaburuak itxaropentsuago daude zikloa aldatzeko aukerari dagokionez.

2. Inflazio tasaren gorakada: Espainian, tentsio inflazionistak 2021eko apirilean hasi ziren azaleratzen. Eskura daitekeen azken datuaren arabera (2021eko abuztuari dagokiona), KPI % 3,3koa da, urteko aldakuntzaren aldean. Pandemiaren zatirik handienean, eta kontsumoaren kolapsoaren ondorioz, inflazio tasak fluxu negatiboetara iritsi ziren. Barne kontsumoaren bat-bateko erreperazioak igoera koiuntural bat eragin dezake, eta horren iraupena inpunten prezioaren igoerak (elektrizitatea, adibidez) edo industriarako horniduren eskasiak eragindako eskaintzaren *shock*aren iraupenaren arabera da. Hala, osagaien arabera, etxerako oinarrizko hornikuntzak (elektrizitatea, ura eta abar) eta garraioa dira benetan indizetik gaintzen diren elementuak. Aitzitik, komunikazio prezioen beherapena nabarmentzen da. Hortaz, azpiko inflazioa egonkorra da 2021ean (% 0,7koa).

3. Eskaintza shockak: esan dugun bezala, elektrizitatearen prezioaren igoerari eta trakzio industrietarako oinarrizko osagai batzuen (adibidez, automozioaren sektorekoak) ekoizpen eskasiari buruz ari gara. Argiaren prezioa, kontsumitzailearentzat, prezio historikoetara iristen ari da, ia-ia 140 euro MW/ordu. Horrek, familiek egin behar duten gastua handitzeaz gain, industrietan, merkataritzan eta ostalaritzan du eragina, batez ere elektrizitate kontsumo intentsiboak behar dituen ekoizpenean oinarritutako sektoreetan. Bestalde, automobilen eta bestelako garraio bideen fabrikaziorako (Espainia esparru horretan espezializatu da) beharrezkoak diren osagai teknologiko handiko oinarrizko inputak ez dira hornitzen ari. Ibilgailua kontrolatzeko erdieroaleen fabrikazioa ia monopolista da Ekialde Urruneko herrialdeetan. Horietan, gora egin duten COVID-19aren kutsatzeek eta, ondorioz, industria enpresak itxi behar izan dira.

4. Soldaten bilakaera: Bestalde, batez besteko soldata igoera % 1ekoa izan zen 2019ko lehen hiru hilabeteetan, EINEk aldian-aldian emandako datuen arabera. Guztizko soldata kostua zertxobait gehiago hazi zen (% 1,4). Soldaten igoeraren eta prezioen artean aldea dago, eta horrek, langileen erosteko ahalmena galtzeari dagokionez, errezeloak sor ditzake etorkizuneko barne-eskariari eusteari dagokionez.

2019az geroztik, lanbide arteko gutxieneko soldata etengabe igo da, eta horrek ondorio desberdinak izan ditu enpleguan. 2019an lanbide arteko gutxieneko

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Diagnostikoa.

4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

soldata % 22 igo zen 2019an, eta horrek % 1,1eko murrizketa ekarri zuen enpleguaren sorreran. 2020an, aurreko urtean baino % 5 gehiago igo zen (950 euro). Txosten hau idatzi den datan, oraindik bukatu gabe dago 2021. urterako handitu behar den zenbatekoari buruzko eztabaida, prezioen bilakaera orokorraren aurreikuspenak ez baitira nahikoak izan errealitatearekin konparatuta.

5. Defizit publikoaren igoera eta bolumen handia: etengabe hazten ari diren defizit publiko mardulak egoteak hainbat neurri hartzea eragin dezake (hala nola, zergak igotzea) eta, hortaz, familiek errenta erabilgarri gutxiago edukitzea. Errenta erabilgarri gutxiago edukitzeak kontsumoa geldiarazten du, eta, beraz, baita enpresen mozkinak eteten ere.

2021eko lehen seihilekoan, Estatuko defizit publikoa BPGd-ren % 2,95 zen, aurreko urteko aldi beraren aldean, % 25,9 jaitsi ondoren. Beherakada hori diru-sarreraren gehitzeari dagokio (% 15), batez ere, zerga bilketa handiagotik datozen horiek aintzat hartuta, konfinamendu sanitarioaren eta jardueraren geldieraren aldiarekin konparatuta. Gastuak egonkor mantendu dira.

Hala ere, Espainiako Administrazio Publiko guztien zor publikoak jarraitzen du hazten. Halaber, 2021. urtearen lehenengo erdian, zor publikoa % 10,4 igo zen, BPGd-ren % 122,1 (zenbatekorik handiena) lortu arte. Guztira, zorpetze bolumena 1.426 milioi euro dela zenbatesten da, ohiz kanpoko munta, osasun krisiari eta gizartean izan dituen ondorioei aurre egiteko ezarri diren ezohiko neurrien ondorioz. Gerta daitekeen interes tasen igoera, zorraren kostuak galera handiagoa eragin dezake aurrekontu publikoetan, eta Administrazioen laguntza programetan jasotako inbertsioen atzerakuntza ekar dezake. Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsak jasotzeak eta era efizientean banatzeak bakarrik arin dezake egoera hori.

6. Interes tasen bilakaera: azterketako inflazioaren gorakadak, zalantzarik gabe, baldintzatuko du interes tasen bilakaera –berehalakoa eta epe ertainekoa–. 2021eko irailean Euriborra oso maila baxuetan mantentzen den arren, Europako Banku Zentralaren pizgarriak kenduz gero (bonuen erosketa masiboaren intentsitatea jaitsita), baliteke merkatuko interes tasek gora egitea.

Interes tasen igoerak, gerta daitekeenak, bi bidetan egiten dio mehatxu barne-eskariaren hazkundeari: batetik, inbertsio pribatuak kanporatzea, inbertsio horiek finantzatzeko maileguen kostu handiaren ondorioz; eta, bestetik, zor publikoan eta errenta finko pribatuan inbertitu nahiago izatea, aktibo finantzario horien ordainsaria handiagoa delako.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

7. Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen iritsiera (Next Generation EU ekimena) oinarritzeko eragile eta Estatuaren garapenerako motor gisa, sektore estrategikoetan, digitalizazioan, klima aldaketan eta abarretan egingo diren inbertsio publiko eta pribatuen bitartez. Espainiak 69,5 mila milioi euro jasoko du izaera finalista duten eta egiturazko inbertsio eta erreformak egiteari lotuta dauden funtsetan. Funtsak aplikatzeko eraginkortasuna inbertsioak hautatzeari buruzko erabakien arabera izango da; izan ere, Espainiako ekoizpen ehundura suspertu eta eraldatzeko gaitasunaren arabera hautatuko dira inbertsioak.

Hitz batez, Espainiako ekonomia Eurogunean gehien hazten ari direnetako bat izan arren, behin betiko susperraldia ziurgabetasun handiko hainbat faktorek baldintzatzen dute: jarduera ekonomikoari eustea arriskuan dago, kutsatze kopuruak izan ditzakeen igoeren ondorioz, horniduren eskasiaren ondorioz eta lehengaien prezio altuaren ondorioz; arestiko tentsio inflazionistak aldi batean mantentzea; Europako Banku Zentralak tentsio horiek geldiarazteko politika ekonomikoko tresnak aplikatzea; eta oraingo zorraren kostu altua, koronabirusaren krisiagatik, ekonomia berraktibatzeke ezarri ziren kautela-neurriek eragindakoa.

2.1.3. EUSKADIKO EKONOMIA:

Euskadiko ekonomiari dagokionez, 2021eko bigarren hiruhilekoan % 18,5 hazi zen, Estatu osoan erregistratutako tasaren azpitik (% 19,8), eta hazkundera 2020ko aldi berean (alarma egoera eta lehenengo itxialdi perimetrala adierazi ondoren) izandako beherakada nabarmena baino txikiagoa zen.

Nabarmetzen da hazkunde positiboa lau hiruhilekotan jarraian egotea, hazkunde arina izan arren. Oraindik hainbat hilabete geratzen dira, aurreko normaltasun aldietako "gurutzaldi-abiadura" berreskuratu ahal izateko. Aurtengo urte osorako, BPGd-ren % 6,7ko hazkundera espero da.

Sektoreka, industriaren indarra nabarmetzen da susperraldian. Zerbitzuen sektorean, merkataritzan eta ostalaritzan narriadura handiago antzematen da, erresilientziari dagokionez, kutsatzeak murrizte aldera, jarduera mugatzeko behin eta berriz ezartzen ziren neurrien ondorioz. Industria arloko BPGd-aren murrizketa -% 1,1 zen urtearen hasieran; zerbitzu sektorekoa, oro har, eta, bereziki, merkataritza eta ostalaritzarena -% 3,5, % 5,5eko atzerakadarekin, 2020. urtearen lehen hiruhilekoan erregistratutakoaren aldean (normaltasun sozial eta sanitarioaren aldia, gehienetan).

Bada, barne-eskariak babestu ohi du euskal ekonomiaren dinamismoa. Hala ere, susperraldiaren lehenengo hilabeteetan, ekitaldi honetan, egoera aldatu egin da:

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Diagnostikoa.

6



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Euskadiko eskariaren joera okerreña familia kontsumoan ikusi da. Administrazio Publikoen gastua (% 1,6ko igoera) eta enpresa inbertsioa (% 1,9) dira abiada ekonomikoaren motorrari eragiten dioten osagai nagusiak. Administrazioak kontsumoaren "balaztada" konpentsatuko duten egonkortzaile diskrezionalak aplikatzean jartzen du arreta batez ere; enpresak, aldiz, zikloa aldatzeko eta eskaria lehengoratzeko prestaketak egiten ari dira.

Euskal produktuen eskariak korrelazio handia du kanpoko merkatuen bilakaerarekin eta merkatu horietan sartzeko aukerekin. EAeko ekonomia kanpokoari oso irekita dago. Horiek horrela, 2021eko lehenengo sei hilabeteetan, EAeko esportazioak % 23,9 hazi ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. 2020. urtean zehar EAeko esportazioen beherakada ez zen hain kaltegarria izan (–% 17,8).

Kanpoko inbertsioek Euskadin egin zuten ahalegin handia –egoeraren araberakoa– lagungarria izan zen esportazio maila berreskuratzeko. Pandemiaren une txarrenetan ere, 2020. urte osoan zehar, atzeritik etorritako funtsak % 163,1 hazi ziren, 2014-2020 aldiko batezbesteko negatiboa (–% 38) aldatuz. Joera horrekin, funtsen fluxu handiena duten Estatu autonomia erkidegoen artean, Euskadi hirugarrena da, Estatu mailan, funtsen % 3,6 ere jasotzen duelako. Madrilen makrozefalia oztopo bihurtzen da portzentaje hori EAeko BPGd-ren garrantzirik urruntzeko Estatu osoan.

Euskal ekonomiak etenik gabe egin du aurrera, eta asko nabaritu da enpleguaren bilakaera positiboan. Lan merkatua poliki-poliki hobetuz doala ematen du, erregistratutako langabeen kopurua kontuan hartuta. 2021eko uztailean, Euskadik 119.200 langabe baino apur bat gehiago zituen, aurreko hilabetean baino % 2,6 gutxiago eta % 16,9 gutxiago, 2020. urteko hilabete berean baino.

Era berean, euskal ekonomiaren dinamismoaren adierazgarri da EAeko hiru ogasunek zerga bilketa handiagoa egin izana. 2021eko lehen seihilekoan 5.960 milioi euro bildu ziren, % 15,6 gehiago, 2020. urteko aldi berean likidatutako zenbatekoaren aldean (bi hilabeteko normaltasun egoera hartzen du barnean).

Azken batean, euskal ekonomia bilakaera positiboan dago, pixkanaka suspertzen ari da eta bilakaera lan merkatura hedatzeko gai dela ematen du, batez ere, barne eskariaren gastu ahalmen solidoari esker. Horren ondorioz, pixkanaka-pixkanaka, langabezia tasak murrizten ari dira.

2.2 ARABAREN DIAGNOSTIKOA. EKONOMIA:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

COVID-19aren pandemiak bereziki jo du Araba. Osasun alarmaren ondorioz ekonomia bat-batean gelditu izanak % 20,7ko "zauria" egin zion Arabari, hiru hileko BPGd-ak atzera egin zuelako. 2020. urtearen amaieran, BPGd-a % 9,7ra jaitsi zen, 2019an sortutakoaren aldean. Azkenaldian, Arabako ekonomia pixkanaka suspertzen ari delako sintomak erakusten dituela ematen du. 2021eko lehen hiruhilekoan (eskura dagoen azken datua), hiru hilekoko BPGd-a % 1,5 txikiagoa zen 2020. urteko hilabete berekoa baino (martxoaren erdialdean izandako geldialdia aintzat hartu behar da horretan). Jaitsiera txikiena da gure ingurunean (EAEko -% 1,9), hortaz, Araban susperraldi azkarragoa izan ahal dugula aurreikus daiteke. Hala ere, urtearen amaierako datuak ikusi arte itxaron behar dugu, Araba azkarrago ala EAE osoan markatutako erritmoan suspertzen ari dela egiaztatzeko.

Datu zehatzagoak aipatzearen, Arabako Industria produkzioaren indizera jo dugu: azken datuak (2021eko ekaina) urte arteko % 1,5eko igoerak erakusten ditu. Azken hilabeteotan, adierazle horrek ondoz ondoko hainbat igoera izan ditu. Susperraldi finkatuaren lehenengo sintoma dirudi.

Nolanahi ere, Arabako ekonomiaren bilakaera etengabearen ondorioz pandemia (2019. urtea) aurretiko azken urteetan familien errentan pilatu diren irabaziek Arabako biztanleko BPGd-a jarri zuten Euskadin buru (Euskadiko batezbestekoa baino % 5,7 handiagoa da), 38.300 eurotik gorako mailetan; hots, 2014an zegoena baino % 13,7 handiagoa da.

Bada, Arabako ekoizpen ehunduraren antolaketa sektorialean bertan bilatu behar da aipaturiko mantsotze handiago horren azalpena. Araba da errotze industrial handiena duen euskal lurraldea. Araban sortzen den BPGd-aren % 31,5 industriatik dator; EAEn, berriz, % 24,3k dauka jatorria industrian. Azken datuen arabera (2019), sektore horretan hazkunde negatiboa zegoen, -% 0,1ekoa; zerbitzuen sektorean, berriz, % 3,3koa, eta % 4,3koa eraikuntzaren sektorean.

Ebidentzia horren aurrean, Arabako ekonomia kanpokoari oso irekita dagoela pentsatu beharra daukagu. Arabako ekoizpenaren % 60 inguru esportatzen da. 2020. urtearen lehenengo erdian, mugak erabat itxi eta pertsona eta salgaien mugimenduak debekatu zirenean, Arabako esportazio guztiek % 34,6ko atzerakada izan zuten, urte arteko terminoetan, guztiz bat etorrita BPGd osoaren gainbeherarekin. Hala ere, 2021eko bigarren hiruhilekoan, esportazioak % 40 igo dira termino absolutuetan, ohiko mailaren gainetik; zalantzarik gabe, susperraldi iraunkorraren sintoma da.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ehun ekonomikoak 24.700 enpresaz osatua dago, horietatik 2.000 baino gehiago industria enpresak izanik, eta horrek lehiakortasun polo kontsolidatua uzten du agerian. Nabarmentzekoak dira enpresa liderren industria ezarpen handiak, Euskal Autonomia Erkidegoko handienak enplegu zuzenari dagokionez, balio kate kualifikatuak eta guzti, bai eta industria enpresa txikien multzo dinamikoa ere, kasu batzuetan lider globalak baitira beren merkatuko nitxoetan.

Bi faktoreak (espezializazio industrialak eta kanpokoari oso lotutako ekonomia) lotuz gero ondoriozta dezakegunez, Arabako ekonomia alboko ekonomiak baino gordinago ari da jasaten pandemiaren higadurazko ondorioak, zeinak azalpen honen hasieran aipatu ditugun.

Era berean, testuinguru ekonomiko orokorrean, berez, sektore jakin batzuei dagozkien desoreka sektorialak nabari zaizkio Arabako industriari. Arabako industria espezializatua eta nahiko kontzentratua dago. Lurraldeko BPGd industrialaren % 27,3 metalurgiaren eta produktu metalikoen sektorean kokatutako enpresek sortzen dute; kautxuaren, plastikoen eta metalikoak ez diren beste material batzuen industrietan % 19,1 ematen dute; garraiorako materialaren ekoizpenak % 18,8 ematen du, eta nekazaritzako elikagaien industrietan % 11,5. Araban sektore horietan aritzen diren enpresa handiak daude, eta aipaturiko espezializazio maila altua ziurtatzen du horrek. Beraz, kontuan hartzen badugu metalaren eratorriak ekoizten dituzten enpresa askoren amaierako bezeroak automobilgintza arloko askotariko industria laguntzaileak direla, egiazta daiteke zenbait shock sektorialekin (adibidez, konponenteen krisia eta energiaren kostu handia) gure BPGd-aren egonkortasuna gehiago kaltetu dutela.

Aipaturiko mantsotzeak ez dio berdin eragin Araban kokatuta dauden negozioen kopuruari. Lurraldean zeuden enpresen kopurua, 2020. urtearen amaieran, aurreko urtekoa baino % 1 txikiagoa zen. Pandemia aurretiko aldietan, Arabako enpresen kopurua % 2 igotzen zen. Negozioek eutsi egin diote osasun krisiaren egoera gogorrari, azken baliabidera –ixtera– jo behar gabe.

Bestalde, Arabako enpresa esportatzaileen kopurua hazi egin zen 2018an, % 6,8 enpresa gehiagorekin itxi baitzen urtea. Azken bost urte hauetan, Arabako enpresa esportatzaileen % 15,4k atek itxi dituzte; EAEn, berriz, % 15,3k.

Azkenik, jarduera ekonomikoari buruzko bestelako adierazle koiunturalen arabera (besteak beste, ibilgailu industrialen matrikulazioari begiratuta), kautelazko ikuspegia dugu, lehen esandakoaren ildo berean. 2020an, guztira 812 zama ibilgailu matrikulatu ziren Araban, eta matrikulazioak % 9,8 jaitsi ziren 2019. urtearekin alderatuta.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Hitz batez, Arabako enpresa sarearen ezaugarriak –espezializatuta eta kanpora irekita egotea– direla eta, dirudienez, pandemiak, jardueraren etenaldiek eta joan-etorrien debekuak, nazioarteko ondasun eta zerbitzu merkatuen ezegonkortasunak eta lehengaien eta osagaien eskasiak kalte egiten diote Arabako jarduera ekonomikoaren bilakaerari. Ahalegina egin behar da Arabako sektore estrategikoak (automobilgintza, aeronautika...) berreskuratzeko eta etorkizuneko jardueretan (biozientziak, energia eta abar) aukera berriak sortzeko.

Nolanahi ere, esan daiteke lurraldearen egoera ekonomikoa irmoa dela, ziurgabetasun garaian bagaude ere. Herritarren ongizaterako eta ekonomia errailetik ateratzea saihesteko, funtsezkoa da aberastasuna sortzeko gaitasun hori garatzea eta mundura irekita dagoen ehun ekonomiko eta industrial indartsua izaten jarraitzea. Lurraldearen erronka da gero eta lehiakorragoa izaten jarraitzea, eta lankidetzeta publiko-pribatua aritzea, enpresa, prestakuntza eta elkarte sarearekin batera, arrakasta izateko bermerik onena da.

2.3. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. LURRALDE GARAPENA:

2.3.1. LURRALDE OREKAREN DIAGNOSTIKOA:

Araba lurralde anitz eta sakabanatua da. Biztanleek, jarduerak eta ekipamenduek lurraldean duten banaketari dagokionez da sakabanatua. Gasteiz hiriburuaren makrozefaliarekin elkarbizitzan dago ezaugarri hori. Izan ere, Gasteiz da Arabako nodo nagusia, eta bere mende daude lurraldeko udalerrri asko eta asko.

Gasteizen bizi dira Arabako biztanleen % 75,1 inguru; hots, 248.087 lagun. Hortik urrun, Laudio (18.351 biztanle), Amurrio (10.333), Agurain (5.353) eta Zuia (2.362) dauzkagu, eta, gero, bakoitzak 1.000 biztanle baino zertxobait gehiago dauzkaten herriak (Guardia, Aramaio eta Kanpezu). Arabako udalerrien % 59k ez daukate 1.000 biztanle baino gehiago. Udalerrri horietako asko kuadrillen egoitzak dira, baina ez dira eskualdeko benetako buru izatera iristen, eta, beraz, ez daukate zerbitzu eta ekipamendu autonomoak.

Arabako biztanleen sakabanaketa agerikoa da. Gasteizek 898 biztanle inguru biltzen ditu km²-ko; Laudiok dentsitate horren erdia du (490 biz./km²); Amurriok eta Agurainek zortzirena (108-140 biz./km²-ko), eta Arabako gainerako udalerrri handiek (Zuia, Guardia, Aramaio eta Kanpezu) 20 biztanle baino gutxiago dituzte km²-ko.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Era berean, Arabako biztanleriak gaur egun dituen ezaugarriak ikusirik, ez dago argi biztanleria epe labur eta ertainean berrituko den. Hala, Laudio udalerrriak dauzka 65 urtetik gorako biztanleen tasa handienak (% 25,7), eta hirigune nagusi gehienek % 21 ingurukoa dute, Gasteiz barne hartuta. Hiriburu arabarrak joera garrantzitsua eranstean dio Arabako batezbestekoari (% 21,1), lehen aipatu bezala monozentrista baita. Bestalde, Gasteizekin alderatuta, landa eremuak ez dira oso erakargarriak emigratzaile atzerritarrek finkatzeko, atzerrian jaiotako herritarren % 13,45 hartzen baititu hiriburuak. % 9tik behera, Laudio, Amurrio, Zuia eta Aramaio daude (azken horrek % 4,2ko egoiliar atzerritarren tasa dauka).

Lurraldeko aberastasunaren banaketan ere desorekak atzeman ditzakegu. Biztanleko BPGd-ari dagokionez, Aramaiok hiriburu arabarrean erregistratutakoaren % 35 dauka; Zuiak % 56, eta Kanpezuk % 65. Alabaina, lurraldeko desoreka horiek ez dira berdin gauzatzen langabeziaren arloan. Aramaio langabezia tasa Arabako hirigune nagusietan txikiena da (% 4,3koa), eta Zuiarekin (% 4,5) edo Guardiarekin (% 8,1) partekatzen ditu Arabako batezbestekotik beherako erregistroak. Laburbilduz, Araban, biztanle kopuru handiena duten hiriguneetan kontzentratzen da langabezia; hau da, Gasteizen, Laudion (% 11) eta Agurainen. Dinamismoari begiratuz gero, 2019an Gorbeialdean eta Arabako Errioxan jaitsi da langabezia gehien (-% 11,64 eta -% 10,6, hurrenez hurren). Arabako Lautadan, ordea, langabeziak % 0,59 bakarrik egin zuen behera aldi berean.

Lurraldeko ekoizpen mixak baldintzatzen du biztanleriaren finkapena. Guardiako, Aramaio eta Kanpezuko lehen sektoreak eremu bakoitzean sortutako balio erantsiaren % 10 baino gehiago hartzen du, Laudion, Amurrioren eta Gasteizen ez bezala, sektore horrek ez baitu % 1,2 gaintzen. Bestalde, Amurriok industria ehun solidoa dauka, enpresa jardueraren % 56,3 industriaren bueltakoa baita; Guardiako (% 48,6) eta Laudio, berriz, zertxobait gaintzen dute Arabako industriaren batezbestekoa. Zerbitzuen sektorean aritzeagatik nabarmentzen dira Zuia, Kanpezu eta Gasteiz (guztiak daude balio erantsi gordinaren % 60tik gora).

Bizilekuaren arabera, arabarren hezkuntza mailan ere desorekak topa ditzakegu. Goi mailako ikasketak dauzkaten biztanleen ehunekoa erreferentziazat hartuta, Zuia da Araban buru (% 24,5), Gasteizen baino % 6 gehiago. Aramaio ia berdindu egiten du Arabako hiriburuaren ehunekoa. Gainerakoak, haren azpitik daude; Amurrioren % 14,2koa da kopuru hori, eta askoz atzerago daude Kanpezu eta Agurain (biak daude % 11tik behera). Bestetik, Aramaio da herritar euskaldun gehien dituen udalerrria, alde handiarekin (% 81,6), eta zabal gaintzen ditu Guardiako eta Gasteizko euskal hiztunen tasak (% 27,3 inguru). Gainerako udalerrietan, guztizko biztanleen herena osatzen dute euskal hiztunek.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Diagnostikoa.

11



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Kapital fisikoaren eta ekipamenduen zuzkidura maila barneko ahulezia geografikoen adierazle argia da. Arabako Lautada albo batera utzirik, Gasteizen hiriburutzaren ondorenak direla eta, Gorbeialdean daude bizitegi lurzoruen ehuneko handienak (% 1,62), eta Arabako Mendialdean txikiak (% 0,65). Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen lurralde mapa askotarikoa da: Arabako Errioxa da jarduera ekonomikoetara lurzorurik handiena bideratzen duen kuadrilla (azalera osoaren % 1,25, Gasteiz kontuan hartu gabe), eta, ondoren, Aiarako kuadrilla dator; Arabako Mendialdeak beste muturrean jarraitzen du, merkataritza erabilerara bideratutako lurzoruen tasa txikiak du eta (% 0,15).

Dagoen etxebizitza parkeari dagokionez, Araban, 100 biztanleko etxebizitzaren batez bestekoa 62,3 da; lurralde eremuen arteko sakabanaketa nahiko handia da. Arabako Mendialdeak 151,5 etxebizitzetara igotzen du batez besteko ratioa; ondoren, Arabako Errioxa dago, 110 etxebizitzarekin, eta, gero, Arabako Ibarrek, 108,4 etxebizitzarekin. Kantauri Arabarra beste muturrean dago, 52,5 etxebizitzarekin. Azken eskualde horretako etxebizitzak Arabako parkearen % 10 osatzen dute.

Biztanleko ibilgailuen hornidura ere eremu batetik bestera aldatzen da. Hala, Arabako Ibarretan, biztanle bakoitzak 1,08 ibilgailu dauzka jabetzan, eta, Arabako Mendialdean, 1,06, batez besteko ratio gisa kalkulaturik, batez besteko handienak dute. Beste muturrean, Kantauri Arabarra eta Arabako Lautada daude (% 0,6 baino pixka bat gehiagorekin). Biztanleriak lurraldean duen banaketaren ondorio ere badira desberdintasun horiek.

Lurraldeko garraioari buruzko datuak osatzeko, irisgarritasuna eta azpiegituren hornidura balioesten dituzten adierazleak erabil daitezke. Arabako udalerrietatik Gasteiz hiriburura iristeko itzulinguruei begiratuta, errepide bidez zuzenean iristeari dagokionez, Guardia dago azken (% 28,7), udalerririk handiei dagokienez, eta Agurain dago beste muturrean, % 11,8rekin. Errepide gehiago egin dira, biztanleak elkarrengana eta beste eremu geografiko batzuetara hurbiltze aldera, baina intentsitate maila desberdinarekin: Arabako eskualdeen artean, Arabako Haranak bideratzen du azalera handiena errepideetara (eskualdeko azalera osoaren % 0,79), eta Arabako Mendialdeak, berriz, txikiak (% 0,28).

Distantsia eta irisgarritasun arazoak tarteko, udalerririk batzuk beste lurralde batzuetako hiriburuetara hurbiltzen dira gehiago. Lurralde kohesioari eusteko, hiriarteko autobusak ezarri dira, eta udalerririk arteko konektagarritasunari buruzko datu esanguratsuak atera daitezke hortik. Gasteizekin garraio publikoaren bidez konektatutako herri gutxien Kanpezu inguruan daude (4), eta gehien Laudion (16).



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2.3.2. ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN DIAGNOSTIKOA:

Araba Europako eskualderik aberatsenetako baten parte da, eta, inguruko lurraldeetan bezala, landa eremuen despopulazioaren fenomenoaren eraginpean dago, biztanleria hiriguneetan pilatzen da eta.

Landa eremuetako nukleo txikienek pisu demografikoa galdu dute pixkanaka, eta haien hazkundea gelditu egin da.

1.- Jaiotza tasak behera egin du, gazteen kopuruak (eta, bereziki, haurrenak) behera egin du; bizi itxaropenak gora egin du, eta, beraz, biztanleria zahartu egin da.

2.- Gure kasuan, biztanleria Gasteiz hiriburuaren inguruan pilatu da, neurri batean 60ko eta 70eko hamarkadetako garapen ekonomikoak hiria izan zuelako ardatz, gainerako haranen eta kuadrillen kaltetan. Kontzentrazio prozesu horrek, gaur egun, zifra adierazgarriak dakartza: biztanleen % 75,1 hiriburuan bizi dira, eta % 24,9, berriz, lurraldeko gainerako lekuetan.

3.- Era berean, egiaztatu da lurraldeko banaketa demografikoa gorabeheratsua dela. Desparekotasun demografiko hori agerikoa da, ez bakarrik kuadrilla mailan, baita udalerrri bereko herriguneen artean ere.

Lurralde osoari eragiten dion gizarte, lurralde eta ekonomia arloko erronka handia dugu aurrean, eta bizikidetzako, lurralde egituraketako eta gizarte kohesioko oinarritzko kontuei eragiten die.

Azken urteotan, Arabako Foru Aldundiak, gainerako erakundeekin lankidetzan, ahalegin handia egin du lurraldea egituratzeko politikak jorratzen, hiri eremuaren eta landa eremuaren arteko aldea murrizteko. Zenbait neurri eta proiektu aipatu behar ditugu, besteak beste Araba konektatua programa; Aparteko inbertsioen programa; Mendialdea biziberritzen proiektua, Izki Golf (Mendialdearen azpiegitura eragileetako bat); Arabako Suhiltzaileen Erakunde Autonomia sortzea eta eskualdeko suhiltzaile parkeak 24 orduz irekitzea.

2.3.3. TREBIÑUREN DIAGNOSTIKOA.

Trebiñuren egoera anakronismo historikoa da, eta, horren ondorioz, Trebiñuren garapen ekonomiko, politiko eta administratiboa bereizi egin da Arabako gainerako lurraldeetako foru araubidearen bilakaeratik.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Leku horretako biztanleen etengabeko desengainuaren historia da; izan ere, itxaropentsu zeuden Estatuaren trantsizio demokratikoaren eta estatu autonomikoaren bilakaeraren barruan konponbidea emango zitzaiola Trebiñuren egoerari, baina aurreko egoera kontsolidatu baino ez zen egin.

Alabaina, joan den legegintzaldian zehar, urrats garrantzitsuak egin dira Trebiñuko biztanleei zerbitzu hobekak emateko. Hain zuzen ere, 2018ko martxoan, Burgosko Diputazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko esparru-akordioa sinatu zen. Akordio global iragankorra da, arabarrek jasotzen duten tratu bera jaso dezaten trebiñarrek politikari dagokienez. Ondoren, akordioa irmo bihurtu zen beste zazpi hitzarmenen bitartez, eta horiek, besteak beste, AFAk trebiñarrei ematen dizkien zerbitzu publikoari segurtasun juridikoa emateko balio izan zuten. Azpimarratu behar da leku horretako udalerririk Arabako Lurralde Historikoan integrazteko nahia ordezkatzeko duela aipatutako akordioak.

Azken udal hauteskundeetan berriz ere argi geratu da Trebiñuko eta Argantzongo biztanleek Arabaren parte izan nahi dutela. Espainiako legebiltzarreko bi ganberen osakerak pentsarazten du balitekeela legegintzaldi honetan aurrera egitea akats historiko horri konponbidea emateko bidean.

2.4. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. BERRIKUNTZA:

Globalizazioa eta ekonomiaren digitalizazioa direla tarteko, nabarmen handitu da askotariko merkatuetako lehiakideen kopurua, eta, horren ondorioz, baita enpresen lehiakortasuna hobetzeko beharra ere. Aberastasuna sortzen jarraitzeko ezinbesteko baldintza da lehiakorrak izaten jarraitzea, eta horretarako, berritu egin behar da, baita lehiakide kopuru gero eta handiago horrek baino gehiago eta hobeto berritu ere.

Koronabirusaren krisialdiaren eta horniduretan eta lehengaien eskuragarritasunean izaten duen eraginaren ondorioz, are beharrezkoagoa da enpresetan etengabe berrikuntzara jotzea, beren produktu eta zerbitzuak bereizteko.

Bezeroak espero duenari erantzuteko, berritu egin behar da, hala prozesuetan nola produktuetan, ahalik eta eperik laburrenean eta ahalik eta kosturik txikiena izanik, berrikuntza teknologikoak eta ez-teknologikoak txertatuz, I+G arloan inbertsio materialak eginez, edo kudeaketa hobetuz.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

I+Grako gastuak % 7 jaitsi ziren Araban 2019. urtean zehar; horrela, apurtu egin da aurreko bi urteetako hazkunde handiko joera. Era berean, hautsi egin da beste lurralde historiko bietako joera positiboa. Oraindik ez dira ezagutu I+Grako gastuaren datuak, pandemia aldiari dagozkionak. Edonola ere, Araba desabantaila egoeratik abiatzen da gai horretan, eta zenbaki oso baxuetara irits daiteke enpresa jarduera bat-batean gelditzearen ondorioz.

Makaltasun horrek areagotzen du arrakala Arabako I+G arloan egiten den ahaleginean, EAE osoarekin konparatuta: Araban, I+Grako gastua BPGd-ren % 1,23 da, eta EAEn % 1,86. 2019. urtean, EAeko batezbestekoarekiko aldea 0,14 puntu hazi da. Horri dagokionez, atzean geratu da Araba.

Arabako Berrikuntza Sistemaren konfigurazio desberdinaren ondorio izan daiteke distortsio hori; izan ere, ikerketa zentro eta unibertsitate gutxiago dagoenez, txikiagoa da I+G arloan egindako inbertsio ahalegina. Araban, I+G arloan egindako ahaleginaren % 54,6 enpresek egiten dute, eta beste lurralde batzuetan, Bizkaian adibidez, zifra hori ez da iristen % 49,7ra.

Lurralde honek I+G arloan egindako ahalegin txikiagoa berresteko, komeni da aurreko zifrak zeregin horietan diharduten langileekin egiaztatzea. 2019an, aurreko urtean baino % 12,8 zientzialari eta ikertzaile gutxiago egon ziren Araban. Arabak ikertzaileen % 12,2 eransten dio Euskal Autonomia Erkidegoari.

Arabako enpresetan berrikuntzak sartzeko moduari dagokionez, Arabako ahalegin berritzailea epe luzean moteltzeaz gain, 2010. urtean, berrikuntzan egindako gastua EAE osoaren % 19,4 zen. Zortzi urte geroago, % 16,4ra jaitsi zen proportzio hori.

Era berean, egiaztatu da Arabako enpresek honako joera hau dutela: berritzeko orduan, teknologia arlo, teknologia zentro eta unibertsitateekiko lankidetzan oinarritzekoa, merkatuaren esparruarekikoan (bezero, lehiakide eta adituekiko elkarreragina) baino. Ziur asko, lurraldeko enpresa handien pisuaren ondoriozkoak dira bi emaitza horiek.

Horiek horrela, berrikuntza arloko gastuak, berrikuntza teknologikoko eta ez-teknologikoko gastuak barne, 438 milioi eurora iritsi ziren duela gutxi Araban, hau da, % 6,1 igo ziren. Horri dagokionez EAeko hazkundera oso antzekoa bada ere, gastu arabarraren pisua % 16,4koa da EAEn, Arabako BPGd-ak EAEn duen proportzioaren oso berdintsua (% 16,1). Bada, Arabak berrikuntzan egiten duen gastua Arabako BPGd-aren % 3,7 da. Laburbilduz, Araba lurralde berritzailea da, baina inbertsio mugatua egiten du I+G arloan.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Arabak berrikuntzaren eremuan duen egonkortasunari buruzko zehaztasun horiek berresteko, berrikuntzako jardueraren bat egin duten enpresen kopurua begiratu daiteke, barruko jarduera edo erositakoa izan gorabehera. Araban, ia 21.700 enpresak burutu dituzte berrikuntza jarduerak 2019. urtean: % 1,4ko igoera, aurreko urtearekin konparatuta (EAEko batez besteko hazkundearen gainerik).

Azkenik, Arabak goi mailako teknologiko sektoreetan duen tokia are sendoagoa da. 2018an, sektore horietan kontratatutako langileak EAEko guztizkoaren % 18,1 izan ziren, Arabako koefiziente horizontalaren gainerik. Urte hartan, eskulan kualifikatuak % 3,9 egin zuen gora.

Ondorio orokor modura, honako hau esan genezake: barne mailako I+Grako baliabideak eman orde berrikuntza arloan mozkinak eskuratzeko ahalegin handiagoa egiten duten sektore teknologikoetan dauden mikroETE ugariek osatzen dute Arabako berrikuntza sistema. Aldameneko lurraldeetan presentzia eta jarduera handiagoa dauzkaten zentro teknologikoek eta unibertsitateek egiten dute I+G hori. Halaber, enpresek antolakuntza eta merkataritza arloko berrikuntzan ahalegin handiagoa egiteko beharra identifikatu da, enpresen lehiakortasunean ondorio garrantzitsuak ditu eta. Enpresek antolaketa eredu egokia garatzen ez badute, zaila izango zaie inbertitutako baliabideak edo kanpotik eskuraturako ezagutza xurgatzea eta ustiatzea, eta merkatuan aplikatzeko moduko berrikuntza lortzea.

2.5. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. ENPLEGUA:

Arabako enpleguak kolpe latza jaso du, 2020ko martxotik aurrera planeta jo duen gaixotasunaren kasuak murrizteko ezarritako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa mugatu zenean.

Handik aurrera, inflexio puntu bat sortu zen, azken urteotan ikusitako enplegu sorkuntzaren joera positiboari dagokionez. Hala ere, COVID-19ak Araban izan zuen inpaktu negatibo gogorra behera egiten ari dela ematen du. 2019. urtearen aurretiko hazkunde ekonomikoak Araban zorrotz moztu zuen lan merkatuko langabeziaren tasa azken bost urteetan.

Arabako langabezia tasa % 17,1 zen 2014an, eta % 10,8ra jaitsi zen 2019ko ekitaldiaren itxieran. Hala ere, 2020ko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomia gelditzearekin batera, langabezia tasa % 12,1era igo zen berriro. Ondoren, 2021eko bigarren hiruhilekoan, adierazle hori puntu bat jatsi da, eta % 11,1etik hurbil geratu da.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Aurtengo 2021eko hilabete gehienetan zehar, pixkanaka-pixkanaka jaitsiz joan da enplegu eskatzaileen kopurua. Azpimarratzekoa da Arabako langabeen kopuruaren jaitsiera nabarmena, aurtengo uztailean; izan ere, % 17,5 jaitsi da, aurreko urteko hilabete bereko kopuruarekiko. Susperraldia ikustatzen da soilik osasun larrialdiari egotzi behar zaizkion zenbateko negatiboan konpentsazioan. Arabako langabeen kopurua % 16,5 igo zen 2020an. Orain, antzeko intentsitatearekin aldatzen da, baina kontrako norabidean.

Gizarte Segurantzarako afiliazioek gora egin dute pixkanaka 2021ean, hilabete batzuetan gorabeherak izan arren. Izan ere, 2021eko abuztuan, benetako afiliazioa 155.000 pertsonatik gorakoa zen, hau da, % 1,8 gehiago, 2020ko hilabete berean baino, baina 2019. urtearen amaieran baino % 3,8 gutxiago. Bestalde, ABEE lan egoeran dauden pertsonen kopurua 1.209 langilera iritsi zen aldi berean, hau da, EAEko osoaren % 11,3 izatera heldu zen.

Arabako langile bakoitzaren batez besteko produktibitatea 74,8 mila euro ingurukoa da, Euskadikoa baino zertxobait txikiagoa (75,8 mila). Alabaina, honako hau azpimarratu beharra dago: Arabako produktibitateak sekulako igoera izan du COVID-19aren aurretiko azken bost urteetan, 2014an 70,4 mila eurokoa izan baitzen. Arabako produktibitatea EBren batezbestekoa baino % 27,6 handiagoa da, eta, zalantzarik gabe, kanpoko jarduera gure lan merkatura erakartzeko faktore erabakigarria da hori.

Arabako soldaten bilakaera, lanean sortutako batez besteko errenten arabera neurtuta, % 0,1 jaitsi zen 2018an, baina % 8,6 hazi zen aurreko bosturtekoan. 2021. urtearen hasieran, Euskadiko batez besteko lan kostua orain dela urtebetekoa baino % 3,1 handiagoa da, eta jarraitzen du Estatuko altuenetako bat izaten, Espainiako batez bestekoa baino % 19,4 handiagoa baita.

Kapitulu hau ixteko, Arabako gazteen langabeziaren gaitza azpimarratuko dugu, osasun-krisiak asko larriagotu du eta. 16 eta 24 urte bitarteko gazteen okupazio tasak behera egin du azken bost urteetan: % 34,4koa izatetik % 23,8koa izatera igaro da Araban 2020an. Hau da, lau gaztetik batek topatzen du lana adin tarte horretan. Ikasten ari diren gazteen kopurua altua da, baina, nahitaezko ikasketak eta ikasketa tertziarioak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) amaitzeko adinari erreparatzen badiogu, datuek diotenez, lehenengo enplegua lortzeko adina atzeratu egin da denboran. Gazteek laneratzeko zailtasun bereziak dituzte, baita 45 urtetik gorakoek ere, eta azken horien egoera larriagoa da, beren etorkizuneko pentsioak arriskuan daude eta.

Azken batean, Arabak enplegua sortzen jarraitzen du, koronabirusaren krisia eragina handia izan arren. Arabako ekonomia solidoa denez, nahiz eta hazkunde



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

tasak txikiak izan, pertsona berriak lanera itzul daitezke lan merkatura. Dena dela, pandemia aurreko egoera berreskuratu behar da eta enpleguen kalitatea hobetu beharra dago. Azpimarratu egin behar dugu gazteek gero eta zailtasun handiagoak dituztela beren lehen enplegua aurkitzeko, eta prestakuntzarik gabeko pertsonen egiaztagiri profesionala behar dutela hura aurkitu ahal izateko.

2.6. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. MERKATARITZA ETA TURISMOA:

Arabako merkataritza sektorea egoera korapilatsua pasatzen ari da aspaldidanik, konfinamenduaren ondoriozko krisi ekonomikoaren inpaktu handiak larriagotuta; horri gehitu behar zaio azalera handien lehiakortasunaren gorakada eta, batez ere, onlineko salmenta.

Arabako txikizkako merkataritzaren salmentei buruzko azken datuek % 8,2ko igoera nabarmena erakusten dute 2021eko lehen seihilekorako, 2020. urtearen aldean; ehuneko horrek gora egin du aurtengo lehen seihilekoko tiraldiaren ondorioz; bilakaera hori bat dator negozioak irekitzeko murrizketak pixkanaka kentzeko joerarekin eta familien gastu pertsonalaren igoera korrelatiboarekin. Igoera hori are handiagoa da Araban, Euskal Autonomia Erkidego osoan baino (% 7,7). Hazkundera dagokionez, alde nabarmenak daude azpisektore batetik bestera: indartsuagoa da elikadura establezimenduetan eta automobilgintzan eta erregaien arloan diharduten horietan (mugikortasun handiagoa).

Bestalde, Arabako azalera handien salmenta indizeak urte arteko hainbat hazkunde metatu ditu 2021eko lehenengo sei hilabeteetan. Ildo horretan, urtean metatutako salmenta zenbakiek % 6,2ko hazkundera erakusten dute, 2020ko salmenten aldean. Datu horiek berresten dute denborarekin etenik gabe berreskuratzen ari dela Arabako kontsumo pribatua, biztanleen konfinamenduaren ondorio suntsitzaileen ostean.

Hala ere, Internet bidezko salmentak indarrez sartu izanak larriagotu egin du aurrez aurreko denden salmenten bilakaera. Online merkataritza errealitate iraganezin bihurtu da, osasun krisialdian jasan beharreko itxialdian, etxean eta udalerrian, erabakiak hartzeko alternatiba izan baita.

Arabian, herritarren % 84,5ek erabiltzen dute Internet. 2018an, weberrako sarbideek % 3,2 egin zuten gora. Urte horretan, salmenta elektronikoak 6,5 milioi euro baino gehiago eman zituen Araban, aurreko urtean baino % 10 gehiago. Euskadiko lineako salmenten % 30 Araban egiten dira, lurraldean bizi den biztanleriarekin bat ez datorren proportzioa izaki hori.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Internet bidezko salerosketak urtetik urtera hazten ari dira, eta, horri lotuta, kontsumitzaileen ohiturak aldatzen ari dira. Horrek bete-betean eragiten die denda tradizionalari. Beraz, Arabako txikizkako saltokien laurdenak baino gehiagok merkataritza elektronikoa txertatu dute haien negozioan.

Adierazitako guztiak aurrez aurreko salmentaren bilakaera kaltetzen du, eta estutasunean jartzen du tokiko merkataritza hurbilaren biziraupena. Arabako merkataritza tradizionalari lagunduko dioten neurriak ezarri behar dira, produktu espezializatuak prezio lehiakorretan eskaini eta denboran irautea ziurtatzeko. Gainera, behar beharrezkoa da erakundeek laguntzea, sektorearen erresilientziari eutsi nahi bazaio, landa nahiz hiri eremuetako jardueraren eta bizitzaren muin gisa.

Bestalde, turismoak balio erantsi handia eranstean dio Arabari. Beste sektore batzuen (adibidez, merkataritzaren, garraioaren eta ostalaritzaren) ekonomia jarduera bultzatzen duen sektorea da. Arabak bere ondareari, naturari, ardoei eta gastronomiari lotutako erakargune turistikoak ditu, eta horiek ikusarazi eta erakargarriago bihurtu behar ditugu, haien inguruko esperientziak eta jarduerak eskainiz.

Arabako turismoa, hala ere, COVID-19aren pandemiak gogor zigortu dituen sektoreetako bat da. 2021eko lehenengo zazpi hilabeteetan, Araba bisitatzera etorritakoen sarrerak % 47 hazi ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Ezin dugu esan bisitarien kopurua mugikortasun murrizketen ondoren guztiz suspertu denik, 2020an turismoa % 58,7ra jaitsi baitzen, 2019. urteko bisitari kopuruarekin konparatuta. Normaltasun egoeretan, eskura dauden azken datuek (2019) bisitari kopuruaren atzerakadak erakusten dituzte: 460.271 bisitari erregistratu ziren (-% 2,9, aurreko urtearekin konparatuta).

Balantzea bereziki positiboa izan zen landetxeetan eta nekazaritza turismoko establezimenduetan, eskaria asko handitu zen eta. Datu horrek azaltzen du zergatik hazten ari den turismo jarduera gehiago turismoa ahulagoa den eskualdeetan (Mendialdea, Añana, Aiara, Gorbeialdea eta Arabako Lautada) bi sarrera nagusietan (Gasteiz eta Arabako Errioxa) baino.

Izan ere, adibidez, landa hoteletan eta nekazaritza turismoko establezimenduetan kontratatutako gauen kopurua % 41 igo zen 2021eko lehenengo zazpi hilabeteetan, aurreko urteko % 59ko atzerakadaren aldean.

Landa ingurunean eta hirietan antzekoa den hazkundeak bisitariak lurralde osoan hobeto banatzen laguntzen du, eta turismoak jarduera ekonomikoan, enpleguan eta biztanleriaren finkapenean duen eragin positiboaren onurak jasotzeko aukera ematen die eskualde guztiei.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Diagnostikoa.

19



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Oraindik nabarmenak dira 2021. urtearen eta 2019. urtearen arteko aldeak. Denbora behar da normaltasun osoa lortu ahal izateko. Arabako hotelen batez besteko okupazio maila, 2021eko udako lehenengo hilabetean, eskainitako plaza guztien % 45,8 izan da. 2019ko hilabete berean (konparaketa homogeenoa egin ahal izateko), batez besteko okupazioa % 50,7 zen. Arlo horretan aurrerapenak lortzeko, ahalegin are handiagoa egin behar da orain, ahal bada, koordinazioari eta sustapenari dagokionez.

Bidaia-erakunde gehienbat Estatuko gainerako lekuetatik badatoz eta haien egonaldia luzeagoa izatea nahi badugu, turismo eskaintzak ahalik eta osoena izan behar du, geografiaren, jardueren eta gaien ikuspegitik. Eskaintzak kultura ondarea, enogastronomia, natura turismoa eta turismo inklusiboa izan behar ditu ardatz.

2.7. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. LOGISTIKA ETA GARRAIOA:

Arabako lurralde historikoa komunikazioen ardatz estrategiko batean kokatuta dago, penintsula kontinente europarrarekin lotzen duelako iparraldetik, Bilboko portutik hurbil dagoelako eta pertsonen nahiz salgaien Kantauri itsasoko ertzaren eta Mediterraneoaren arteko mugimenduen martxa eramaten duelako. Igarotzeko toki gisa, kokaleku geografiko pribilegiatua dauka, eta askotariko komunikazio ibilbideen arteko bidegurutzea da.

Kokapen estrategikoari eta lurzorua eskuragarritasunari esker, lurralde hau leku egokia da Euskadin nazioarteko lehen mailako nodo logistikoa bat garatzeko, 2019an onetsitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketetan aitortu bezala. Jarduera logistikoa eta, oro har, garraio azpiegiturak garatzeko aukera ematen du kokapen horrek; izan ere, konexioak dauzka, batetik, sarrera gisa eta Iberiar penintsula eta kontinentea alde atlantikotik lotzeko errotula gisa, eta bestetik, hego-ekialderantz, ardatz mediterraneoarekin duen loturagatik.

Arabaren kokapen estrategiko horrek, ardatz atlantikoaren eta Ebroko haranaren artekoak, berekin dakar Araba Estatuko eta Europako komunikazio sarean nahitaez igaro beharreko lurraldea izatea. Europa barneko sarearen E-5 eta E-80 (AP-1 eta A-1) ibilbideen igarobide estrategikoa da Araba. Horrez gain, Kantauriko korridorea AP-68 autobidearen bidez Ebroko haranarekin lotzeko ardatzean kokaturik dago, bai eta penintsularen mendebaldea AP-68 eta AP-8 autobideen bidez Europarekin lotzeko ardatzean ere.

Arabako errepideen sare funtzionalak 531 km ditu, eta horien % 36 lehen mailako errepideen kategorian sailkatuta daude. Euskadiko goi mailako sarearen % 27 Araban dago. Hortaz, nazioarteko garraioari bide emateko



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

erantzukizuna nabarmena da. Hain zuzen ere, Arabako lehentasuneko sarearen luzera osoaren % 85 gaitasun handiko errepidez osatua dago. Arabako Lurralde Historikoko errepideen foru sarearen eskari osoaren ia % 75era iristen da bide horietan sortutako trafiko globala, kilometro bakoitzeko milioika ibilgailutan.

Horrela, agerian geratzen da galtzada bakarreko bideak (sare konbentzionala) direla luzeenak biztanlegune guztien irisgarritasuna bermatzeko errepide sare osoan, baina errepide sarearen % 12k soilik sortzen eta bideratzen duela trafikoaren ia % 75.

Guztira, Araban garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako lurzorua (30 milioi m² inguru) % 80 dira bide azpiegiturek. Arabako errepideek Arabako guztizko azaleraren % 0,79 hartzen dute; Euskadin, berriz, bideen dentsitatea handiagoa da, % 1,13koa.

Europako 2019/1936 Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 2019ko urriaren 23koak, Bide Azpiegituren Segurtasunaren Kudeaketari buruzko 2008/96/EE Zuzentaraua aldatzen duenak, bide segurtasunaren inpaktuaren ebaluazioei, bide segurtasuneko auditoriei, bide segurtasuneko ikuskapenei eta sare osoko errepideen segurtasunaren ebaluazioari lotutako prozedurak ezartzeko eta aplikatzeko eskatu die estatu kideei. Nahitaez bete beharreko aplikazio eremua zabaltzen du. Hemendik aurrera, Europa Barneko Errepideen Sareari ez ezik autobideei eta beste errepide nagusiei ere aplikatuko zaie, diseinu, eraikuntza edo utsiapen fasean egon.

Prozedura horiek guztiak gaitasun handiko sare osoari aplikatzeko, aparteko inbertsio ahalegina egin beharko da, ez bakarrik diseinuari dagokionez, baizik eta baita azpiegitura eta ekipamendua kalitate maila egokian mantentzeari dagokionez ere, segurtasun maila handia bermatze aldera. Beraz, zuzentarauaren eremuan sartzen den errepide sare osoa sistematikoki ebaluatu behar da, eta, horretarako, baliabide elektroniko eta digitalen bidez bildutako datuak erabili behar dira, besteak beste, Europar Batasun osoan segurtasuna areagotzeko.

Beste eskualde eta herrialde batzuekin konektatzeko gaitasun handiko lurraldea dela erakusten du horrek guzti horrek, baina baita barne mailako konektagarritasun handiko lurraldea dela adierazten ere. Konektagarritasun arinak lurralde kohesioa hobetzen du. Lurralde garapen orekatuaren funtsezko zutabeetariko bat izan behar da errepide sare modernoa, salgaiek eta pertsonak hobeto eta seguruago zirkulatzeko, lurraldean zehar eta lurraldearen barruan, eta irisgarritasun egokia bermatzeko, halako moduan non garapen sozioekonomiko



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

orekatuari bide emango zaion, biztanleria osoaren bizi kalitatea eta maila hobetze aldera. Horren guztiaren oinarrian izan behar dira, batetik, ingurumen balioekiko errespetua, berezko balioa dutelako eta lurraldearen potentziala direlako, eta bestetik, lurraldearen zentzuzko erabilera.

Arabako barne sare trinkoaren irisgarritasunari esker (346 km trenbidez osatua dago), 51 udalerrietatik 23, hau da, Arabako Lurralde Historikoko udalerrien erdia baino gehiago, 5 minutuan baino denbora laburragoan konektatzen dira lurraldez kanpoko sarbide nagusiekin. Arabako udalerriek hiriburuarekin errepide bidez lotzeko duten konektagarritasuna Euskadiko handiena da. Arabako udalerriek hiriburuarekin lotzeko itzulinguaren ehunekoa % 20,6koa da, eta Bizkaian % 31koa. Hala ere, Gasteizera errepidez iristeko batez beste behar den denbora Euskadiko handiena da (26 minutu), dauden udalerri guztiak kontuan hartuta. Hortik ondorioztatzen da lurraldeko udalerri asko geografikoki sakabanatuta daudela. Arabako udalerri askok, ordea, abantaila handiak dauzkate irisgarritasun arloan; esaterako, Gasteiz 75 udalerrirekin dago konektatuta hiriarteko autobusen bidez (Donostia baino gehiagorekin); Audio 16rekin, eta Agurain 14rekin.

Errepideko garraioari dagokionez, 2020an, Arabako errepideetatik salgaien 23.443 tona garraiatu dira, hau da, 2019an baino % 18,5 gutxiago, itxialdi perimetralen ondorioz; horrela, hautsi egin da pandemia aurretiko aldiko joera positiboa (2019an, % 31,5 hazi zen). Hala ere, susperraldi motelaren ondoriozko joera aldaketa finkatzen ari dela ematen du: 2021eko lehen hiruhilekoan, Arabako errepideetatik % 3,2 gehiago garraiatu da, aurreko urteko aldi berean baino. Salgaien nazioarteko garraioak norabide negatiboari eutsi dio, baina neurri txikiagoan: % 9,9 jaitsi da. Makinen, ibilgailuen eta fabrikatutako beste objektu batzuen garraioa nabarmentzen da.

Biztanleko ibilgailuen parkea Euskadiko handienetakoa da Arabakoa: batez besteko ratioa 0,65ekoa da, eta EAE osokoa 0,63koa. Hala ere, 2020an, matrikulatutako industria ibilgailuen kopuru metatua 2019. urtean baino % 9 txikiagoa zen; ibilgailu partikularrena, aldiz, % 15,2 jaitsi zen.

Ekonomia jardueraren ikuspegitik begiratuta, Araban 1.295 garraio enpresa daude, eta 3.835 pertsonari ematen diete lana. EAE osoko enpresen % 12,8 baino zertxobait gehiago dira.

Gainera, Arasur, Terminal Intermodala eta Gasteizko aireportua dira Arabako azpiegitura logistikoko estrategiko nagusiak.

laz amaitu zen Arasurreko trenbide terminala eraikitze proiektua, plataforma hori Bilboko Portuarekin lotzen duena, eta leku hori erakargarri bihurtu zuen

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Diagnostikoa.

22



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

trenbidea edo portuarekiko lotura behar duten enpresa logistiko eta industrialentzat. Laster jarriko da martxan.

Gasteizko Salgaien Terminal Intermodalari dagokionez, AFAk, Eusko Jaurilaritzarekin batera, laguntza eman du Jundizen azpiegitura hori garatzeko. Espainiako Gobernuak du azpiegitura gauzatzeko eskumena. Abiadura handiko trenaren Burgos/Gasteiz zatia funtsezkoa da Terminal Intermodalerako, penintsularen erdialderantz eta mendebalderantz merkantzia korridore bat sortzeko aukera emango baitu.

Arabako nodo logistikoaren barruan balio estrategiko eta bereizgarri handia duen hirugarren jarduketa Gasteizko aireportua da. Hiru alderdi ditu: bidaiariak, karga eta kokapen industrialia.

Bidaiariei dagokienez, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria sozietateak (Eusko Jaurilaritzak, AFAk, Gasteizko Udalak eta Merkataritza Ganberak parte hartzen dute bertan) hegaldien eta helmugan eskaintza dibertsifikatzeko egindako jarduketei esker, ia galduta zegoen jarduera itzuli zaio aireportuari. Koiunturalki, COVID-19aren pandemiak munduko aireko zirkulazioan eragin zuen itxialdiaren ondorioz bertan behera utzitako hegaldiak pixkanaka berreskuratzen ari direla nabaritzen da. 2021eko uztailan, Forondako bidaiarien trafikoa % 76,6 hazi zen, aurreko urteko lehenengo zazpi hilabeteekin konparatuta. Trafikoaren jaitsiera, 2020ko uztailan, % 58,7koa zen.

Kargari dagokionez, Gasteizko aireportua laugarrena da herrialde osoan garraiatzen den bolumenaren rankingean. 2021eko lehenengo zazpi hilabeteetan berreskuratu dira (% 21,2ko gehitzearekin) alarma egoeraren ondoriozko atzerakadak; izan ere, gainditu egin dira aurreko normaltasun urteetako zenbatekoak: 2021eko trafikoa % 11,3 gainditu du 2019koa. Zenbateko horiek argi eta garbi erakusten dute aireportu horren dinamismo indartsua, salgaien garraioan espezializatua den heinean.

Logistika enpresek agertutako interesari eta manipulazio arloan bestelako erraztasunak (aireportuko karga prozesu osoa estaltzen dute) emateari esker, aireportua zama garraioan espezializatutako zentro gisa kontsolidatu da. Horrela, garraiatutako zamaren bolumenari begiratu gero, Gasteizko aireportua laugarrena da Estatuan, Barajas, Bartzelona eta Zaragozako aireportuen atzetik.

SCSrekin (VIAS ohia) elkarlanean ari gara, egungo operadoreei laguntzeko eta beste batzuk erakartzeko ekimenetan. Lan horri esker, aireportuak aire bidezko garraio espreseko hiru konpainia global handi ditu, DHL, UPS eta FEDEX, eta horiek aukera ematen dute 24 orduan Europarekin konektatzeko eta 48 orduan mundu industrializatuko edozein lekurekin. Gainera, aireportuak animalia



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

jatorriko produktu galkorren Mugako Ikuskatze Puntua (PIF) berreskuratzea lortu da.

Industria garapenari dagokionez, AFA lankidetzan ari da Eusko Jaurlaritzarekin eta SPRILUREkin, VIAP proiektuaren izapidetzeak aurrera egin dezan, eta aireportuaren inguruan jarduera ekonomikoen eremu bat sor dezan azpiegitura horretatik hurbil egotea eskatzen duten proiektuetarako.

Antzinatik, Arabako erakundeek lurraldeko lurzoruarekin zerikusia daukaten gaitasun logistikoen garapena bultzatzeko egin izan dute lan, operatibo industrial eraginkor eta jasangarria indartzeko eta jarduera nahiz zerbitzu berriak ezartzea errazteko asmoz.

Erabilera logistikoetarako lurzoruaren eskaintzak azalera espezifikoko 9 milioi m² baino gehiago hartzen dituzten plataforma eta poligono espezializatuak biltzen ditu. 150 kilometro baino gutxiagoan, plataforma horiek penintsulako hiru zama portuetatik hurbil daude, eta Bilboko portutik ordubetera bakarrik. Nabarmenezkoa da Arasur, hedapen prozesu bete-betean baitago 2.000 hektarea inguru lurzoru logistiko eta industrialekin. Aipatzekoak dira, halaber, Jundizko CTV —720 mila m² inguru ditu—, aireportua eta garapen logistikoa duten industrialdeak, hala nola Los Llanos, Subillabide, Agurain, Asparrena eta Okiturri. Horiei baliabide intermodal handi bat osatzeko proiektuak gehitu behar zaizkie: VIAP-Vitoria Industrial Air Park eta Gasteizko Jundizko Terminal Intermodala (484.000 m²).

Azpiegitura logistiko horiez gain, Araban trenbide sare bat dago abian. Sare horrek ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du lurraldea, eta haren geltoki nagusia Gasteizen dago. AHTa eraikitzeke dago oraindik, zeina, aurreikuspenen arabera, 2023rako zirkulazioan egongo den. Bada, plan honetan finkatu diren xede estrategikoetako bat izango da hori.

Azkenik, aurreko guztia bezain garrantzitsua da herritarrek eskubidea izatea garraio publikoan oinarritutako mugikortasun jasangarriaz gozatzeko, lurraldean zehar modu seguruan, irisgarrian, eskuragarrian eta jasangarrian mugitzeko ahalmen osoa izan dezaten. Ildo horretan, bidaiarien errepide bidezko 20 garraio linea erregularren titular da AFA. Horiek 6 emakidatan multzokatuta daude: diruz lagundutako 4 emakida (Araba Erdialdea, Arabako Errioxa, Aiara eta Miranda/Gasteiz/Durango) eta arrisku eta menturako 2 (Bilbo-Logroño eta Bilbo-Iruñea).

Hiriarteko linea erregularren bilakaerak bidaiarien erantzun positiboa islatzen du; izan ere, foru lineen erabiltzaileen kopuruak % 36 baino gehiago egin du gora



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2015etik 2019ra, eta 2019ko ekitaldia 1.555.720 bidaiarirekin itxi dugu, 2018an baino % 6,5 gehiagorekin.

Álava Busen emakida guztiek garapen positiboa izan zuten iaz, baina bereziki nabarmendu behar dira Gasteiz-Durango eta Bilbo-Logroño lineak, zeinen erabilera % 19 eta % 14 hazi baitzen, hurrenez hurren. Gainerakoen tasak ere positiboak dira, % 1,9 eta % 5,5 artekoak.

Eskualdeko garraio zerbitzu berriaren bilakaerak ere emaitza positiboak izan ditu 2019ko uztailan ezarri zenetik: ekitaldiaren amaieran igoera % 1ekoa zen 2018arekin alderatuta, eta 29.600 bidaiari eraman dira landa eremuetatik eskualde buruetara. Lurralde Historikoko landa gunek txikiak, autobus linea erregularrik ez dutenak, eskualde buruekin lotzeko diseinatuta dago zerbitzu berria; helburua da gunek horiek linea erregularrekin konektatzea, bertako biztanleek oinarritako zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, kirol instalazioak, merkataritza, eta abar) eskuratu ditzaten.

2.8. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. LEHEN SEKTOREA:

Lehen esan dugun bezala, Arabako BPGd-aren % 32 baino gehiago biltzen da industrian, eta lehenengo sektoreko ekoizpena % 1,6 ingurukoa da, zeinari nekazaritzako elikagaien industriaren % 5 gaineratu beharko geniokeen. Errealitate hori ikusita, pentsa genezake geurea ez dela nekazaritza lurraldea, baina ez da horrela, inondik inora ere.

Arabak nekazaritza arloko ekoizpen ahal handia dauka, laborantza mediterraneoetatik hasi (adibidez, mahastiak) eta hertsiki kontinentalak direnetaraino (zereala, patata, erremolatxa, lekaleak...), abereen azienda dibertsifikatu eta saneatu batekin (esne-behiak, behi-haragia, ardiak...), baso ondare aberats batekin edo gourmet produktuekin (txakolina, gazta, ezitia, olio...) batera. Araban, lurzoruaren % 27,4 nekazaritzako jardueretara bideratuta dago, eta, eskualde batzuetan (esaterako, Arabako Errioxan), ehuneko hori % 60ra iristen da.

Arabian, nekazaritza ekoizpenaren % 75,5 laborantzari dagokio; % 20,7 abeltzaintzari, eta % 1,9 basogintzari. Nekazaritza ekoizpenaren % 62,1 mahastietatik lortzen da, eta zerealek amaierako ekoizpenaren % 19,6 ematen dute.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ekonomia jarduera hau oso errotuta dago lurraldean, eta eskualde batzuetako jarduera nagusia da. 3.000 familia ustiategitan baino gehiagotan garatzen da; hau da, biztanle talde handi bat bizitzeko bitartekoa da.

Arabako lehen sektorean, baina, egiturazko zenbait arazo daude; adibidez, batzuetan produktuak ez dira ordaintzen, eta, besteetan, ez dira ekoizpen kostuak ere estaltzen; Nekazaritza Politika Erkideak ez dio erantzuten gure ekoizpen eta lurralde ereduari; jarduera garatzeko gero eta mugaketa edo baldintza gehiago daude (ingurumenekoak, hirigintzakoak, sanitarioak, animalien ongizatekoak...); biztanleria zahartzen ari da; askotan, ez gara gai izaten eraldaketaren eta merkaturatzearen bidez balio katean sartzeko; zaila da lurra eskuratzea eta gizarteak ez daki asko sektoreari buruz, edo haren gaineko irudi desitxuratua dauka.

Azken urteetan, ordea, aurrerapen handiak egin dira nekazaritza sektorean. Besteak beste, 2016-2019ko aldian sektore honetara sartu diren gazteen kopuruari (103 gazte, aurreko laurtekoko 38 gazteen aurrean), nekazaritza ekologikorako eta landa ingurumenerako diru-laguntzen onuradunen kopuruari (2019an, 427 onuradun eta 2.435.000 €, 2015eko 171 onuradunen eta 715.000 euroen aurrean) edo nekazaritza arloko aseguruaren kontratazioaren gorakadari (2015ean, 40.000 euroko laguntzak eman ziren kontratazioarako, eta, 2019an, 225.000 euro) begiratu besterik ez da egin behar.

Hala ere, hobetzeko tarte handia dago, nekazaritzako ustiategien kostua murriztu eta nekazaritzako sektorearen lehiakortasuna hobetu nahi badira. Nekazaritzako sektorearen kostuen % 31 konponketak eta ustiategiekin zerikusia daukaten gastu orokorrak ordaintzera bideratzen da, eta % 47 haziak, pentsuak edo ongarriak erosteko erabiltzen da; hau da, ekoizpenari zuzenean egotz dakizkiokeen kostuetarako.

Finean, nekazaritza sektoreak arreta berezia jarri behar du hobekuntzan, bai eta errendimenduan irabaziak edukitzen lagundu dezaketen azpiegituren zabalpenean ere.

2.9. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. OGASUNA:

Arabako Ogasunaren zerga bilketak jarraitu du jarduera ekonomikoa gelditzeak eta gero suspertzeak eragindako gorabeherak izaten. 2021eko abuztura arte, Foru Aldundiak % 18,7 gehiago bildu du, aurreko urteko aldi berean baino. Igoera hori 2020an osasun krisiaren ondoriozko konfinamenduak eragin zuen jaitsiera handiari lotuta dago; izan ere, % 10,5 jaitsi zen orduan zerga bilketa. Hala ere,



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

pandemia aurretiko aldietan, hain zuzen 2019an, Foru Aldundiak % 1,9 gainditu zituen aurreko urtean lortutako diru-sarrerak.

2021eko ekitaldian, zuzeneko zergei lotutako bilketak % 15,3 gainditu ditu aurreko urtean bildutakoaren mailak; guztira, 705,54 milioi euro bilduta. Atal honetan, zenbait faktore nabarmendu behar dira.

Lehenik eta behin, norberaren lanagatiko PFEZ atxikipenen portaera ona; izan ere, % 4,3 hazi dira 2020ko zerga bilketarekin alderatuta, eta 553,7 milioi eurora iritsi dira. Joera hori geldialdi ekonomikoak suntsitutako enpleguaren zati bat berreskuratzeko gai izan den lan merkatuaren ondorioa da; horretan lagungarria izan da hainbat ABEE onartzea. Era berean, azpimarratzekoa da ondare irabaziei eta loterietako sariei lotutako atxikipenen igoera, aurreko urtearekin konparatuta. Kuota diferentzial garbiari dagokionez, negatiboa izan da, batez ere, errenta kanpainako itzulketengatik, aurreko urtean baino diru kopuru txikiagoa itzuli bada ere. Azken horiek -35,5 milioi eurokoak izan dira.

Sozietateen gaineko zergaren jokabideari dagokionez, kuota diferentzial garbiak ekitaldi ona izan du, 95,87 milioi euro bilduta; horrek esan nahi du % 22 hazi dela, pasa den ekitaldiaren aldean, enpresen emaitzak poliki-poliki suspertzen ari direlako, ondoz ondoko alarma goeren ostean.

Zeharkako zergapetzeari dagokionez, 612,61 milioi euro bildu dira, hau da, 2021ean baino % 21 gehiago. Joera horren bi faktore dira adierazgarriak. BEZa dela eta, 413,23 milioi euro bildu dira: % 25,1eko igoera 2021. urtearekin konparatuta; bestalde, hidrokarburoen gaineko zergak direla eta, 130,27 milioi euro bildu dira: % 16,9ko igoera, aurreko urtearen aldean.

Emaitza horiek, beraz, Arabako ekonomiaren erresilientzia erakusten dute, pertsona eta salgaien mugikortasun handiagoaren ondorioa; erresilientzia horrek ekonomia pixkanaka-pixkanaka haztea ahalbidetu du. Ekonomia asko moteldu den arren, zerga bilketak nahikoa dinamismo berreskuratu duela dirudi, eta horrek agerian jarri ditu susperraldi orokorraren oinarri sendoak.

Partikularren aurrezkiak eta zergadunen gasturako ahalmena zerga bilketa indarberritzen duten faktoreetako batzuk baino ez dira. Zerga ordainarazpena eta herritarrekiko harremana hobetu izanak ere eginkizun horretan laguntzen du. Zor fiskala kobratzeko batez besteko aldia 7,56 egunekoa da. Adibide modura, 2016aren hasieran, Hileko Itzulketen Erregistroan inskribatutako subjektu pasiboek BEZa itzultzeko batez besteko epea 69,75 egunekoa zen, eta, hiru urte beranduago, ia erdira jaitsi da epe hori (34,5 egunera).



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Sarrera fiskalari buruzko datuek, 2020. urteari dagozkionez, erakusten dute Araban batez beste 6.565 euro bildu direla biztanleko, 2019an baino % 12 gutxiago. Kontuan izan behar da zenbateko horrek, 2019an, gainditu zuela aurreko urtean erregistratutakoa (% 2 gehiago).

Itxitako azken aurrekontu ekitaldiaren arabera (2020), Foru Aldundiak 7.139,6 euroko gastua egiten du biztanleko. Hau da, arabarrek 1,09 euro berreskuratzen dituzte zerbitzu publikoetan, Foru Ogasunari ematen dioten euro bakoitzeko. Gastu proportzio hori 2018an bezalako mailetan mantendu da, zerga bilketaren beharakada handiarekin konparatuz aztertzen bada. Edonola ere, ikusten da interes handia aurrekontu diziplinako helburuak –gastuari eustearekin lotutakoak– betetzeko.

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontua 527,70 milioi eurora iritsi da 2021erako, hau da, 2020ko aurrekontua baino % 1,81 gehiago. Zenbateko horretatik, 256,79 milioi euro toki erakundeak finantzatzera bideratuko dira. Azken urtean, Arabako toki erakundeetara bideratutako finantzaketa % 18,6 hazi da.

Gastu horren zati handi bat hornitzaileei ondasunak eta zerbitzuak erostean gauzatzen da. 2021eko batez besteko ordainketa aldia 18,7 bat egunekoa da.

Aipatutako aurrekontuko defizitak finantzatzeko, zorpetzera jo da. Hala ere, zorpetzeak finantza karga handia sortzen du.

Foru administrazioaren zorra, 2021eko ekitaldiaren amaieran, 545,5 milioi eurokoa izango da (Arabako BPGd-ren % 4,79). Bolumen esanguratsua duten zorpetze zifrez ari gara hizketan (1.520 euro biztanleko), eta horiek amortizatzen joan behar da, etorkizuneko belaunaldiak hipotekatu nahi ez baditugu. Hala ere, funtsen beharrak, pandemiak sorrarazitakoak, zorpetze maila arduratsua eta iraunkorra mantentzea eskatzen du. Zor maila hori bateragarria da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren azken bileran berretsitako Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritakoaren ondorioetarako.

2.10. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. GIZARTE LAGUNTZA:

Arabak 330.209 biztanle ditu (2020. Urtea), eta horietatik 4 biztanletik 3 Gasteiz hiriburuan bizi dira, aurretik azaldu dugunez. Gure lurraldean, biztanleen % 21,1ek dauzkate 65 urte baino gehiago.

Arabako biztanleen piramidea zahartzen ari da, eta bizi itxaropenak gora egin du. Azken 10 urteetan, emakumeen bizi itxaropena ia bi urtetan areagotu da (87,6



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

urte), eta gizonena 81 urtera iritsi da (1,2 urte gehiago). Arabak dauka Euskadiko bizi itxaropen handiena.

Bestalde, amatasunaren batez besteko adinak ere gora egin du Araban, azken hamarkadan: 32 urtetik 32,6 urtera, 2019an. Hala ere, Araban jaiotza tasak izan duen gainbehera izugarriak kezkatzen gaitu benetan. 2020an, aurreko urtean baino 171 haur gutxiago jaio ziren Araban; oso datu kezagarria, % 6,6ko jaitsiera delako, Euskadi osoan % 4,6 dela kontuan hartzen bada. Nolanahi ere, ondoriozta dezakegu Arabako biztanleriaren piramidea formaz aldatzen ari dela, non sabaia zabalduz doan.

Jaiotze tasa txikiagoa izan arren, Arabako biztanleria handituz doa, lehenengoa migrazio saldo positiboekin berdintzen delako. 2019an, Arabako migrazio saldoa positiboa zen (2.696 pertsona); % 85 Estatuaren kanpotik etorri ziren. Araban hartzen diren immigranteen ehunekoa, hala ere, apur bat txikiagoa da, Euskal Autonomia Erkidego osoarekin konparatuta (biztanleriaren % 0,82 Araban, eta % 0,89 EAE osoan).

Biztanleei buruzko adierazle horiek guztiek iradokitzen dutenez, aldaketa handiak egin dira laguntza emateko arretan, familia jakin batzuen egoera ekonomiko-soziala dela eta.

Arabako pobrezia indizeak nabarmen okertu dira COVID-19aren pandemiaren hasierako inpaktuaren ondorioz. 2018-2020 biurtekoan, pobrezia errealeko egoeren ehunekoa % 1 hazi zen (% 6,3tik % 7,3ra); metatze pobrezia, aldiz, erritmo are handiagoan hazi zen (2,1 puntuko igoera). Hala ere, benetako ongizate gabezia dauden Arabako familien kopuruak eten egin du aipatutako joera negatiboa: ongizate gabezia % 1,1 jaitsi da aldi berean, EAE osokoaren oso azpitik (% 3). Arabako familiek beren aurrezkiak baliatuz egin diote aurre koronabirusaren lehenengo astinduari.

Desparekotasun soziala areagotu dela erakusten duten zenbakiak berresteko, mendekotasunagatiko prestazioen onuradunen kopuruaren bilakaera positiboari begiratu diezaiokegu. 2021eko ekainean, diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak 9.032 ziren Araban, 2020ko hilabete berean baino % 7,9 gehiago. Pandemia hasi zenetik, diru sarrerak bermatzeko errentaren jasotzen dutenen kopuruak % 11,5 egin du gora.

Gainera, Araban ematen diren gizarte zerbitzuen kopuruak eta kalitateak abangoardian jarraitzen dute. Laguntza emateko zerbitzuen 678 zentro daude (Euskadiko zentroyen % 19); beraz, biztanleen ehunekoari dagokionez, estaldura dentsitatea handiagoa da Araban, beste bi herrialdeetan baino. Zentro horietatik, Arabak 266 egoitza (duela bost urte baino % 9 gehiago), eguneko 125 zentro eta

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Diagnostikoa.

29



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

prestakuntzarako edo lana bilatzeko 42 zentro hornitzen ditu. Hirugarren sektoreko 84 elkarteekin dagoen lankidetzara oso bizia da.

Bizitegi baliabideei dagokienez, Arabak 4.610 toki eskaintzen ditu, zeinak etengabe areagotzen ari diren. Bada, horien okupazio tasa % 90koa da. Komeni da azpimarratzea zentro horietako langileek 1,6ko arreta ratioa dutela; hots, langile bakoitzak bi pertsonari baino gutxiagori ematen die arreta. Harreran hartzeko eskaintzen diren egoitza plazen % 70,7 adinekoei bideratuta daude; % 11,6 desgaitasunen bat dutenei, % 11,6 bazterketa egoeran daudenei, % 5,1 haur eta gazteei eta gainerako % 1,7 emakumeei. Proporzio hori Euskadikoaren oso antzekoa da.

Etixerik gabekoentzat berariaz, harreraren hartzeko 32 zentro edo pisu daude Araban, Euskadiko guztizkoaren % 11,6, eta, horietan, ostatu hartzeko 635 toki daude, zeinetatik 348 eguneko tokiak diren.

Denboran, gizarte zerbitzuen prestazioaren maila mantendu eta areagotu egin da. 2014tik 2018rako aldirian, gizarte arretaren inguruko enpleguak % 18,3 egin zuen gora, guztizko gastu publiko eta pribatuak bezalaxe. Araban, BPGd-aren % 3,6 bideratzen da gizarte arretara (EAEn, % 3,7).

Arabako gizarte politiketan gastatzeko ahaleginak bere horretan jarraitzen du, eta ahalegin horretan Arabako Foru Aldundiak ere parte hartzen du, modu aktiboan parte hartu ere. Adibidez, erakunde horrek sustatu du etxez etxeko laguntza zerbitzua, eta halaxe egiten jarraituko du etorkizunean ere. 2019an, 26,8 milioi euroren truke esleitu zen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioa, 2020ko abenduaren 31ra arte, 600.000 arreta ordu inguruko lizitazioarekin; hots, aurreko kontratuan baino 45.000 zerbitzu ordu gehiago daude, eta lanorduaren prezioak gora egin du (% 10 eta % 13 artean). 2020an 2.097 pertsona artatu ziren, batez beste 26 ordu pertsonako eta hileko.

2.11. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. HEZKUNTZA ETA KULTURA:

2019an, Arabako hezkuntza mailak gora egin du askotariko ikasketa mailetan. Izan ere, analfabetoen kopuruak % 5,2 egin du behera: gaur egun, 668 pertsona daude hala erroldatuta; beraz, analfabetismoaren tasa % 2,26koa da, Euskadiko batezbestekoa baino txikiagoa (% 3). Beste muturrean, unibertsitateko ikasketak dauzkaten arabarren kopuruak % 4,6 egin du gora: 19 urtetik gorako biztanleen % 17k dauzkate unibertsitateko ikasketak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Hezkuntza mailari oso lotua dago herritarrek eskuragarri dituzten ekipamenduen eta kultur baliabideen maila. Araban, 29 liburutegi daude (EAEko guztizkoaren % 15,8), guztira 92 langile dauzkaten eta 269.000 bisita jaso dituzten 10 museo daude (gutxi gorabehera, batez beste, 25 bisita jasotzen ditu museo bakoitzak egunean), eta 60 artxibo daude, udal artxiboak eta beste erakunde txikiago batzuen artxiboak barne hartuta (EAEkoen % 30).

Kultur euskarriak herritarrekiko hurbiltasunaren arabera dira. Askotan, herritarrek beraiek sortzen dute kultura, eta kultur sorkuntza bultzatzea besterik ez da izaten administrazioaren eginkizuna.

Besteak beste, azpiegituren horniduran eta mota askotako ekitaldien antolaketan islatzen dira askotariko kultur diziplinak. Araban, kultur adierazpen eszeniko multikulturaletarako (musikalak, antzerkia, dantza, eta abar) 18 areto eta jaialdi daude guztira, eta % 14ko pisua dute Euskadiko antolaketa osoan. Horretaz gain, musika ekoizteko 19 agentzia, arte bisualen 3 agentzia eta arte eszenikoen 17 agentzia daude. Estatu mailako eta nazioarteko mailako hamahiru kultur eta kirol ekitaldiri eman zaie babesa: Gasteizko Jazz Jaialdiari, Azkena Rock Festival jaialdiari eta Ironman Vitoria-Gasteiz lasterketari.

Hauek dira, funtsean, Arabako Foru Aldundiaren kultura ekintza egituratzen duten baliabideak: laguntzak eta diru-laguntzak (2018an, 39 udal eta kuadrilla; 55 kultura elkarte, azterketara eta ikerketara bideratutako 7 erakunde; 9 udal, musika prestakuntzarako); Ignacio Aldecoa Kultur Etxea; Gasteizko liburutegi publikoa, zeina 64.800 lagun inguruk bisitatu baitzuten 2018an; 7 museorekiko lankidetzak, Artium Arte Garaikideko Euskal Museoarekikoa barne (ia 90.000 bisitari ditu urtean); 5 museo propioen kudeaketa eta egokitzapena, Amerika aretoarena barne (2018an 134.841 bisitari izan zituen, 2017an baino % 8 gehiago); Arabako Lurralde Historikoko kultura ondareari buruzko zabalkundea egitea 124.000 lagun ingururi; museoen eta arkeologiaren inguruko hezkuntza; ondare arkeologikoa, paleontologikoa eta megalitikoa (Iruña-Veleiako aztarnategia, La Hoyako aztarnategia, tumuluak, Castejon Gaineko Herrixka, Arkaia, eta abar); ondare historiko-arkitektonikoa (198 esku-hartze, birgaitze lanak egiteko); ondasun higigarriak zaharberritzea (150 pieza 2018an); Hirugarren Adinekoen Elkartegiak (2.054 matrikulatu); Arabako Lurralde Historikoko Agiritegia eta interes kulturaleko argitalpenen babesa.

Amaitzeko, Araban euskaraz hitz egiten duten edo euskaraz zerbait dakiten biztanleak guztizko biztanleriaren erdia dira ia: euskararen ulermena jasotzen duen mapak emandako azken datuen arabera, gaur egun, arabarren % 48,2k ulertzen dute gure hizkuntza, eta, gazteenen artean (35 urtetik beherakoen artean), ehuneko hori % 80raino iristen da.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Euskararen erabilera jasotzen duen mapa ez da, ordea, ulermena jasotzen duena bezalakoa: egunerokotasunean euskaraz hitz egiteari dagokionez, biztanleen % 6k etxean hitz egiten du, % 7,8k lagunekin erabiltzen dute, eta % 11,6k lantokian. Hau da, hizkuntza jakin arren, familia edo lagunartean ez da asko erabiltzen. Euskara sustatzeko, euskaraz aritzeko aukerak areagotu behar dira.

2.12. ARABAREN DIAGNOSTIKOA. INGURUMENA ETA HIRIGINTZA:

Arabaren dago Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu natural handiena. Euskadiren bihotza da.

Hiru lurralde historikoetatik, Araba da probintziarik handiena (3.042 km²-ko azalera du) eta despopulatuena. Eskualde biogeografiko atlantikoaren eta mediterranearraren artean dago Araba.

Altitudea 40 metro eskasetik 1.428 metrora artekoa da. Haren azaleraren % 27 naturaguneen figuren pean babestua dago, eta % 68 biotopo babestuen eta abarren pean. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko habitaten eta animalia eta landare espezieen aniztasunik handiena du. RAMSAR nazioarteko hitzarmenak babestutako 5 parke natural eta 4 hezegune ditu. Zuhaitz masen —basoak, sastrakak eta mendiak— azalera Araban dagoen lurzoru guztiaren % 55,7 da.

Era berean, Europako Natura 2000 Sareak babestutako 29 naturagune; animalia ornogabeen 15.000 espezie baino gehiago, 2.000 landare espezie baino gehiago, arrain autoktonoen 13 espezie, anfibioen 15 espezie, narrastien 20 espezie, ugaztunen 60 espezie eta hegaztien 154 espezie baino gehiago daude, eta batera bizi dira bertako landa eremuetan, basoetan, mendietan, landazabaletan, laborantzetan, ibaietan, harkaitzetan, kobazuloetan eta hezeguneetan.

Arabako airearen kalitatearen adierazleari dagokionez, Arabako Lautadan, 2019. urte osoan, urteko egunen % 94,3k aire kalitate ona edo oso ona izan dute; lurraldearen hegoaldean, aldiz, aipatu ratioa % 97,5era iristen da. Orain dela bost urte, % 70ekoa zen.

Gainazaleko uren egoera kimikoa, 2019an, ona da Euskadiko ibai, urtegi eta laku guztien % 55,6an. Ibaiei dagokienez, emaitza orokorren arabera, ur masen % 49,6k egoera ona dute, oro har, eta % 51,9 egoera kimiko onean daude.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Arabako urtegi guztiek uraren kalitate ona dute, oro har; ez da berdin ebaluatutako 8 lakuen kasuan, beren egoera kimikoa ona bada ere. Ebroren arroko uraren kalitate kimikoa neurtzeko estazioen % 5ek bakarrik kalitate eskaseko ibaien % 5 erakusten du. Bestalde, hondakin-uren arazketa Araban 70 estazio onartu baino gehiagotan egiten da (HUA), putzu septikoak eta beste azpiegitura txiki batzuk kontuan hartu gabe.

Bestalde, hiriko hondakinen sorkuntzari begiratuta eta Arabako lurralde historikoko Etxeko Hondakinen Behatokiak emandako datuen arabera, 2019an 409,21 kg hondakin bildu ziren biztanleko eta urteko. Gaikako bilketetan (guztizkoaren % 34), batez ere papera, beira eta ontziak gailentzen dira. Hondakin organikoen bilketa 21,55 kg-ra iristen da biztanleko. Edonola ere, Arabako guztizko bilketa, EAEko batezbestekoa baino askoz ere txikiagoa ez ezik (542 kg biztanleko eta urteko), gainerako lurralde historikoetako baino txikiagoa da. Horren harira, azpimarratzekoa da bio-hondakinen kudeaketarako 1.766 gune daudela lurralde osoan.

Arabako hirigintzaren jasangarritasunari dagokionez, lurraldeko lurzoruaren % 94,8 ez da kalifikagarria. Bizitegirako lurzoria guztizkoaren % 1,84 da, eta ekonomia jardueretara bideratutakoa % 1,55. Inguruabar horien arabera, 108 biztanle daude km²-ko. Konparazio baterako, Euskadin etxebizitzetara bideratzen den lurzoruaren dentsitatea handiagoa da Araban baino (% 2,6), eta biztanleen dentsitatea arabarrenaren hirukoitza da. Arabaren hedadura geografikoa handiena izateak eragiten du hori; izan ere, Araban, 100 biztanleko etxebizitzaren ratioa 62,11koa da, Euskadiko batez bestekoa baino 8 puntu handiagoa.

Azkenik, Arabak ibilbide berdeak ditu, eta horiek, 1.219,62 kilometroan zehar, 1.000 biztanleko 3,71 km-ko dentsitatea dute (Euskadiko 2,84a). Halaber, landaguneak eta naturaguneak lotzen ditu sare jasangarri horrek. 20 ibilbide baino gehiago daude, eta, horiei esker, zuzeneko harremana eduki daiteke Arabako natura eta landa ingurunearekin, eta haren paisaia aberatsekin eta natura eta kultura balioekin goza daiteke.

Azken batean, Araban asko egin da ingurumenaren alde, baina gure gizarteak historikoki izan duen eta duen mugaketa izugarri hau jasaten du oraindik orain: ekosistemak eta biodibertsitatea zaindu eta kontserbatzeak ematen dituen onura publiko handiei ez zaie balio ekonomikorik eman inoiz.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3. EGITEKOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK:

3.1. EGITEKOA:

Arabako etorkizuneko erronka handiei aurre egiteko behar diren politika publiko aktiboen eta jardunbide zehatzen plangintza txukun, ireki eta konprometitu egitea. Besteak beste, honako hauek izan litezke etorkizuneko erronka horiek: ekonomiaren garapen jasangarria, kalitateko enplegu sorkuntza, gazteentzako aukerak, emakumeen eta gizonen berdintasuna, klima aldaketa, lurraldearen egituraketa, kalitateko gizarte zerbitzuak mantentzea, kulturarteko bizikidetzeta eta kolektibo zaurgarrienen gizarte bazterketarako arriskua.

Arabako Foru Aldundiak kudeaketa onaren printzipioekin zintzoa izaten jarraituko du, eta, horri begira, inpartzialtasun irudia, errespetua eta zintzotasuna indartuko ditu, zerbitzu emateko nahiz herritarrak orientatzeko bokazioa sustatuz eta harreman hurbil eta zuzena ezarriz. Izan ere, gardentasuna, datuen irekiera (Open Data) eta kargu politikoan, zuzendarien eta langileen erantzukizun profesionalak bermatzen dute foru administrazio bat lurraldearekin konprometituta egotea.

3.2. IKUSPEGIA:

Kalitateko enplegu betea duen, berrikuntzan buru den, ongizatearen eredu den, zerbitzu publikoen horniduran erreferentea den eta egonkortasun, elkarriketa eta lankidetzeta paradigma daukan Araba nahi dugu. Arabak lurralde aitortu eta estimatua izan nahi du, erdigunean pertsonak eta haien premiak jartzen dituen lurraldea izan nahi ere. Foru politikek herritarrengana hurbiltzeko bideak ezarriko dituzten lurraldea nahi dugu, erantzun azkar, eraginkor eta efizienteak ematea bermatzeko prest dagoen administrazioa daukana. Kudeaketa gardentasunean oinarrituko duen eta informazioa (herritarren bizi kalitatea hobetzeko xedez) ezagutza bihurtuko duen administrazioak gidatuko duen lurraldea nahi dugu.

3.3. BALIOAK:

Elkarriketara eta negoziaketara zabalik, ados jartzeko prestutasuna, zorrozatasuna, etorkizunera begirako konpromisoa eta erantzukizuna. Gardentasuna, integritatea, inpartzialtasuna eta objektibotasuna,

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak.

3
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

eredugarritasuna, eraginkortasuna, berrikuntza, herritarrentzako zerbitzuen prestazioa eta zintzotasuna.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak.

3
5



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa ardatz estrategiko delakoan bidez antolatzen da lehendabizi.

Bada, datozen lau urteetan ardatz estrategiko horietan zentratuko da Foru Aldundiaren eta bere erakunde autonomoen jarduna. Izan ere, foru erakundearen garapen estrategikorako arloak laburbiltzen dituzten oinarritzko zutabeak dira ardatzok.

Ardatz estrategikoek, era berean, plana garatzeko oinarritzko ibilbideak ezartzen dituzte. Horiek plana jarduketa ildo handietan heda dadin agintzen dute, haren funtsezko eginkizunean sakontze aldera. Hortaz, ardatz estrategikoak Arabako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoaren oinarritzko hezurdura dira.

Plan estrategiko hori sortzean, lehenespen, sinpletasun, zorroztasun eta etorkizuneko proiektioaren irizpideak hartu dira kontuan. Beraz, oinarritzko 4 ardatz estrategikotan banatu da plana:

1. ardatza: Arabako ekonomiaren hazkundea eta enplegua.
2. ardatza: Giza garapena eta gizarte kohesioa
3. ardatza: Arabaren lurralde garapena
4. ardatza: Klima aldaketa.

Era berean, ardatz estrategiko bakoitza ondoz ondoko hedapena duten hiru azpimailatan egituratzen da:

- Xede estrategikoak (XE): Gobernuaren Plan Estrategikoak lortu nahi dituen jomugak edo emaitzak dira, eta, horiek erdiesteko, xede estrategikoak egituratzen dituzten ildo eta jarduera zehatzak egin behar dira.
- Ildo estrategikoak (IE): jarduketa multzo egituratua.
- Jarduerak: proiektu zehatzak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.1. 1. ARDATZA: ARABAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA

Arabak erronka garrantzitsuak dauzka etorkizunari begira; adibidez, ekonomiaren garapen jasangarri solidoa eta kalitateko enpleguaren sorkuntza. Erronka orokorrak dira horiek, 2030 Agendan eta Euskadiko 2030 Estrategiaren Garapen Jasangarrirako Helburuen artean jasota baitaude.

1. ardatzaren xedea da Arabako egitura ekonomikoak indartsua eta munduari irekia izaten jarraitzea, eta berrikuntzaren eta langileen kualifikazioaren bidez produktibitatea hobetzearen aldeko apustua egitea.

Berrikuntza, industria, nazioartekotzea eta inbertsioak erakartzea dira Arabako ekonomia garapenaren eta kalitatezko enpleguaren lau zutabeak. Talentua eta pertsonak enpresetan parte hartzea dira Arabako ekonomiaren lehiakortasunaren gakoak. Horregatik, enpresak antolakunde lehiakorragoa bilaka daitezten lagunduko du ardatz honek.

Enplegurako prestakuntza kalitatezko enplegua sustatzeko eta bermatzeko tresna nagusietako bat da, bai eta bazterketa arriskuan dauden giza taldeak gizarteratzeko ere. Aldi berean, enpresek teknologia eta antolaketa aldetik dituzten desafio berrietara moldatzeko funtsezko tresna da.

Aurrekoekin batera, Arabak inbertsioentzat erakargarria den eta gero eta nazioartekotuago, irekiago eta munduarekin lotuago dagoen lurralde gisa duen tokia indartzen saiatuko da ardatz hau.

Halaber, Arabako tokiko merkataritzaren lehiakortasuna sustatzeko eta Araba helmuga turistiko jasangarri eta irisgarri gisa sendotzeko politikak garatuko ditu ardatz honek. Arabako turismo eskaintzaren ardatzak natura, turismo kulturala, enogastronomia eta abar izango dira.

Ardatz honen osagarri, foru erakundearen barneko eta kanpoko (herritarrenganako) kudeaketa lana dago, gizarte osoaren hazkundera lortzeko bide bezala. Zentzu horretan, zintotasun balioak oinarri, gardentasuna eta eraginkortasuna gobernu ekintzaren funtsezko printzipiotzat hartzen dira, eta kargudun publiko guztiei horiek betetzea eskatzen zaie, zorrotz eskatu ere.

Herritarren parte-hartzea eta haiekiko elkarrekintza gobernu onerako eta administrazio onerako eskubidea bermatzen duten ardatzak izan behar dira.

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 1. ardatza

3
7



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

Arabako ekonomiaren hazkundera eta enplegua ardatza hiru **xede estrategiko** hauetan egituratzen da:

- 1.1. HAZKUNDE SENDOA, KALITATEZKO ENPLEGUAREKIN
- 1.2. HAZKUNDERAKO AZPIEGITURA JASANGARRIAK
- 1.3. HAZKUNDE ARDURATSUA ETA GARDENA

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 1.
ardatza

3
8



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1. ARDATZA: ARABAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA. XEDE ESTRATEGIKOEN AZALPENA.

1.1. HAZKUNDE SENDOA, KALITATEZKO ENPLEGUAREKIN:

Hazkunde solido eta egonkorra lortzeko, Arabak izan beharko du berrikuntzaren arloko burua. Berrikuntza politika publiko guztiak inspiratzen dituen printzipio orokorra da, eta, zehazki, besteengandik bereizteko eta aldaketak gauzatzeko lehenetasunezko faktoretzat jotzen da. Lehiakortasuna, nazioartekotzea eta garapen ekonomiko nahiz soziala berrikuntzari oso lotuta daude.

Xede horretan sartzen da, gainera, Arabako industria sarea dibertsifikatzen eta garatzen laguntzea, joera teknologiko berrietan aurrera eginez (fabrikazio gehigarria, adimen artifiziala, robotika eta automatizazioa, IOT, *big data*, *blockchain* eta abar), eta hezkuntza eta prestakuntza sistemak testuinguru berri horren eskakizunetara egokituz.

Era berean, xede horren baitan azpimarratuko da jarduera ekonomiko berriak ezarri eta garatu beharra, eta, horretarako, espiritu ekintzailea eta enpresa negozio berrien, *start up* delakoen eta abarren sorrera endogenoa sustatuko da. Arabako etorkizunerako estrategikoak eta funtsezkoak diren sektoreen (hala nola automobilgintza, biozientziak, energia, aeronautika, nekazaritzako elikagaiak, zibersegurtasuna edo robotika) aldeko apustu irmoa jarriko da abian.

Bestetik, gaur egungo enpresen lehiakortasunari dagokionez, irabaziak kontsolidatuko dira, kudeaketa aurreratuaren, enpresen arteko lankidetzaren, enpresen erantzukizun sozialaren sustapenaren eta abarren bidez.

Aurreko asmo guztiak kalitateko enplegua sortzea dute helburu. Era berean, prestakuntza duten gazteentzako aukera berriak sortu ahalko dira, gure lurraldeak ereiten duen talentua bertan geratzeko eta kanpoko talentua erakartzeko asmoz.

Izan ere, plan honen lehenetasunetako bat da goi mailako prestakuntza duten pertsonak berrikuntza eta ezagutza prozesura erakarri, lotu eta atxikitzeko behar diren baldintzak sustatu, ezarri eta horiei bide ematea. Horretaz gain, Arabako lurralde historikoan bizi diren profesionalek oso prestakuntza maila altuko enplegua edukitzea sustatzen saiatuko da, enpresa arabarretan aritu daitezen.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

3
9



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Kalitateko enpleguak sekulako lotura dauka enpresek behar duten langileen prestakuntzarekin. Lurraldeko prestakuntza eskaintzak arin eta modu eraginkorrean aurrera egin dezan, xede honek enplegurako prestakuntzari babesa ematen jarraituko du, eta, horretarako, tartean diren agenteekin eta prestakuntza zentroekin lankidetzatza instituzional bizia edukitzea bilatuko da.

Turismoaren sektoreari dagokionez, Arabara datozen bisitarien eta haien ostatu gauen kopurua areagotzea da helburua, eta, horretarako, eskualde guztietako baliabideak ezagutarazteko estrategia diseinatuko da kuadrillekin eta udalekin batera. Gure lurraldea helmuga turistikoa jasangarri, irisgarri eta atsegin gisa finkatzeko neurriak hartuko dira.

Hala, honako zortzi ildo estrategiko hauek osatzen dute *Hazkunde sendoa, kalitatezko enpleguarekin* izeneko xedea:

1.1.1. KALITATEZKO ENPLEGUAREN SORKUNTZA INDARTZEA:

Ildo estrategiko honek barruan hartzen ditu enplegua kopuruari dagokionez hobetzeko lanak, eta, horri begira, udalen enplegu anezken lanarekin jarraituko da, laguntza zuzenak emango zaizkio kontratazioari, eta enplegurako prestakuntzari lagunduko zaio. Enpleguaren kalitatea hobetzeari dagokionez, berriz, enpresen baitan postuz igotzeko aukerei bide emango zaie, langile arabarren prestakuntza, birziklapena eta ziurtagiriak hobetuz.

Ildo estrategiko hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 4-Kalitatezko hezkuntza, 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa eta 11-Desberdintasunak murriztea.

1.1.2. PRESTAKUNTZA AURRERATUAREN SUSTAPENA:

Ildo estrategiko honek Arabako unibertsitateko prestakuntzaren bikaintasuna hobetzea du helburu, eta, horretarako, enpresen premietara egokitutako titulazio berriei lagunduko zaie. Halaber, lanbide heziketa duala sustatzeko helburua dauka, zeina enpresek diseinatu eta eskatzen duten.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 4-Kalitatezko hezkuntza eta 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa.

1.1.3. INDUSTRIA BULTZATZEA ETA BIRSORTZEA:

Ildo honek enpresen inbertsio berriak Arabara erakartzeko xedea dauka, negozio berriak eratu daitezen eta daudenak zabaldu. Horri begira, baldintza onak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

eskainiko dira hala industriarako lurzorua inguruan, nola industriak instalatu eta abiatzeko orduan.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 11-Desberdintasunak murriztea.

1.1.4. HEMENGO EKOIZPEN SEKTOREEN BERRIKUNTZAREN ETA TEKNOLOGIAREN ALDEKO APUSTUA:

Ildo estrategiko honek enpresetan berrikuntza sustatzea eta Araban zientzia, teknologia eta lurraldeko sektore estrategikoak bultzatzea dauka helburu, eta, helburu horiek lortze aldera, agente ekonomikoekin eta bestelako erakunde publikoekin lankidetzan aritzeko eginkizunak abiatuko dira. Azken batean, Arabako berrikuntza sistemaren eraginkortasuna berrestea da asmoa.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 17-Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko aliantzak.

1.1.5. EKOSISTEMA INDUSTRIALA:

Ildo estrategiko honetan, kudeaketa hobetuz, enpresen nazioartekotzea sustatuz eta enpresak digitalki egokituz enpresen lehiakortasuna optimizatzeko neurriak jorratzen dira, eta, horretarako, laguntza zuzenak emateko programak zein enpresei zerbitzu emateko zentro aurreratuak sortuko dira.

Ildo estrategiko hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 9- Berrikuntza eta azpiegiturak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 17-Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko aliantzak.

1.1.6. EKINTZAILTZARI LAGUNTZEA. ARABA, LURRALDE EKINTZAILEA:

Ildo estrategiko hau enpresa jarduera endogenoa sortzen eta enpresa arloko bokazioak sustatzen zentratzen da, etorkizunean hazteko motor gisara. Balio erantsi handia eta hazteko ahal egiaztatua duten enpresa proiektu berritzaile berriei diru-laguntzak ematea planteatzen du.

Ildo honek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 17-Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko aliantzak.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

4
1



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1.1.7. ARABAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAREN BERRIKUNTZA ETA GARAPENA:

Ildo estrategiko honek agerian jartzen du Arabako nekazaritzako elikagaien sektorea garrantzitsua dela, ardoa eta beste elikagai batzuk sustatzeko banan-banako tratamendua behar dela eta labore urezatuak eta horiei loturiko azpiegiturak aintzat hartu behar direla.

Ildo estrategiko honek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 2- Goserik ez, 6- Ura eta saneamendua eta 15- Lurreko ekosistemak.

1.1.8. TOKIKO MERKATARITZA, TURISMOA ETA OSTALARITZA SUSTATZEA:

Ildo estrategiko honek arreta berezia ematen dio Araban turismoak bilakaera irmoa izateari, eta, horri begira, tokiko erakargune turistikoak sustatuko dira, Arabako ostalaritza sektorea modu eraginkorren garatu dadin. Era berean, tokiko txikizkako merkataritzari lagundu nahi zaio, Interneten erosteko ohitura berriek dakarten mehatxua dela eta.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 9- Berrikuntza eta azpiegiturak, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak, eta 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak.

1.2. HAZKUNDERAKO AZPIEGITURA JASANGARRIAK:

Xede honek ahalegin berezia egiten du ardatz atlantiko eta pirinotarraren esparruan kokapen estrategikoa izateagatik eta garraiorako komunikazio onak edukitzeagatik ezinbestekoak diren azpiegitura proiektuak (logistikakoak) sustatzeko orduan, eta, horri begira, industriarako kalitateko lurzorua, eskulan kualifikatua eta enpresa laguntzaileak egotea sustatzen du.

Errepideen foru sarea modernizatzea elementu giltzarria da Arabaren orainerako eta etorkizunerako. Hala, xede hau Araba barruko bide azpiegituren garapenean zentratuko da bereziki, lurralde kohesiorako nahiz kanpora iristeko bitartekotzat hartuta hori.

Halaber, Araban inpaktu sozioekonomiko handia izango duten kirol eta kultur azpiegituren proiektu handiak jasotzen dira.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2.
ardatza

4
2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Honako hiru ildo estrategiko hauek osatzen dute *Hazkunderako azpiegitura jasangarriak* izeneko xedea:

1.2.1. ERREPIDEEN FORU SAREA HOBETZEA.

Arabako errepide sarearen gaitasuna, segurtasuna eta prestazioak hobetzeko epe luzerako plangintzekin jarraitzea defendatzen du ildo estrategiko honek. Errepideen Plan Integralaren garapenari heltzen dio. Era berean, gaur egungo sarean mantentze lanak egiteko jardunbideak eta trafikoen ondorio kaltegarriak (zaratarekin, klimarekin eta faunarekin zerikusia dutenak) murrizteko neurri aringarriak jasotzen ditu.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

1.2.2. LURRALDEA LEHENTASUNEZKO NODO LOGISTIKO GISA INDARTZEA:

Araba Espainiako Estatuaren iparraldeko toki estrategiko gisa eta mugaz gaidiko nahiz mesetaranzko komunikazioen ardatz nagusi gisa finkatu nahi du, eta ez bidegurutze gisa duen kokapen geografiko pribilegiatuagatik bakarrik, baita enpresa logistikoentzako dauden balio erantsiko zerbitzu aurreratuengatik ere. Beraz, gaur egungo garraio azpiegiturak eta plataformak, hainbat bitartekoren multimodalitatea eta salgaiak biltegitratzeko nahiz banatzeko zentro handien gaitasuna indartzen jarraituko du.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu honen arabera diseinatu da: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak.

1.2.3. KULTURA ETA KIROL AZPIEGITURA HANDIAK:

Foru Aldundiak kultur eta kirol azpiegituren proiektu handien finantzazioan parte hartzeko duen nahia jasotzen du ildo estrategiko honek. Adibidez, honako proiektu hauek finantzatzen lagundu nahi du: Gasteizko musika auditorium berria eta Principal Antzokiaren modernizazioa. Proiektu horiek Arabako udalekin lankidetzan egikarrituko dira. Arabako Foru Aldundiak, bada, horiek finantzatzen lagunduko du, Gasteizerako eta Arabarako garrantzitsuak direlako gizarteari eta ekonomiari dagokienez.

2030 Agendaren helburu honekin lerrokatuta dago: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

**AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2.
ardatza**

4
3



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1.3. HAZKUNDE ARDURATSUA ETA GARDENA:

Hazkundera iraunkorra izateaz gain arduratsua ere izatea nahi da. Horretarako, kontu publikoak saneatuta eduki behar dira, eta aurrekontu orekarako xedeekiko konpromisoari eutsi behar zaio, iraunkortasun ekonomikoaren berme gisara. Beraz, xede honek defizit publikoaren kontrolaren eta ekonomia berpizteko neurrien arteko konbinazio orekatuaren alde egiten du.

Zentzu horretan, xede honek Foru Ogasunaren berezko gaien erregulazio eraginkor, moderno, egonkor eta gardena garatzen jarraituko du, eta, horretarako, administrazioek finantzazio nahikoa edukitzea bermatzen jarraituko duen baliabideen banaketa eredia finkatuko da.

Zerga iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren kontrako borrokak xede etengabea izan behar du, eta administrazio publiko guztiek partekatu behar dute, baterako plan koordinatuen bidez.

Gardentasuna da xede honen eta jarduera publiko ororen oinarritzeko printzipioa. Gardentasunean, eraginkortasunean eta parte-hartzearen eta emaitzen ebaluazioan oinarrituriko administrazio kultura berriaren zutabeak garatu nahi dira. Herritarren bizi kalitatea hobetuko da, zerbitzu guztietarako sarbidea erraztuz eta bermatuz.

Honako hamar **ildo estrategiko** hauek osatzen dute *Hazkunde arduratsua eta gardena* izeneko xedea:

1.3.1. ERANTZUKIZUNA ETA DEFIZIT PUBLIKOAREN HELBURUA BETETZEA:

Foru Aldundiaren zor publikoa murrizten jarraitzeko neurriak, ekonomiaren, finantzen eta ondarearen kudeaketa arloko hobekuntzak eta kalitateko politika publikoak nahiz zerbitzuak ezarri ahal izateko baliabide nahikoak edukitzea ahalbidetuko duten ekimen erregulatuak berriak konbinatzen ditu ildo estrategiko honek.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 10-Desberdintasunak murriztea eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

1.3.2. FISKALITATE BIDEZKOA ETA DINAMIZATZAILEA

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

4
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Zergapekoen gaur egungo premietara eta eremuko eskakizunetara egokitu nahi da zerga sistema propioa. Lege arloko neurri berriak eta ordainarazpenaren arloko hobekuntzak sartzen dira hemen, zergapekoen kudeaketa integralari arreta berezia jarritz. Ildo honek zerga sistema berdea eta genero berdintasunaren alde guztia ematen duen zerga sistema txertatu ditu berritasun gisa.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 5-Genero berdintasuna, 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 9-Berrikuntza eta azpiegiturak, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

1.3.3. ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA:

Ildo espezifiko honetan, Foru Aldundiak zerga iruzurraren eta zergak saihestearen kontrako borrokari ematen dion lehentasuna erakusten da. Bada, urteko jarduera planen, zergapekoei zuzenduriko sentsibilizazio kanpainen eta Informazioaren Berehalako Horniduraren (IBH) hedapenaren bidez gauzatzen da borroka hori. Prozesu horretan, administrazioen arteko lankidetzak giltzarria izango da.

Ildo estrategiko hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 16- Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

1.3.4. ELKARLANEKO EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO ARINTASUNA. TOKI ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA:

Administrazio publikoek herritarrekiko duten eraginkortasuna hobetzeko neurri espezifikoak jasotzen dira ildo honetan. Lortu nahi den kudeaketa hobetzeari begira, datuak beste administrazio batzuekin eta kanpoko erakundeekin trukatzeko ahalegin handia egingo da.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauen arabera diseinatu da: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

1.3.5. ELKARLANEKO EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO ARINTASUNA. ADMINISTRAZIOKO PROZEDURAK HOBETZEA:

Aurrekoan bezalaxe, kudeaketaren eraginkortasunean irabaziak lortzera dago bideratuta ildo hau, baina, oraingo honetan, hainbat neurri multzokatzen ditu; adibidez, hau: antolaketa sistema berriak eta aplikazio informatiko berriak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

txertatzea, espedienteak, diru-laguntzak eta kontratuak zentralizatuta kudea daitezzen eta herritarrekiko lotura zuzena aktibatu ahal izan dadin.

CCSAk egindako hobekuntza eta zerbitzuek eta web unitateak papereko tramitazioa pixkanaka desagerrarazteko eta administrazio elektronikoa garatzeko xedea dute, eta honako hauek jasotzen dituzte: Arabako Foru Aldundiaren jarduerarako interesgarriak diren web berriak abiaraztea, Foru Aldundiaren askotariko webetan argitaratzen den edukia optimizatzea, edukia berrikustea (kentzeko edota eguneratzeko), webak sortzea eta edukia txertatzea.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

1.3.6. INBERTSIO ARKITEKTONIKOAK:

Foru Aldundiaren titulartasun ofizialeko eraikinak birmoldatzeko inbertsioak egitea proposatzen du, eta, horri begira, denboran luzatuko den exekuzioa eta baliabide ekonomikoak nahiz giza baliabideak behar direla adierazten du.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 11-Hiriak eta komunitate jasangarriak eta 13-Klimaren aldeko ekintza.

1.3.7. GIZA BALIABIDE PROPIOAK GARATZEA:

Arabako Administrazio Publikoa modernizatzeko, bertako giza taldea hobetu behar da, horixe baita administrazio kudeaketaren alderdirik adierazgarriena. Ildo honek, beraz, foru langileekin zerikusia daukaten jarduketak biltzen ditu, funtzionarioen barne mailako egituraketa eguneratzeari, plantilla egonkortzeko EPE berriak deitzeari, adimen desgaitasuna dutenak funtzio publikora iristeko sarbide espezifikoak sortzeari eta AFAn telelanean aritzeko sistematika ezartzeari dagokionez.

Ildo estrategiko hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator neurri batean: 5-Genero berdintasuna, 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

1.3.8. GOBERNU IREKIA:

Plan estrategiko honen xede diren gardentasunean, parte-hartzean eta emaitzen ebaluazioan oinarrituriko kultura berriaren zutabeak garatzeko ildo da hau. Horrez gain, gardentasunari, herritarren partaidetzari eta gobernu egokiari buruzko foru araua garatzea du helburu.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

4
6



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu honekin bat dator: 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

1.3.9. KANPORA BEGIRAKO PROIEKZIOA ETA TALENTUA:

AFAren Plan Estrategikoan, garrantzitsua izango da Araba beste administrazio batzuekin elkarlanean kanpokoari irekitzea, kanpoko talentua erakartzea eta bertako talentuak profesionalki sustatzea.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek lortzen laguntzeko diseinatu da ildo hau: 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak eta 17-Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko aliantzak.

1.3.10 GOBERNANTZA:

Foru Sektore Publikoari buruzko araudi berria onartzea jasotzen du ildo honek, Diputatu Nagusiaren Sailari dagozkion izaera horizontaleko beste jarduera batzuekin batera.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu honekin bat dator: 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1. ARDATZEKO ILDO ESTRATEGIKOEN EDUKIA: ARABAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA.

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoaren 1. ardatzean (*Arabako ekonomiaren hazkundera eta enplegua*) aurreikusten diren 21 ildo estrategikoak honako **jarduketa** zehatz hauetan bereizten dira:

1.1. XEDEA. HAZKUNDE SENDOA, KALITATEZKO ENPLEGUAREKIN:

1.1.1. ILDOA KALITATEZKO ENPLEGUAREN SORKUNTZA INDARTZEA. Sei jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.1.1.1. Kuadriletan eta udalerrietan enplegua sustatzea.
- 1.1.1.2. Kontratazio mugagabea sustatzea, arreta berezia jarriz 45 urtetik gorakoengan.
- 1.1.1.3. Lanbide heziketako ikastetxeetan ekipamenduak hornitzen laguntzea.
- 1.1.1.4. Prestakuntzari eta birziklapenari bide ematea eta profesionaltasun ziurtagiriak lortzen laguntzea.
- 1.1.1.5. Enplegurako prestakuntza sustatzea.
- 1.1.1.6. Enplegu Anezkak indartzea.

1.1.2. ILDOA PRESTAKUNTZA AURRERATUA SUSTATZEA. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.1.2.1. Arabako campusean unibertsitateko titulazio eta graduondoko programa berriak sustatzea.
- 1.1.2.2. Prestakuntza duala garatzea erakunde eskudunekin lankidetzan, Arabako sektore eta jarduera estrategikoei lotutako fakultate eta prestakuntza zentro berriak erakarrit.

1.1.3. ILDOA INDUSTRIA BULTZATZEA ETA BIRSORTZEA. Zortzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.1.3.1. Lurraldea sustatzeko jarduerak garatzea.
- 1.1.3.2. Industrialde lehiakorak garatzea, jarduera ekonomikoen ezarpena errazteko, eta bermatzea proiektu handiak ezartzeko espazio egokiak daudela.
- 1.1.3.3. Alokairuaren ordainketa geroratzea, Arabako Garapen Agentziaren industrialdeetan kokatutako enpresentzat.
- 1.1.3.4. Industria lizentziak lortzeko prozesua arintzeko neurriak.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

4
8



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.1.3.5. Arabako industria azpiegituraren eskaintza eta eskaria aztertzea, jarduteko behar berriak eta erabiltzen ez diren espazioak berreskuratzeko aukerak identifikatzeko.
- 1.1.3.6. Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, lurzoruaren merkatua eraginkorra eta gardena izan dadin errazteko, eta hobetzea industria azpiegituren eskatzaileei emandako zerbitzua.
- 1.1.3.7. Inbertsio proiektuak erakartzeko neurri pertsonalizatuak koordinatzea.
- 1.1.3.8. Inbertsioak erakartzen diharduten beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

1.1.4. ILDOA HEMENGO EKOIZPEN SEKTOREEN BERRIKUNTZAREN ETA TEKNOLOGIAREN ALDE EGITEA. Bederatzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.1.4.1. Alava Innova programa: enpresak, autonomoak eta elkarteak. FEDER funtsak kofinantzatua.
- 1.1.4.2. ETEak merkaturatzen laguntzeko "Álava Innova Digital" programa berria.
- 1.1.4.3. Arabako Parke Teknologikoa sustatzea, zientzialarientzat eta enpresa teknologikoentzat arretagunea izan dadin.
- 1.1.4.4. RIS3 estrategia garatzea 4.0 industrian, energian, biozientzietan eta zibersegurtasunean.
- 1.1.4.5. Abalen programa: proiektuei laguntzea EBBen abalekin.
- 1.1.4.6. Hitzarmena Elkargirekin, Covid-19aren eraginpeko enpresen indarreko maileguren gabeziak finantzatzeko.
- 1.1.4.7. Enpresa bultzatzaileen hornitzaileen polo-parkeak sortzea.
- 1.1.4.8. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planean ekimenak garatzea.
- 1.1.4.9. Innobideak Kudeabide programa garatzea, Eusko Jaurlaritzarekin, SPRIrekin, Euskalit-ekin, BFArekin eta GFArekin elkarlanean.
- 1.1.4.10. Berrikuntza garatzeko hitzarmenak: Tecnalia, CTA, EHU, Egibide, Ikaslan Araba, Innobasque, Merkataritza Ganbera eta Orkestra.
- 1.1.4.11. Agora Araba 4.0.

1.1.5. ILDOA: EKOSISTEMA INDUSTRIALA. Hamasei jarduketa hauetan gauzatzen da:

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

4
9



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.1.5.1. Automobilaren industria indartzea lurraldean, eta mugikortasun jasangarriago baterako trantsizioa babestea.
 - 1.1.5.2. 4.0 industriako teknologien fabrikazio aurreratuko zentroa.
 - 1.1.5.3. Terapia aurreratuen zentroa sortzea, EHUKo Farmazia Fakultatetik eta Tecnaliatik abiatuta, Bioarabarekin lankidetzan.
 - 1.1.5.4. Kultura eta Sormen Industriei laguntzea; APIKArekin lankidetzan.
 - 1.1.5.5. Arabako nodo farmazeutikoa.
 - 1.1.5.6. Robotika eta zibersegurtasun zentro baten alde egitea.
 - 1.1.5.7. Ardoaren ekonomiaren eta kulturaren bikaintasuneko zentro bat sortzea. Arabako Errioxa kokatzeko plana.
 - 1.1.5.8. Energia metatzeko gaietan CIC Energiguneren alde egitea.
 - 1.1.5.9. Lurraldeaz gaindiko industria sustapeneko erakundeetako patronatuetan eta zuzendaritza batzordeetan parte hartzea.
 - 1.1.5.10. Enpresak sustatzeko hitzarmenak.
 - 1.1.5.11. Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoan ekimenak garatzea.
 - 1.1.5.12. Enpresak nazioartekotzeko laguntzak ematea. Nazioartekotzeko leihatila bakarra.
 - 1.1.5.13. Alava Interkoop programa: nazioartekotzen laguntzeko programa berria.
 - 1.1.5.14. Enpresak nazioartekotzeko hitzarmena. Arabako Merkataritza Ganbera.
 - 1.1.5.15. Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoarekin koordinatzea eta lurraldeko jardueretan parte hartzea.
 - 1.1.5.16. Erantzukizun Sozial Korporatiboa: hitzarmenak San Prudentzio Lan Fundazioarekin, Foarserekin eta Ekonomialarien Elkargoarekin.
 - 1.1.5.17. Sailen barruko ekintzak garatzea.
- 1.1.6. ILDOA EKINTZAILETZARI LAGUNTZEA. ARABA, LURRALDE EKINTZAILEA. Zazpi jarduketa hauetan gauzatzen da:
- 1.1.6.1. Ekintzailletza Jarduerari Laguntzeko Planaren erakunde arteko mahaian ekimenak garatzea.
 - 1.1.6.2. Emprender en Alava laguntzen lerroa. FEDER funtsak kofinantzatua.
 - 1.1.6.3. Alava Emprende ekimena.
 - 1.1.6.4. CEIA: funtzionamenduan laguntzea.
 - 1.1.6.5. Erakundeen arteko lankidetzak, enpresak sortzeko: Arabako Basque Funtsa.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

5
0



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.1.6.6. Ekintzailletza babesteko hitzarmenak: Merkataritza-ekintzailletza ganbera, Ajobask eta Ampea.
- 1.1.6.7. Ekintzailletza arloko programa europarrak sustatzea.

1.1.7. ILDOA ARABAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAREN BERRIKUNTZA ETA GARAPENA. Hamazazpi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.1.7.1 Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 aldirako erreforma negoziatzea. Erakundeen arteko lankidetzak.
- 1.1.7.2 Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren baitan Arabako Errioxa Jatorri Deitura sustatzea.
- 1.1.7.3. Errioxa-Sonsierrako ardoaren eta mahastien paisaia gizadiaren ondare izenda dadin laguntzea. Erakundeen arteko lankidetzak.
- 1.1.7.4 Arabako ardo eta sagardoak sustatzea eta merkatuan posizionatzea.
- 1.1.7.5 Arabako mahastizaintza ustiategi, upeltegi txiki eta sagardotegietarako *minimis* laguntzak.
- 1.1.7.6 *Marketplace* plataforma, Arabako Errioxako ardo eta Arabako txakolina saltzeko, ostalaritzaren kudeaketarako eta mahastizaintza eta ardogintzako esperientziak kudeatzeko.
- 1.1.7.7 Arabako Errioxako upeltegi txikien banaketa logistikoari laguntzea.
- 1.1.7.8 Mahasti zaharra mantentzea.
- 1.1.7.9 Mahasti aipagarriak aintzat hartzea eta babestea.
- 1.1.7.10. Mahastizaintzaren erregistroa digitalizatzea.
- 1.1.7.11 Abeltzaintzako ustiategiei eta ardi aziendaren zein ahuntz aziendaren ustiategiei laguntzeko neurriak.
- 1.1.7.12 Erremolatxa eta patata landatzen dituzten ustiategiei laguntzeko neurriak.
- 1.1.7.13 Arabako elikagaiak eta gastronomia sustatzea.
- 1.1.7.14. Arabako sailen ureztatzea hobetzea eta modernizatzea.
- 1.1.7.15 Irrigal Circularaba.
- 1.1.7.16 Irrigaraba Ekolife.
- 1.1.7.17 Labore ureztatu berriak ezartzeko laguntza

1.1.8. ILDOA TOKIKO MERKATARITZA, TURISMOA ETA OSTALARITZA SUSTATZEA. Hamazortzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

5
1



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.1.8.1. Kuadrillen, udalen eta irabazi asmorik gabeko entitateen turismo programak sustatzea.
- 1.1.8.2. Araba turismo irisgarriaren erreferentzia bihurtzea.
- 1.1.8.3. Lurralde osoan ekitaldiak, biltzarrak eta jarduerak egiten laguntzea, koordinatuta.
- 1.1.8.4. Landa eremuetako biztanleak gida turistikoak egiten trebatzeko plana.
- 1.1.8.5. Tokiko produktuak eta dendak sustatzen dituzten proiektuei diru-laguntzak ematea.
- 1.1.8.6. Enpresa eta turismo sustatzaileei laguntzea.
- 1.1.8.7. Erakargune turistikoak aktibatuko dituzten proiektuak babestea.
- 1.1.8.8. Zuzeneko dirulaguntzak toki erakundeentzat, elkarteentzat, irabazteko asmorik gabeko erakundeentzat eta enpresentzat, barne turismoa sustatzeko, pandemiak eragindako jarduera gastuak ordaintzeko eta digitalizazioan eta segurtasunean inbertitzeko.
- 1.1.8.9. Turismo bonua. Lankidetzeta Eusko Jaurlaritzarekin.
- 1.1.8.10 "Araban geratu" komunikazio kanpaina.
- 1.1.8.11 Tokiko merkataritza sustatzeko eta horren inguruko prestakuntza emateko ekintzak.
- 1.1.8.12 Zuzeneko dirulaguntzak ireki ezin izan duten dendentzat, pandemiak eragindako jarduera gastuak ordaintzeko eta digitalizazioan eta segurtasunean inbertitzeko.
- 1.1.8.13 Merkataritza bonua. Lankidetzeta Eusko Jaurlaritzarekin.
- 1.1.8.14. Tokiko merkataritzan teknologia berriak eta kudeaketa programak erabil daitezzen sustatzea.
- 1.1.8.15. Denden diagnostikoetarako alerta sistemak indartzea.
- 1.1.8.16. Denden eskualdatzeari bide emateko ekintzak abiatzea.
- 1.1.8.17. Merkataritza eremuak hobetzea eta sasoiaren araberako merkatuak sustatzea.
- 1.1.8.18. Artisan sektoreko inbertsioari eta salmentari laguntzea.

1.2. XEDEA. HAZKUNDERAKO AZPIEGITURA JASANGARRIAK:

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

5
2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1.2.1. ILDOA. ERREPIDEEN FORU SAREA HOBETZEA. Bederatzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.2.1.1. Errepideen Foru Arau Integrala eguneratzea.
- 1.2.1.2. Errepideen Foru Sarea Mantendu eta Zaintzeko Plana.
- 1.2.1.3. Faunaren Igarobideetako Zarataren kontra Egiteko eta Igarobide horiek Egokitzeko Plana.
- 1.2.1.4. Arabako Errepideen Plan Integrala garatzea.
- 1.2.1.5. Neguko Bidezaintza Plana.
- 1.2.1.6. Istripu ugariko bide zatien urteko azterlanak.
- 1.2.1.7. Trafikoaren eta errepideen segimendua egiteko batzordea (AFA/EJ).
- 1.2.1.8. Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, hitzarmenen eta baterako proiektuen bidez.
- 1.2.1.9. Errepideen foru sareko bideen segurtasuna eta seinaleztapena hobetzea.

1.2.2. ILDOA: LURRALDEA LEHENTASUNEZKO NODO LOGISTIKO GISA INDARTZEA. Hamalau jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.2.2.1. Euskadiko Garapen Logistikorako 2020ko Estrategiaren barruan Araba nodo logistiko gisa sustatzea.
- 1.2.2.2. Gasteizko aireportua bultzatzea. Bidaiarien hegaldi erregularren operadoreak bertan ezar daitezen laguntzea.
- 1.2.2.3. Bidaia agentzia handizkariak charter hegaldiak garatzeko laguntza.
- 1.2.2.4. Gasteizko aireportuko bidaiarien terminala sustatzea eta hegazkinak aparkatzeko plataforma handitzen laguntzea.
- 1.2.2.5. Aireontziak kargatzeko nodoa garatzen laguntzea.
- 1.2.2.6. VIAP-Vitoria Industrial Air Park proiektua garatzea.
- 1.2.2.7. Zona franko bat abia dadin sustatzea.
- 1.2.2.8. Jundiz eta Subillabide lotzeko poligonoaren garapena babestea.
- 1.2.2.9. Proiektu logistikoak erakartzea.
- 1.2.2.10. Nodo logistikoa indartzea, mugikortasuna deskarbonizatzeko jarduerak lagunduz.
- 1.2.2.11. Gasteizko terminal intermodala eraikitzen laguntzea.
- 1.2.2.12. Arasurreko trenbide terminala garatzea.
- 1.2.2.13. Gasteizko garraio zentroa (CTV) sustatzea.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

5
3



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1.2.2.14. Subijana eta Langraiz lehendik dauden lineekin lotuz Bilboko portuarekiko trenbide lotura berria sustatzea.

1.2.3. ILDOA: KULTURA ETA KIROL AZPIEGITURA HANDIAK. Jarduketa batean gauzatzen da:

1.2.3.1. Gasteizko eta Arabako kultura-azpiegiturak

1.3. XEDEA. HAZKUNDE ARDURATSUA ETA GARDENA:

1.3.1. ILDOA ERANTZUKIZUNA ETA DEFIZIT PUBLIKOAREN HELBURUA BETETZEA. Zortzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.1.1 AFAren zor biziaren jasangarritasuna.
- 1.3.1.2 Kudeaketa modu berrietara egokitutako araubide ekonomiko-finantzariarako arau berri bat onestea.
- 1.3.1.3 Europaren finantzazioa jasotzeko jarduketak egitea: FEDER, FSE, MRR eta abar.
- 1.3.1.4 Ekarpenen lege berria.
- 1.3.1.5. Gastuaren eta defizitaren arauak betetzeko moduko aurrekontu kudeaketa egitea.
- 1.3.1.6. Aurrekontu jasangarriak egitea, politika publikoak garatzeko behar adinako zuzkidurarekin.
- 1.3.1.7. Foru ondarearen kudeaketa eta erabilera optimizatzea.
- 1.3.1.8. Ekonomia eta finantzak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema berria ezartzea.

1.3.2. ILDOA: FISKALITATE BIDEZKOA ETA DINAMIZATZAILEA Hamar jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.2.1. Mikroenpresetara, ETE-etara eta start up delakoetara egokitutako zerga sistema.
- 1.3.2.2 Geroratzekak, zatikatzeak eta ezohiko kenkariak, COVID-19a dela eta.
- 1.3.2.3 PFEZren gaur egungo araudia ebaluatu eta berrikustea; bereziki, etxebizitzari eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei dagokienez.
- 1.3.2.4. Sozietateen gaineko zergaren araudian egindako azken aldaketak baloratzea.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

5
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.3.2.5. Zerga sistema berdea. Sailen arteko lankidetzak.
- 1.3.2.6. Zergadunei zerga betebeharrak betetzen laguntzea.
- 1.3.2.7. Foru Ogasuna eraldatzea, zergadunekiko harremanak hobetzeko. Jakinarazpen elektronikoa.
- 1.3.2.8. Zerga sistemari buruzko azterlanak egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunari begira.
- 1.3.2.9. Estatu mailako aldaketak foru arauetara egokitzea, Ekonomia Itunaren arabera.
- 1.3.2.10. Zergadunaren kudeaketa informatiko integrala.

1.3.3. ILDOA: ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.3.1. Zerga iruzurraren aurka jarduteko urteko plan espezifikoak egitea.
- 1.3.3.2. Informazioaren Berehalako Horniduraren (IBH) eta Ticket BAI proiektuaren erabilera areagotu eta hedatzea.
- 1.3.3.3. Gizartea sentsibilizatzeko kanpainak.

1.3.4. ILDOA: ELKARLANEKO EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO ARINTASUNA. TOKI ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.4.1 Arabako toki erakundeentzako ARABA DIGITAL proiektua garatzea.
- 1.3.4.2 Zerbitzu digitaletarako arreta gune bakarra sortzea.

1.3.5 ILDOA: ELKARLANEKO EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO ARINTASUNA. ADMINISTRAZIOKO PROZEDURAK HOBETZEA. Zazpi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.5.1 Arabako Kalkulu Gunearen jarduketak.
- 1.3.5.2 e-Administrazioaren plataforma hornitu, garatu eta araudira egokitzea.
- 1.3.5.3 Gastuak murriztea: foru erosketak zentrala (Cecofal) bultzatzea.
- 1.3.5.4 Araba Digitala plana.
- 1.3.5.5 Administrazioa sinpletzea: prozedura eta zerbitzuen katalogoa.
- 1.3.5.6 Erregai jasangarrien kontrataziorako eta erosketak publikorako klausulak berridaztea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.3.5.7 Energia Eraginkortasunari buruzko Legea AFaren baliabideei eta eraikinei aplikatzea.

1.3.6 ILDOA: ARKITEKTURA ARLOKO INBERTSIOAK. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.6.1. Inbertsio programa abiatzea Laudioko Lamuza parkean.
1.3.6.2. AFaren bulego berri bat irekitzea Laudion.

1.3.7. ILDOA: GIZA BALIABIDE PROPIOAK GARATZEA. Bederatzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.7.1. Lanpostuen zerrenda berria egin eta funtzionarioen egitura eguneratzea.
1.3.7.2. Foru Aldundiko plantilla egonkortzeko EPE-en deialdiak egitea.
1.3.7.3. EPE espezifiko berri baten deialdia egitea adimen desgaitasuna dutenentzat.
1.3.7.4. AFAn telelana modu formalean ezartzea.
1.3.7.5. Berdintasun arloko barne prestakuntza ematea, gobernamendu berriaren irizpideen arabera.
1.3.7.6. Giza baliabideak kudeatzeko aplikazio informatikoak eguneratu eta ezartzea.
1.3.7.7. Arabako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plana ezarri eta garatzea.
1.3.7.8. Lan ingurunearen baldintzak hobetzea.
1.3.7.9. Barneko Berdintasunerako Plana

1.3.8. ILDOA: GOBERNU IREKIA. Zortzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.8.1. Gardentasunari, herritarren partaidetzari eta gobernu egokiari buruzko foru araua garatzea.
1.3.8.2. AFaren Gobernu Irekirako Estrategia garatzea.
1.3.8.3. DatAraba proiektua: datu irekiak
1.3.8.4. Prozesu parte-hartzailearekin eta berrikuntzarekin jarraitzea.
1.3.8.5. Gardentasuna ebaluatzeko erakundeek egindako kanpo ebaluazioen baldintzak betetzeko jarduketak.
1.3.8.6. Foru aldundiaren web orriak koordinatu, ahalik eta hoberen garatu eta eguneratzeko jarduketak.
1.3.8.7. Araba Helburu parte hartzeko plan berria garatzea.
1.3.8.8. Parte hartzeko prozesuak optimizatzea, partaidetza bidezko aurrekontuen ildo bezalako ildo berrien bidez.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 2. ardatza

5
6



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

1.3.9. KANPORA BEGIRAKO PROIEKZIOA ETA TALENTUA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.9.1. Araba Talent proiektua.
- 1.3.9.2. Arabaren kanpora begirako proiektzioa.
- 1.3.9.3 Arabako Berrikuntza Irekiko Zentroa.
- 1.3.9.4 Araba Sport Capital proiektua. Startup aurreratuak sortzea.
- 1.3.9.5 Babesletzak.

1.3.10 ILDOA: GOBERNANTZA. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 1.3.10.1 Arabako sektore publikoaren arau eguneratua onartzea.
- 1.3.10.2 Foru eraikinetako segurtasuna eta zaintza ezartzea.
- 1.3.10.3 Sailen barruko ekintzak garatzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.2. 2. ARDATZA: GIZA GARAPENA ETA GIZARTE KOHESIOA

2. ardatzaren xedea da arabar guztien giza garapena bermatzea, bereizketarik gabe, Araban gizarte kohesio handiagoa izateko azken helburua lortu ahal izateari begira. Gizarte kohesioa lortzeko beharrezkoa da kalitatezko gizarte politikak ezartzea, kolektibo ahul edo behartsuenen oraingo beharrezanetara moldatuak.

Araba erreferentzia puntua da gizarte zerbitzuen arloan. Gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa gizartetik baztertzeko arriskuan dauden giza talde guztiengana hedatu behar da. Hala ere, bazterketa egoera berrien ondorioz, handitu egiten dira laguntza eskaria nahiz ematen diren zerbitzuen kalitatearen eskakizuna.

Horren ondorioz, ardatz hau erronka bat da Arabako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuentzat, eta, erronka horri begira, beharrezko baliabideak plangintza egokiarekin jarri ez ezik, indartu ere egingo da eremu honetan diharduten hirugarren sektoreko entitateekiko lankidetzatza.

Aurrerapen handiak lortu badira ere, pertsona guztientzako aukera berdintasuna ziurtatzea erronka bat da gure lurraldearentzat. Ildo horretan, ardatz honen ahaleginak lurralde solidario eta inklusibo baterako lan egitean zentratuko dira. Berdintasunik gabe, ez dago gizarte kohesiorik; hortaz, 2. ardatzak berdintasuna planteatzen du bere garapenaren erdigune eta hazkunderako eta etorkizun oparo baterako eragingarri moduan.

Arabako gizartearen aurrerakuntza elkarbizitza, berdintasun eta aniztasun printzipio orokorren errespetuaz planteatu behar da.

Ardatz honen asmoa da Arabako gizartea inklusiboagoa izatea, kultura balioak (bai bertakoak, bai kanpokoak) sustatu eta errespetatzea, etorkinen erabateko integrazioa bultzatzea, euskararen zabalkundea eta erabilera sustatzea, gazteriarri laguntzea (etorkizunerako gotorlekutzat hartuta) eta gizarte osasuntsuago eta kirolzaleagoa ziurtatzea. Araban, elkarbizitza hobetzeko, aberastasuna sortzeko eta bizi kalitatea hobetzeko eragingarritzat jo behar da kultura.

Giza garapena eta gizarte kohesioa izeneko ardatzak honako hiru **xede estrategiko** hauek dauzka:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

- 2.1. ARABA, ERREFERENTEA PERTSONA ZAURGARRIENEN ARRETAN.
- 2.2. ARABA, ERREFERENTEA BERDINTASUNEAN ETA GIZA
ESKUBIDEETAN:
- 2.3. ARABAKO KULTURAREN GARAPENA ETA DEFENTSA.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2. ARDATZA: GIZA GARAPENA ETA GIZARTE KOHESIOA XEDE ESTRATEGIKOEN AZALPENA

2.1. ARABA, ERREFERENTEA PERTSONA ZAURGARRIENEN ARRETAN:

Araba erreferente ezaguna da jada pertsona zaugarrienen arretan; hots, mendeko pertsona adinduen, desgaitasuna dutenen, arazoak dauzkaten adingabeen, indarkeria matxistaren biktimen eta abarren arretan.

Alabaina, kolektibo zaugarriek gizarte bazterketan egoteko duten arriskuak dakarren erronka oso bizirik dago oraindik orain, kolektibo horiei arreta emateko zerbitzuen eskariak gora egiten baitu.

Bizi kalitatea pixkanaka areagotzearen, mundu mailako eta tokiko ekonomiaren mantsozte joeraren eta egiturazko desparekotasun sozioekonomikoen ondoriozko gaur egungo testuingurua dela eta, kopuru eta kalitate berean (edo hobean) eduki behar dira askotariko arreta zerbitzuak.

Bada, prestazioen eta gizarte arretaren sistema modernizatu nahi du lehenengo xede honek, zaugarritasun egoerak hautemateko orduan azkarrago joka dezan eta horrelako egoera guzti-guztiei arreta egokia eman dakien, sistemak denboran irautea bermatze aldera.

Araba, erreferentea pertsona zaugarrienen arretan izeneko xedeak honako **ildo estrategiko** hauek dauzka:

2.1.1. MENDEKO PERTSONA ADINDUENTZAKO ARRETA.

Mendeko pertsona adinduek gero eta laguntza gehiago eskatzen dute, eta, beraz, ildo estrategiko honek hazkunde horri aurre egingo dio, gizarte zerbitzuen eraginkortasuna eta azkartasuna hobetzeari begirako nahiz adineko arabarrak ohiko bizilekuan ahalik eta denbora gehien bizitzen jarraitu ahal izatea errazteko politiken bidez.

Zentzu horretan, bakarrik edo beste adindu batzuekin batera bizi diren 80 urtetik gorakoei laguntzen saiatuko da, premiaren arabera intentsitate bat ala beste izan dezaketen arreta eta laguntza programen bidez.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Horretarako, gaur egungo bizitegi tokiak hobetu eta areagotzeaz gain, eta loturarik gabeko asistentziari bide emate aldera, gure nagusiei laguntzeko indarrean dauden programak indartuko ditu; mendekotasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzuak indartuko ditu (izapideen epea murrizteko), eta hobekuntzak txertatzeko alderdi giltzarriak aztertuko ditu (hala nola, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ordu kopurua mendekotasun graduaren arabera areagotzeko gaia edo mendekoen kalitatea, arreta eta autonomia hobetzeko berrikuntza).

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 10-Desberdintasunak murriztea eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.1.2. DESGAITASUN FISIKOA EDO PSIKIKOA DUTENENTZAKO ARRETA.

Ildo estrategiko honek desgaitasuna duten pertsonen haien premien araberako arreta eta laguntza emateko programei heltzen die.

Zentzu horretan, haurrengan desgaitasuna goiz atzemateko programak eta zahartzaroaren ondoriozko desgaitasuna dutenentzako egoitza plazak ituntzeko proiektu pilotua nabarmentzen dira, adin espektro zabala estaltzen baitu.

Halaber, pertsona horiei emantzipatzeko urratsa ematen dutenean laguntzeko programak indartuko ditu.

Azkenik, ildo honek ez du ahazten bizitegirako azpiegituretan eta eguneko zentro espezializatuetan (egonaldi luzeetarako nahiz arnas hartzeko zentroetan) inbertsio berriak egin behar direla.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 1-Pobrezia desagerraraztea, 10-Desberdintasunak murriztea eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.1.3. ZAINZAILLEAK:

Gizarte arretaren sistema modernizatzeko erronka ezin daiteke gauzatu sistemak duen kapital nagusiaren laguntzarik gabe; hau da, gizakirik gabe.

Xede honek aurrekoa osatzen du, zainketak behar dituzten pertsonak ez ezik, zainzaileak ere aintzat hartu behar baitira.

Arreta berezia ematen die profesionalak izan gabe mendekoak zaintzen dituzten zainzaileei, arnas hartzeko zerbitzuak areagotuta. Eta, era berean, kalitateko

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 2. ardatza

6
1



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

enplegua sortzeko aukera iturria denez, zaintzaile profesionalen prestakuntza sustatzen du.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 8- Enplegua eta hazkunde ekonomikoa eta 9- Berrikuntza eta azpiegiturak.

2.1.4. ADINGABEENTZAKO ARRETA:

Ildo honetan, babesgabetasun egoeran duden adingabeei eta familia inguruneke arazoek biktimei ematen zaien arreta hobetu nahi da, oro har, pertsona horien jatorria edo egoera soziala edozein izanda ere.

Kolektibo horri arreta emateko programak izango dira ildo honen ardatz egituratzailea, eta portaera zailtasun larriak dauzkaten adingabeei arreta emateko zentroak berregituratuta eta gaur egungo instalazioekin zerikusia daukaten azpiegitura hobekuntzak eginda osatuko da ildoak.

Zehazki, arretan egingo da aurrera, eta, horri begira, hezkuntza programak hobetuko dira; babesgabetasun egoeran dauden adingabeei arreta emateko oinarrizko zentroak berregituratuko dira (Arabako Foru Aldundiak eskaturiko ikerketako ondorioekin bat), eta urratsak emango dira esku-hartze psikosozial eta terapeutikoan, babesgabetasun egoera larrian dauden eta tratu txarrak, abandonua, esplotazioa nahiz sexu abusua jasateko arriskuan dauden adingabeak dauzkaten familiei dagokienez.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator neurri batean: 10-Desberdintasunak murriztea eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.1.5. GENERO INDARKERIA DEUSEZTATZEA:

Indarkeria matxista da emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunaren adierazpenik latzena, eta, hortaz, ezinbestekoa da benetako berdintasun eraginkorrerantz aurrera egiteko politika publikoak edukitzea.

Era berean, indarkeria matxista gizarteko arazo nagusietako bat da, eta gizarte osoa inplikatu behar da desager dadin (erakunde publikoak, enpresak, hezkuntza sistema, familiak, elkarten mugimendua eta abar). Ildo estrategiko hau oso konprometituta dago bai aipatu xedearekin, bai bidegabekeria horren emakume biktimei ematen zaien arretarekin.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 2. ardatza

6
2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Bada, tratu txarren biktimak modu integralean hartzeko zerbitzua nahiz indarkeria matxistaren biktimei arreta osoa emateko programak sustatzeko diseinatu da ildo hau, eta, zehazki, genero indarkeriaren biktimei laguntzeko egiturak hornitzen eta biktimei arreta emateko egonaldi ertaineko egoitza plaza edo emergentziatzeko pisu gehiago eskaintzen egingo du ahalegina.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 5-Genero berdintasuna eta 10-Desberdintasunak murriztea.

2.1.6. KOLEKTIBO BEHARTSUENTZAKO ARRETA:

Ildo honek aurreko kolektiboetakoak ez diren baina babesgabetasun egoeran dauden pertsonentzako arretan biltzen ditu indarrak (pobrezia egoerak, preso ohiak eta abar).

Mendekotasunagatiko prestazio ekonomikoen zuzkiduran, tutoretzetarako laguntzetan, hirugarren sektoreko hainbat kolektiborekiko hitzarmenetan eta abarretan kontzentratzen du babesa.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 1-Pobrezia desagerraraztea eta 10-Desberdintasunak murriztea.

2.1.7. GIZARTE POLITIKEI LAGUNTZEKO ZERBITZU OROKORRAK:

Ildo estrategiko honek Gizarte Politiken Saila eta bere mendeko zerbitzu orokorrak barne mailan berrantolatzeko orduan egingo du aurrera, jarduketak ahalik eta modu eraginkor eta efizienteenean ezartzeko xedez.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen etorkizuneko EPE-ez gain, Gizarte Politiken Sailaren nahiz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta kudeaketa modernizatzeko plan bat egingo da.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 5-Osasuna eta ongizatea, 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa, 10-Desberdintasunak murriztea eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2.2. ARABA, ERREFERENTEA BERDINTASUNEAN ETA GIZA ESKUBIDEETAN:

Arabako Foru Aldundiaren politiketan genero ikuspegia pixkanaka sartuta, ahalduntzeari edo generoaren zeharkakotasunari begirako apustua egin da.

Bada, aurreko legegintzaldian hasitako bidean jarraitu nahi du xede honek, berdintasun politikak indartuz. Bizitzako eremu guztietan benetako berdintasun eraginkorrean aurrera egiteko politikak bultzatuko dira (lana eta soldatak, familiako ardurak, erakundeetan eta enpresetan ardura maila handiko postuetara iristea, kirola eta abar).

Era berean, pertsona guztien giza eskubideak errespetatzea esku-hartze politiko ororen oinarritzko printzipioa izan behar da, bai eta erakundeen jardueraren zeharkako ardatza izan ere.

Giza eskubideen ikuspuntutik, askotariko aniztasunekin (migrazioak, genero aniztasuna, sexu joera, etnia, erlijioa...) lotura duten pertsonak maiz jasaten duten diskriminazioari heltzeko asmoa dauka ardatz honek.

Foru Aldundiaren lankidetzeta politika plangintza esparru orokor batean finkatu nahi da, eta horrelako esparrua da, hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Lankidetzeta Politiken Esparru Agiria (ESKUTIK). Ordenatik eta zehaztasunetik abiatuta Arabako bizikidetzeta eta kulturartekotasuna sustatzea da helburua.

Honako lau **ildo estrategiko** hauek osatzen dute *Araba, erreferentea berdintasunean eta giza eskubideetan* izeneko xedea:

2.2.1. GENERO BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEA.

Arabako Foru Aldundiaren barruan eta Arabako gizarte osoan oro har genero berdintasuna zeharkakoa izatea lortzeko tresna da ildo hau.

Lehenengo neurriari dagokionez, berdintasunerako barne mailako plana sustatzea eta Foru Aldundiaren jarduera publiko eta administrazio guztian genero ikuspegia txertatzea jasotzen du 2.2.1 ildoak. Helburua errotzeko, berdintasun arloko foru arau espezifiko bat onestea jasotzen da.

Arabako gizartean berdintasuna hedatzeko, emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo eta sozialaren aldeko politikak ezarri behar dira, tresna propioetara joz (adibidez, Laia Eskola - Arabako Jabekuntza Eskola). Halaber, sexu

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 2.
ardatza

6
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

aniztasunaren eta genero identitateen arloan sentsibilizatzeko jarduerak egingo dira.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 5-Genero berdintasuna eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

2.2.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA:

Ildo honek garapenerako lankidetzaren eremuko askotariko agente arabarrek hitz egiteko eta parte hartzeko gune irekiak sortu eta indartuko ditu. Ingurune dinamiko, malgu eta irekiak sortu nahi ditu, kanpokoari laguntzeko benetako premiak zein diren adosteko.

Konfiantzaren, parte-hartzearen eta eraikuntza kolektiboaren printzipioen pean diseinatu da, aniztasunarekiko erabateko errespetuz, gardentasunez eta kontu emanez. Gainera, garapenerako, lankidetzarako eta elkartasunerako politiken eta gainerako politika publikoen artean koherentzia lortzen saiatuko da.

Eskutik agiriaren barruan, ildo honek Eskutik Mundura eta Eskualdetik Mundura ekimenak hobetzen jarraituko du. Era berean, Arabako Larrialdietarako Funtsa indartuko du, eta, jarduteko eremu honetan, lankidetzaren instituzional bizia edukiko du gainerako euskal erakundeekin.

Hala ere, gizarteari irekitako lankidetzaren partekatu eta parte-hartzailea lortzeko foru politika bat sustatuko du, jarduteko esparru ireki baten barruan. Bada, esparru hori 2030 Agendan jasotzen diren nazioarteko erronka eta esparruetara nahiz NBERen batzar nagusiak onetsitako Garapen Jasangarrirako Helburuetara egokituta egongo da.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 10- Desberdintasunak murriztea, 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak eta 17-Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko aliantzak.

2.2.3. KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA:

Arabako biztanle guztien benetako berdintasun eraginkorra lortzeko, xenofobiaren kontra borrokatu behar da, eta Arabako lurralde historiko guztian kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko planak prestatu behar dira.

Ildo estrategiko honen barruan 3 ekintza foku handi nabarmentzen dira: 1.- Zurrumurruren Aurkako Sarearekiko lankidetzarekin jarraitzea, zurrumuru xenofoborik gabeko bizikidetzarako estrategia lortze aldera; 2.- Erakunde publiko eta pribatuen ekimeneko proiektuei laguntza irmoa ematea, diru-laguntzen

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 2. ardatza

6
5



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

deialdien bidez, eta 3.- Arabako migrazio fenomenoari buruzko diagnostikoaren ondorioetatik abiatutako jarduketa plana egitea (diagnostikoa egiten ari dira).

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 10- Desberdintasunak murriztea eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

2.2.4. AGENDA 2030, GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEA:

Ildo honek AFaren Gobernu Irekirako Estrategia eta Garapen Jasangarrirako Arabako Aliantza 2030 sendotzeko ekintzak —guztiak aurreko legegintzaldian onartuak— jasotzen ditu. Gainera, ildo horrek giza eskubideen defentsari eta Arabako memoria historikoaren berreskurapenari helduko die.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak eta 17-Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko aliantzak.

2.3. ARABAKO KULTURAREN GARAPENA ETA DEFENTSA:

Araba kultur adierazpen mota oro babesten eta garatzen duen, herritar guztiak kulturara iristeko bideak ezartzen dituen, kirola eta bizimodu osasuntsua arabarren ohitura osasungarrien eta aisialdiaren elementu nagusi gisa finkatzen dituen eta gure gazteek haien gaitasun, ahalmen eta bizi proiektua garatzea ahalbidetzen duen lurralde gisa finkatzeko apustu argia planteatzen du xede honek.

Gizarte arabarrak kultura moderno, indartsu, inklusibo, plural eta hurbila eskatzen du. Era berean, kirol jardueraren aldeko filosofia sustatzea eskatzen du, behar bezalako garapen fisiko eta emozionala izan dezagun eta bizi ohitura osasungarriak nahiz balioak (errespetua, ahalegina eta gainditze pertsonala) ezar daitezzen. Bestetik, gazteek prestakuntzan, emantzipazioan, enpleguan eta abarretan aukerak edukitzea eskatzen du.

Bada, xede honek eskaera horiei guztiei erantzuteko asmoa dauka; beti ere, 2. ardatz hau gidatzen duten oinarrizko lau printzipioak errespetatuta: generoko ikuspegia; NBEren 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak; erakundeen zintotasuna eta koordinazioa; elkarrizketa, adostasuna eta parte-hartzea.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 2. ardatza

6
6



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Honako sei **ildo estrategiko** hauek osatzen dute *Arabako kulturaren garapena eta defentsa* izeneko xedea:

2.3.1. KULTUR LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN:

Erakundeen kultur arloko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea da ildo honen helburua.

Halaber, erakundeek AFAk parte hartzen duen patronatuekin dituen konpromisoei eustearekin eta konpromiso horiek areagotzearekin dauka zerikusia, Arabako benetako prestakuntza ondarea baitira patronatuok.

Ildo honek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 4-Kalitatezko hezkuntza eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.3.2. KULTUR DIZIPLINAK GARATZEA LURRALDE OSOAN:

Ildo hau da kultur ekintzaren benetako erdigunea. Bada, kultur arloko diru-laguntzen eta lehia araubideko laguntzen sistema indartzea, kultur sektoreko prestakuntza eta aholkularitza sustatzea, Arabako Kultura Plan Estrategikoaren ondoriozko programak babestea eta guk nahiz kanpokoek ekoiztutako kulturaren sorkuntza eta hedapena areagotzea du xede.

Azpiegiturei begiratuta, Kultur Etxea indartuko du, belaunaldi ezberdinetako pertsonak askotariko kultur ekintzen inguruan elkartzeko edota ezagutza garatzeko topalekua izan dadin, funtsak, erakusketak, aurkezpen kulturalak eta abar sustatuz.

Era berean, 2.3.2. ildoak museoen foru sarea indartuko du, Museoen Foru Sarearen 2018-2021 aldirako Ekintza Planarekin bat etorritik, eta, horri begira, gaur egungo gizartearen errealitateari egokituko zaizkio zerbitzuak, bildumen kudeaketa eta prebentziozko kontserbazioa hobetuko dira, langileen eginkizuna indartuko da, sarearen marka irudia sustatuko da, eta heziketa eskaintza indartuko da. Eta kudeaketa prozedurak eta banakako konpromisoak jasoko dituen zerbitzu karta idatziz sistematizatuko da hori guztia.

Bestalde, Artxiboen 2020-2023 aldirako Ekintza Plana prestatuko da, gure historiaren eta ondarearen gaineko ezagutza etorkizunean bermatze aldera. Arabako agiritegi publikoak zerbitzu eraginkorra emateko oinarriak finkatuko dira bertan.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 2. ardatza

6
7



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Azkenik, esan behar dugu ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat datorrela: 4-Kalitatezko hezkuntza eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.3.3. JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA SUSTATZEA:

Ildo honetan, kirola sustatzeko jarduketak jasotzen dira, berdintasunaren, ahaleginaren eta taldeko lanaren inguruko balioak helarazteko eta tolerantziatzeko nahiz errespetuzko jarrerak barneratzeko tresna eraginkortzat hartuta hori, oinarritzko hiru eremuri dagokienez (eskola kirola, federazioekiko harremana eta herri kirolak); beti ere, jarduera fisikoa arabar guztiengan sustatzeko asmoz.

Jarduketa horiei ekiteko, kirolak Araban duen egoera zein den jakiteko azterketa xehea egin beharko da, eta kirolaren arloko agenteekin (federazioak, klubak, ikasleen gurasoen elkarteak eta hezkuntza zentroak) eta beste administrazio batzuekin koordinatuta zehaztu eta garatuko diren kirol politikak eta programak sortuko dira azterlan horren ondorioetatik abiatuta.

Era berean, eskola kirolari buruzko foru arau bat egiteko aukera jasotzen du ildo honek, eta, horrekin, besteak beste, kirolaren lan ikuskatzailea erregulatzeaz gain, genero ikuspegia sartuko da eskola kirolera.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 3-Osasuna eta ongizatea eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.3.4. KULTUR ONDAREA BERRESKURATZEA ETA BALIOA EMATEA:

Ildo estrategiko honek, arkeologia eta paleontologia ondarearen kontserbazioari ez ezik, arkitekturaren eta higigarrien ondare historikoaren babesari helduko dio, gure eta besteren esku-hartzeak sustatuz.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 4-Kalitatezko hezkuntza eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.3.5. GAZTEEI LAGUNTZEA:

Ildo honen helburua da Gazteriaren Foru Erakundearen funtzionamenduari, gazteriaren arloko hainbat programa espezifikori eta Gazteriaren Lurralde Kontseiluari bultzada irmoa ematea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Berritasun gisara, Gazteriaren Foru Erakundearen Komunikazio Plana egingo da, zerbitzuari ikusgarritasun handiagoa emateko xedez.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu honi lotuta dago: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

2.3.6. EUSKARA LURRALDE OSOAN SUSTATZEA:

Euskaren 2018-2021 aldirako Plan Estrategikoa Araban hedatzeko jarduketak jasotzen dira ildo espezifiko honetan. Bada, lurraldean euskaraz bizi ahal izatea bermatzeko baldintza egokiak sortzen jarraitzea da plan honen xedea.

Beraz, euskara Arabako eragile sektorialekin harremanak izateko bitarteko normalizatu gisa erabil dadin bultzatuko du ildo honek. Horretarako, euskara erabiltzeko espazioak sustatuko ditugu, hainbat gizarte mailatan (hedabideak, eremu sozioekonomikoa, aisialdiko jarduerak, kirola, eta abar) eta maila geografiko guztietan (kuadrillentzako laguntza).

Garapen Jasangarrirako Helburu hau betetzen laguntzen du: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2. ARDATZEKO ILDO ESTRATEGIKOEN EDUKIA: GIZA GARAPENA ETA GIZARTE KOHESIOA

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoaren 2. ardatzean (Giza garapena eta gizarte kohesioa) aurreikusten diren hamazazpi ildo estrategikoak honako jarduketa zehatz hauetan bereizten dira:

2.1. XEDEA. ARABA, ERREFERENTEA PERTSONA ZAURGARRIENEN ARRETAN:

2.1.1. ILDOA: MENDEKO PERTSONA ADINDUENTZAKO ARRETA. Zazpi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.1.1 Gizarea, egoitza arretaren eredu berria, harremanetan oinarritua.
- 2.1.1.2 Egoitza plazak areagotzea.
- 2.1.1.3 Araba Health Intelligence Centre.
- 2.1.1.4 Etxean Bai plana.
- 2.1.1.5 Egoitza azpiegiturak hobetzeko plana.
- 2.1.1.6 Mendetasun prestazioak.
- 2.1.1.7 Adinekoen bakardade ez-aukeratuari aurre egiteko estrategia: "Araba a punto".

2.1.2 ILDOA: DESGAITASUN FISIKOA EDO PSIKIKOA DUTENENTZAKO ARRETA. Sei jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.2.1 0 eta 6 urte arteko adingabeei arreta goiztiarra emateko programa.
- 2.1.2.2 Araban eguneko zentro berri bat irekitzea, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzat.
- 2.1.2.3 Bizitza independenteari laguntzeko Arabako eredu.
- 2.1.2.4 Gizarea, egoitza arretaren eredu berria, harremanetan oinarritua.
- 2.1.2.5. Desgaitasunen bat duten adinduentzako egoitza plazak ituntzeko proiektu pilotua.
- 2.1.2.6 Modulu berria autonomia pertsonalerako zentroan (CAP).



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2.1.3. ILDOA: ZAINZAILAEK. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.3.1. Zainduz Araba programa.
- 2.1.3.2. Zaintzaileak trebatzeko programak.

2.1.4. ADINGABEENTZAKO ARRETA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.4.1. Portaera zailtasun larriak dauzkaten adingabeei arreta emateko zentroak berregituratzea.
- 2.1.4.2. Adingabeei eta familiei arreta eta laguntza emateko programak.
- 2.1.4.3. Familientzako esku-hartze sozial eta terapeutikoa hobetzea.
- 2.1.4.4. Estibalizko eta Hazaldiko adingabeen zentroak
- 2.1.4.5. Egoitza azpiegiturak hobetzeko plana.

2.1.5. ILDOA: GENERO INDARKERIA DEUSEZTATZEA. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.5.1. Genero indarkeriaren biktimei laguntzeko egituren hornidura indartzea.
- 2.1.5.2. Biktimei arreta emateko egonaldi ertaineko egoitza plaza edo emergentziarako pisu gehiago eskaintzea.

2.1.6. ILDOA: KOLEKTIBO BEHARTSUENTZAKO ARRETA. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.6.1 Behar gehien dauzkaten gizataldeei arreta eta laguntza emateko programak (bazterketa).
- 2.1.6.2 Europako Gizarte Funtzari lotutako jarduerak (Oinez eta Sendotu Aldi Berean).
- 2.1.6.3 Tutoretza eredu berria.
- 2.1.6.4 Gaixotasun mentala dutenei arreta emateko plazak areagotzea.

2.1.7. ILDOA: GIZARTE POLITIKEI LAGUNTZEKO ZERBITZU OROKORRAK. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.1.7.1. Zerbitzu orokorrak.
- 2.1.7.2. GOFeren lan eskaintzak.
- 2.1.7.3. GOFeren prestakuntza plana.
- 2.1.7.4. Azterlanak, ebaluazioak eta lan teknikoak. Plan estrategikoa eta gizarte-zerbitzuen mapa.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ildo estrategikoak. 2. ardatza

7
1



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2.2. XEDEA. ARABA, ERREFERENTEA BERDINTASUNEAN ETA GIZA ESKUBIDEETAN:

2.2.1. ILDOA: GENERO BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEA. Hamaika jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.2.1.1. Berdintasunerako foru-arau bat egitea
- 2.2.1.2. Genero ikuspegia araudietan, aurrekontuetan eta gure lan prozeduretan txertatzea eta zeharkakoa egitea.
- 2.2.1.3. Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa. Arabako Jabekuntza Eskola - Laia Eskola.
- 2.2.1.4. Sexu aniztasuna eta genero identitateak ikusgarri egiteko eta horietan sentsibilizatzeko jarduerak.
- 2.2.1.5. Emakumeen kontrako indarkeriak eta bestelako indarkeria matxistak jorrazteko estrategia zehaztea: prebentzioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza Arabako lurralde historikoan.
- 2.2.1.6. Arabako lurralde historikoan zaintza formal eta informalak ikusgarri egin eta antolatzea eta erantzukizuna sustatzea.
- 2.2.1.7. Arabako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Barne Plana sustatzea.
- 2.2.1.8. Lankidetzaren publiko-pribatua indartzea berdintasun gaietan.
- 2.2.1.9. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia.
- 2.2.1.10. 2021erako dirulaguntza publikoak irabazteko asmorik gabeko elkarte eta erakundeentzat, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiteko.
- 2.2.1.11. Berdintasunerako IV. Foru Planaren ebaluazioa eta V. Foru Plana prestatzea.

2.2.2. ILDOA: GARAPENERAKO LANKIDETZA. Bederatzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.2.2.1. Garapenerako lankidetzaren eta ekintza humanitarioa indartzea, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

lerrokatuta, xede horri bideratutako partidak pixkanaka areagotuz.

- 2.2.2.2. Arabako Foru Aldundiaren elkartasun eta lankidetzaren politikarako esparrua egokitzea. Eskutik agiria.
- 2.2.2.3. Eskutik Mundura eta Eskualdetik Mundura prozesuekin jarraitzea.
- 2.2.2.4. Lurraldeko GGKE-ek parte hartzeko eta haiekin hitz egiteko tokiak mantendu eta indartzea.
- 2.2.2.5. Garapenerako politiken koherentzian aurrera egitea, politika publikoetan giza eskubideen, lankidetzaren eta elkartasunaren ikuspegia pixkanaka txertatuz.
- 2.2.2.6. Arabako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren politika publikoetan giza eskubideen ikuspegia txertatzea.
- 2.2.2.7. Arabako lurralde historikoko GGKE-ek sustatutako gizarte eraldaketarako, lankidetzarako eta ekintza humanitariorako heziketara diru-laguntzak bideratzea.
- 2.2.2.8. Larrialdietarako Arabako Funtsa indartzea.
- 2.2.2.9. Erakundeen arteko lankidetzaren: AFAk Lankidetzarako Euskal Kontseiluan, Lankidetzarako Erakundearteko Batzordean, Euskal Fondoan eta (H)ABIAN - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategian parte hartzea.

2.2.3. ILDOA: KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA. Sei jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.2.3.1. Arabako migrazio fenomenoaren diagnostikoa jendarteratzea.
- 2.2.3.2. AFAREN bizikidetzaren eta kulturartekotasuna sustatzeko politiken esparrua osatzea.
- 2.2.3.3. Bultzada ematea arraza aurreiritzien eta estereotipoen kontrako AFAREN sentsibilizazio estrategiari.
- 2.2.3.4. Administrazio publikoen eta erakunde sozialen arteko aliantzak eta sareak sustatzeko ZAS! sarea bultzatu eta sustatzea.
- 2.2.3.5. Bizikidetzaren sustatzeko elkarte eta sentsibilizazio ekintzak egitea.
- 2.2.3.6. Arabako lurralde historikoko entitate publiko eta pribatuen proiektuei (kultura arteko sentsibilizazioa eta bizikidetzaren sustatzeari zuzendurikoei) diru-laguntzak ematea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

2.2.4. ILDOA: AGENDA 2030, GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.2.4.1. Arabako Garapen Jasangarrirako 2030eko Aliantza zabaltzea.
- 2.2.4.2. 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak ezartzea.
- 2.2.4.3. Giza eskubideak.
- 2.2.4.4. Arabako lurralde historikoaren memoria historikoa berreskuratzea.
- 2.2.4.5. Martxoaren 3ko Oroimenezkoan parte-hartzea

2.3. XEDEA. ARABAKO KULTURAREN GARAPENA ETA DEFENTSA:

2.3.1. ILDOA: KULTUR LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.3.1.1. Beste erakunde batzuekin kultura hedatzeari begirako lankidetzak hitzarmenak sinatzea.
- 2.3.1.2. Arabako prestakuntza ondarea osatzen duten erakundeekin konpromisoak hartzea.

2.3.1. ILDOA: KULTUR DIZIPLINEN GARAPENA LURRALDE OSOAN: 10 jardunetan gauzatzen da

- 2.3.2.1 Kultur sorkuntza eta ekoizpena lurralde osoan bultzatu eta indartzea. Arabako kulturaren eta sormenaren sektorearen garapena aintzat hartzea.
- 2.3.2.2 Arabako kultura sektorea babesteko tresnak eta programak garatzea.
- 2.3.2.3 Kulturaren zabalkundea indartzea eta kultura zabaltzeko jarduerak lurralde osoan areagotzea.
- 2.3.2.4 Arabako Kultura Plan Estrategikoa (2021-2024) diseinatu eta ezartzea.
- 2.3.2.5 Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen gaur egungo eta etorkizuneko zereginaren inguruan hausnartzea.
- 2.3.2.6 Museoen jarduera sustatzea eta Arabako Museoen Foru Sarearen Ekintza Plana hedatzea.
- 2.3.2.7 Natura Zientzien Museoaren kokapen berriaren planifikazioa.
- 2.3.2.8 Artium arte garaikidearen euskal museo gisa finkatzea.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ildo estrategikoak. 2. ardatza

7
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 2.3.2.9 Kanpoko museoiei laguntzea: Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa, Artziniegako Museo Etnografikoa, Zalduondoko Lazarraga Kultura Etxea eta Kexaako Monumentu Multzoa.
- 2.3.2.10 Agiritegien ekintza plana; e-Administrazioa sustatzea eta hedatzea, eta AFAko dokumentazioaren kudeaketa orohartzailea.

2.3.3 ILDOA: JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA SUSTATZEA. Hamahiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.3.3.1 Eskolako kirolari laguntzea.
- 2.3.3.2 Kirol federatuari laguntzea.
- 2.3.3.3 Kirol arloko ikuskapenei buruzko erregelamendu berria.
- 2.3.3.4 Emakumeen kirola bultzatu eta hedatzea.
- 2.3.3.5 Kirol gutxituak bultzatu eta hedatzea.
- 2.3.3.6 Kirol egokituan jarduteko ildo berriak.
- 2.3.3.7 Jolas kirolari laguntzea.
- 2.3.3.8 Kirol klubetan eta erakundeetan enplegua mantentzen laguntzea.
- 2.3.3.9 Kirol ekitaldien sustapena eta haiei laguntzea, Araba kirol arloko erreferentzia bihurtzeko.
- 2.3.3.10 Teknikariak, entrenatzaileak eta monitorea prestatzea.
- 2.3.3.11 Arabako kirolariak eta beren arrakastak sustatzea.
- 2.3.3.12 Kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntzea eta haietzako zerbitzuak.
- 2.3.3.13 Bertako kirolari laguntzea.

2.3.4 ILDOA: KULTUR ONDAREA BERRESKURATZEA ETA BALIOA EMATEA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.3.4.1 Iruña Veleian jarduteko eta balioa emateko estrategia lantzea.
- 2.3.4.2 Gatz Haranaren inguruko jarduerak.
- 2.3.4.3 Jarduera arkeologiko eta paleontologikoei buruzko erregelamendu berria egitea.
- 2.3.4.4 Arabako kultura ondarea kudeatu, sustatu, kontserbatu eta zaharberritzea.
- 2.3.4.5 Arabako kultura ondareari buruzko ikerketei laguntzea.

2.3.5 ILDOA: GAZTEEI LAGUNTZEA. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ildo estrategikoak. 2. ardatza

7
5



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 2.3.5.1 Gazteriaren Foru Erakundeari, gazteriari buruzko hainbat programa espezifikori eta Gazteriaren Lurralde Kontseiluari bultzada ematea.
- 2.3.5.2 Gazteen erakundeek sustatutako proiektu berritzaileei laguntzea.
- 2.3.5.3 Arabako baserrialdeetako gazteak dinamizatzea eta bultzada ematea.
- 2.3.5.4 Komunikazio plana eguneratu eta moldatzea, publiko guztiengana iristeko: gazteen erakundeak, familiak eta gazteak.

2.3.6 ILDOA: EUSKARA LURRALDE OSOAN SUSTATZEA. Zortzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 2.3.6.1 Euskararen Plan Estrategikoa (2018-2021) hedatzea eta euskararen erabilera sustatzearen alde lan egiten duten elkarte eta kolektiboen sareari laguntzea.
- 2.3.6.2 Euskara ikasten eta erabiltzen duten biztanleen ehunekoa areagotzeko jarduerak.
- 2.3.6.3 Euskaraz argitara ematen diren gizarte komunikabideak sustatzea.
- 2.3.6.4 Euskararen erabilera sustatzeko proiektu eta programen deialdietarako laguntzak handitzea.
- 2.3.6.5 Hainbat gizarte mailatan euskara erabiltzeko guneak sustatzea.
- 2.3.6.6 Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan sustatzeko ekintzak areagotzea.
- 2.3.6.7 Kuadrilletako euskara sustatzeko teknikarien lan-egonkortasuna.
- 2.3.6.8 Gazteentzako aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduera-planak euskaraz diseinatzea eta ezartzea



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.3. 3. ARDATZA: ARABAREN LURRALDE GARAPENA

Araba Europako eskualde aberatsenetako baten atala da, baina, zalantzarik gabe, aurre egin behar dio desafio honi: bere garapenak eta ongizateak hiriguneetan bakarrik biltzeari utzi behar diote, eta lurralde osoari gizarte eta ekonomia kohesioa emateko balio behar dute.

Lurraldearen kohesioa lortzeko, Arabako pertsona guztiek (hirietan nahiz landa eremuetan bizi direnek) bizi kalitate orekatua izan behar dute.

Hirien eta landa eremuen arteko desoreka hori eta garapen bidezkoagoa eta orekatuagoa lortzeko xedez lurralde kohesio handiagoa izateko beharra mundu mailako desafioak dira. Horiei buruz ohartarazten dute Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak eta Nazio Batuek 2015ean onetsitako Garapen Jasangarriko 17 Helburuek ere. Haiekiko konpromiso sendoa hartua dute Arabako Foru Aldundiak eta Arabako lurralde historikoko hainbat eragilek, Arabako Garapen Jasangarrirako 2030eko Aliantza eratuz eta berari atxikiz.

Ardatz honek Arabako herrien etorkizunak honako hauek bateratzearen alde egiten du: politika publiko eraginkorrak, zeinak Arabako toki erakundeentzako finantzaketa, lankidetzeta eta aholkularitzan gauzatzen diren, eta, beste aldetik, erantzunkidetasuna eta tokiko biztanleen partaidetzeta aktiboa. Halaber, lurralde politikak garatu nahi ditu gobernantza malguko testuinguru batean, lurralde kudeaketaren maila anitzetan.

Azkenik, ardatz hau ezingo zatekeen diseinatu, printzipio orokor hauei jarraitu ezean: errentagarritasun soziala; lankidetzeta eta erantzunkidetasuna; subsidiarotasuna eta tokiko autonomiarekiko errespetua; berrikuntza; gardentasuna, parte-hartzea eta informaziorako sarbidea; bilakaera orekatu eta jasangarria.

Arabaren lurralde garapena izeneko ardatzak honako hiru **xede estrategiko** hauek dauzka:

3.1. ARABA, BIZITZAZ BETERIKO LURRALDEA.

3.2. ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA DITUEN LURRALDEA.

3.3. AUKERA EKONOMIKOAK ETA HERRI ERAKARGARRIAK DITUEN LURRALDEA.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ardatz estrategikoak. 3. ardatza

7
7



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3. ARDATZA: ARABAREN LURRALDE GARAPENA XEDE ESTRATEGIKOEN AZALPENA

3.1. ARABA, BIZITZAZ BETERIKO LURRALDEA:

Lurralde kohesionatu eta orekatua lortzea da ardatz honen funtsezko eginkizuna, eta Arabako Foru Aldundiaren legegintzaldi honen nortasun zeinuetako bat da. Bada, herritarrak landa eremuetara hurbiltzeko eta haietan finkatzeko xedez tokiko erakargarritasuna babestu eta areagotuko duten politiken alde egitea da lehenengo xede honen eduki espezifikoak.

Xede honek ez ditu dagoeneko Arabako landa eremuetan bizi diren herritarrak baztertu behar. Hortaz, arabarren ongizatea handitzeko, Arabaren lurralde antolaketari laguntzeko eta ongizatea lurraldean modu parekidean banatzera iristeko inbertsio publikoa sustatzeko erronka gisa planteatu da *Araba, bizitzaz beteriko lurraldea* izeneko xedea.

Era berean, herritarrak landa ingurunera erakartzea eta bertan finkatzea lortzeari begirako plangintza estrategikoa sustatu behar da, zergen eta etxebizitzaren arloko politika bereiziekina batera, etxebizitzarako eskubide subjektiboa hiri inguruneetako baldintza beretan berma dadin.

Honako lau **ildo estrategiko** hauek osatzen dute *Araba, bizitzaz beteriko lurraldea* izeneko xedea:

3.1.1. LURRALDE OREKAREN ETA KOHESIOAREN ALDEKO BENETAKO KONPROMISOA. LURRALDEA KUDEATZEKO EREDU BERRI BAT GARATZEA:

Kudeaketa eredu gaurkotu, ireki eta adostu berrien plangintzari eta garapenari heltzen die lehenengo ildo honek.

Eskualdeak garatzeko eredu adostu bat sustatu nahi du, gaur egungo tresnetara joz; adibidez, kontzejuen eta kuadrillen inguruko araudia aldatzeko eta eguneratzeko gaitasunari nahiz Landa Eremuetan Jarduteko Sailarteko eta Erakundearteko Kontseiluaren baitan hartutako erabakiei helduz; beti ere, lurraldearen subsidiarotasun printzipioa erabat errespetatuta.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

3.1.2. LURRALDE OREKAREN ETA KOHESIOAREN ALDEKO BENETAKO KONPROMISOA. LANDA BIZTANLERIA HANDITZEA:

Ildo estrategiko honetan, biztanleak landa ingurunera erakartzea eta bertan finkatzea errazteko neurrien multzo bat jasotzen da.

Neurriok modu koherente eta egituratuan diseinatu behar dira, denboran iraun dezaten; hortaz, Erronka Demografikoari Aurre egiteko Plan Estrategikoa egin ondoren sortuko dira. Gero, planaren ondoriozko gomendioak praktikan jarri ahalko dira, eta bere xede eta jomugen arabera ebaluatu.

Azkenik, Foru Aldundiaren foru arauak, planak eta inbertsio programak egiteko orduan ikuspegi demografikoa ere kontuan hartzea da ildo honen xedeetako bat.

Halaber, esan behar dugu ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat datorrela: 2-Goserik ez eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.1.3. LANDA ETXEBIZITZAK SUSTATZEA:

1.000 biztanle baino gutxiagoko hirigune landatarretan etxebizitzak eta eraikinak birgaitzen laguntzeko tresnak beste erakunde batzuekin koordinatuta aztertu eta abiarazi behar dira.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 2-Goserik ez eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.1.4. LANDA EREMUETARAKO ZERGA TRATAMENDU BERRIA:

Funtsean, zerga politikako zenbait neurri aurreikusten ditu; hala nola, hauek: landa eremuetan bizi diren familientzako zerga pizgarriak ezartzea, behar gehien dauzkaten edo hutsik geratzeko arrisku handia duten eremuei (adibidez, mendialdeko eremuei) bestelako zerga tratamendu bat ematea eta landa ingurunean ezarriko diren ekonomia jarduera berriak sustatzeari begirako neurriak hartzea.

Hori guzti hori lortzeko, ordea, xedapen berriak eraginkorrak izatea bermatuko duten ikerketa xeheak egin behar dira (herri horiek populatzeari dagokionez), zerga sistema justu, aurrerakoi, jasangarri eta lehiakorra bilatzeko printzipioari jarraikiz beti.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

7
9



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.2. ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA DITUEN LURRALDEA:

Arabako lurraldeko egiturak funtsezko giza baliabidez, baliabide teknikoak eta baliabide ekonomikoak hornitzeko ahalegin handia egin da. Xede honek, bada, aurreko ekimen arrakastatsuei eutsi nahi die, eta zerbitzuen gaur egungo eskaerei egokitutako neurri berriak sartu.

Hiri eta landa eremuen arteko arrakala murriztea izango da guztien helburua, lurraldea gehiago eta hobeto egituratze aldera, eta, horretarako, herritarrek zerbitzuetara hobeto iristeko hainbat proiektu taxutu eta gauzatu beharko dira.

Proiektu horien artean, Lan eta Zerbitzuen Foru Plana, Araba Konektatua Plana, kuadrillen arteko mugikortasunaren eta garraioaren arloan abiatu diren hainbat hobekuntza eta Arabako Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren sorrera nabarmentzen dira, besteak beste. Jarduera guztiek dute helburu zerbitzudun eta bizi kalitaterik gabeko lurralde orekatua lortzea; beraz, horiek ezartzen eta babesten jarraitu behar dugu.

Landa eremuan suteak prebenitzeko zerbitzu publikoa funtsezkoa da, eta kalitate, eraginkortasun eta prebentzio printzipioetan oinarrituta egon behar du. Hala, giza baliabideak eta baliabide materialak indartzea da xedea, lurraldea goitik behera estalita egon dadin.

Halaber, ekintzaileen talentuari eta ekimenari laguntzeko kultura ekintzailea sustatzeko eginkizuna dauka xede honek, haien proiektuak abiarazi ahal izan ditzaten; bereziki, landa inguruneari dagokionez. Gure lurraldeak balio erantsidun zerbitzuak eskaini behar ditu, eta baldintzarik gabeko babesa eman behar die ideia eta negozio berriei.

Honako hamar **ildo estrategiko** hauek osatzen dute *Zerbitzuak eta bizi kalitatea dituen lurraldea* izeneko xedea:

3.2.1. LANDA AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK BABESTEAK. LURRALDE OREKA:

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

8
0



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ildo estrategiko honen lehen helburua Lan eta Zerbitzuen Foru Plana indartzea da, tokiko erakundeek haien nahi eta interes partikularren arabera eskatzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturei arreta emateko filosofiari jarraikiz. Zentzu horretan, Lan eta Zerbitzuen Foru Plan berria diseinatu eta argitaratuko da 2020-2024 aldirako.

Ildoa osatzeko, Lurralde Oreka Sustatzeko Ekimenak izeneko inbertsio programa bereziarekin eta tokiko zerbitzuetan inbertitzeko kanpoko inbertsio baliabideekin (hala nola, Erein programarekin edo Leader funts europarrekin) jarraituko da.

Ildoa ixteko, inbertsio premia mugatuak estaltzeko programa bat (Lan Txikiak Egikaritzeko Programa) eta Auzoko Harremanak Sustatzeko Ekimenei laguntzeko Programa (Auzolan/Veredas) indartuko dira, herritarrek beraiek modu tradizionalan egiten dituzten obrei begira.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.2.2. LANDA AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK BABESTEIA. BALIABIDE HIDRAULIKOAK:

Lurraldeko baliabide hidraulikoak optimizatzeko eta jada funtzionamenduan dauden instalazioen osagarritasuna lehenesteko laguntza ekonomiko eta teknikoak biltzen ditu; funtsean, hornidura eta saneamendu sare baxuei (edo etxeetara eta negozio lokaletara iristekoei) dagokienean.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 2-Goserik ez 6- Ura eta saneamendua.

3.2.3. LANDA AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK BABESTEIA. GARAPEN TEKNOLOGIKOA:

Landa ingurunearen garapen teknologikoa da landa azpiegituren eta ekipamenduen bigarren euskarria.

Hiriak azken aurrerapen teknologikoak benetan aplikatzeko proba zentroak dira. Biztanleriaren kontzentrazio handiagoari eta babes azpiegiturak eskuragarri izateari esker da posible aurrerapen hori. Alabaina, landa ingurunea ez da zokoratuta geratu behar.

Ildo hau abiatzeko, beraz, teknologia eta konektagarritasuna erabiltzeko eredu orokorra zehaztu beharko da, eta Arabako landa eremuetan bizi direnen ongizaterako ezarri. Ondoren, adinekoentzako etxebizitza adimendunak

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

8
1



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

sustatzeko programa bat garatu nahi du (kea detektatzeko instalazioak, erorikoak detektatzeko sentsoreak eta abar).

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 2-Goserik ez, 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.2.4. LANDA EREMUKO KONEKTAGARRITASUN OSOA:

Ildo estrategiko honek jarraitutasuna ematen dio Araba Konektatua programak garatutako lan onari. Arabako landa eremuen eten digitala murriztu nahi du. Xedea konektagarritasun osoa lortzea da; hots, komunikazioen estaldura digital unibertsala ezartzea Araba osorako.

Zehazki, 4G sareak hedatzea sustatzeko sortu da, etorkizunean 5G teknologia ezartzeko oinarria baitira horiek, landa eremuetan dauden premiak asebetetze aldera. Era berean, garapen jasangarria eta herritarren ongizatea teknologiaren eta konektagarritasun aplikatuaren bidez sustatzeko helburua duen plan bat abiatzea pentsatu da. Azkenik, herritarrei arreta emateko eredu *digitala* sortzeko ahalegina egingo da.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 2-Goserik ez, 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.2.5. LANDA EREMUKO BIDE AZPIEGITURAK:

Landa eremuetan Garraioaren Altzari Laguntzaileak Hobetzeko Plana egikaritzeko gorde da ildo estrategiko hau. Bada, bideko segurtasuna, irisgarritasuna, generoa eta jasangarritasuna aintzat hartuta ezarri behar da plana.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 5-Genero berdintasuna eta 9-Berrikuntza eta azpiegiturak.

3.2.6. LANDABIDEAK ZAIINTZEA ETA BERRIZTATZEA:

Landabideak zaindu eta berriztzeko xedez tokiko erakunde titularrekin egin behar diren askotariko lankidetzak hitzarmenak jasotzen dira hemen. Landabideak zaindu eta berriztzeko plan bat lortzea da xedea, eta, horretarako, udalekin eta administrazio batzordeekin lankidetzan aritzeko prozedurak abiatu beharko dira.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez eta 9-Berrikuntza eta azpiegiturak.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

8
2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3.2.7. LURZORUAREN OKUPAZIOA ETA ARRAZOIZKO ERABILERA:

Udal plangintzarako tresnak eta diru-laguntzak biltzen ditu ildo estrategiko honek.

Zehazki, Guardia-Arabako Errioxa LPPa eta Arabaren Erdialdeko LPPa berrikusiko dira, lurzorua birkalifikatu edo berrantolatzeko bestelako ekimenei ere tresnak ezartzeaz ahaztu gabe.

Halaber, urbanizazio berrietan ordenantzak jasangarritasun irizpideekin eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearekin bat eginez idazteko irizpide orokorrak ezarri nahi dira.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 11-Hiriak eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

3.2.8. LANDA EREMUKO AZPIEGITURA TURISTIKOAK:

Ildo estrategiko honek Arabako landa ingurune erakargune turistikoetara datozen bisitariei arreta emateko negozioak sortuz eta sendotuz lurralde oreka lortzeko helburua dauka.

Lurralde historikoa bultzatzen duten baliabide turistikoen sustapenean biltzen ditu indarrak. Adibidez, Arabako Errioxako ardo eta mahastien paisaia kulturala gizadiaren ondare izenda dezaten saiatuko da, lan mahai bat eratuz.

Azpiegiturei dagokienez, lurraldeko interes turistikoko tokien seinaleztapena eta zerbitzuak hobetuko dira.

Ildo honek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak.

3.2.9. SUTEAK PREBENITU ETA ITZALTZEKO PLANA:

Urte hauetan pilotutako eskarmentuak irakatsi digunez, gaur egungo zerbitzuak indartu, egokitu eta eraldatu behar dira, eta zerbitzua lurralde oso-osoan emateko zerbitzu berriak sortu.

Prozedurak, baina, ordenatua behar du izan, eta, horretarako, landa eremuetan suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamendurako plana egingo da, suteen



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

kopurua ahalik eta gehien murrizteko zein prebentzio eta segurtasun jarduerak indartzeko helburuz.

Azkenik, esan behar dugu ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dagoela: 2-Goserik ez eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

3.2.10. LANDAKO INDUSTRIA ONDAREA BERRESKURATZEA:

Arabako Mendialdeko meatze paisaiak zaharberritzeko master plan bat egiteko asmoa jasotzen du ildo estrategiko honek.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

3.3. AUKERA EKONOMIKOAK ETA HERRI ERAKARGARRIAK DITUEN LURRALDEA:

Jarduerak dibertsifikatuko dituen lurralde baten etorkizunaren alde egiten du xede honek, zerbitzuen eta industriaren sektoreak sustatu eta herritarrak geografia osoan finkatzeko asmoz.

Azken helburua landa eremuan bizitzea berriro ere erakargarri egingo duten ekimenak eta proiektuak bilatu eta proposatzea izango da.

Horrela, hiritik kanpo baina hirian dauden garapen aukera berberekin bizitzea probatu nahi duten herritarrei erantzun nahi zaie.

Hala, honako zortzi **ildo estrategiko** hauek osatzen dute *Aukera ekonomikoak eta herri erakargarriak dituen lurraldea* izeneko xedea:

3.3.1. LANDA GARAPEN JASANGARRIA:

Beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean Landa Garapen Jasangarrirako 2021-2027 aldirako Plan berria idazteko eta abiatzeko prozesua jasotzen du ildo estrategiko honek.

Zehazki, agroekologiarekin zerikusia duten alderdiak izango dira ildo honen ardura nagusia. Arlo horretarantz abiatzeko proiektu bat egingo da, eta proiektuak barne hartuko ditu nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan ezartzeko teknologia berriak, izurriteen eta gaixotasunen kontra biologikoki

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

8
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

borrokatzeko proiektu pilotuak eta ureztaketa urak ponpatzeko instalazio fotovoltaikoak.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator neurri batean: 2-Goserik ez, 7-Energia berriztagarriak, 9-Berrikuntza eta azpiegiturak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

3.3.2. ESKUALDEKO EKONOMIA BERPIZTEA:

Eskualdeetako ekonomia berpizteko planak egingo dira tokiko erakundeekin elkarlanean.

Berritasun modura, baliabide naturalak aprobetxatzea ahalbidetuko duten negozio eredu berriak garatzeko asmoa dauka, ingurumenaren babesarekin sinergia handiak lortzeko xedez.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez eta 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa.

3.3.3. NEGOZIO EREDU BERRIAK LANDA INGURUNEAN

Nekazaritzako elikagaien sektorean sortzen diren eta baliabide naturalak aprobetxatzea, laborantza tradizionalak dibertsifikatzea eta eraldaketa nahiz merkaturatze enpresetan parte hartzea ahalbidetuko duten negozio mota berriei heltzen die ildo honek.

Baratzeko ekoizpenekin, fruten ekoizpenarekin eta abeltzaintza estentsiboarekin zerkusia duten proiektu berrien edo bazka deshidratatzeko eta lehortzeko ekipo txikietan egiten diren inbertsioei laguntzeko proiektuen sustapena nabarmentzen da.

Halaber, Arabako landa ingurunean frutagintza ezartzeko plan estrategiko bat prestatzea eta tokiko azoka tradizionaletara joaten diren ekoizleen, langileen eta saltzaileen errolda egitea aurreikusten du, neurri azpimarragarrienen artean.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek lortzen laguntzeko diseinatu da: 2-Goserik ez eta 15-Lurreko ekosistemak.

3.3.4. TURISMOAREN, MERKATARITZAREN ETA OSTALARITZAREN ARTEKO ALIANTZAK:

Tokiko eta kanpoko bisitariei Arabako lehenengo sektorearekin eta artisautzarekin zerkusia daukaten jarduera berezietz gozatzeko aukera emateko diseinatu da ildo estrategiko hau. Turismoa, merkataritza eta ostalaritza

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

8
5



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

bateratzea sustatuko duten jarduerak eta ekitaldiak diseinatzeko neurriak biltzen ditu; hots, turistikak hiru sektoreetara hurbiltzeko egitasmoak bultzatzen ditu.

Era berean, turismoaren, merkataritzaren eta ostalaritzaren arteko aliantzetan diskriminazio positiboaren bidez eragin nahi du, landa eremuetan hazten ari den sektore gisara.

Arabako eskualdeetako enpresa eta entitate pribatuek eskaintzen dituzten jarduera berezi, ezberdin eta bitxiak ezagutarazi ahal izatea proiektatzen du. Horien hedapenari bide emateko ekimenak nabarmentzen ditu.

Azkenik, esan behar dugu ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat datorrela: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak.

3.3.5. LANDA INGURUNEN ASISTENTZIA ZENTROEKIKO KONEXIOA:

Ildo estrategiko hau foru plangintzaren ardatz nagusietako baten barruan dago; hots, Araban mugikortasun jasangarria sustatzeko ardatzean. Bada, mugikortasun jasangarria eskubidetzat jotzen da, eta, beraz, herritarrei begirakoa da beti.

Ildo estrategiko honek jasotzen duenez, hobekuntzak egingo dira Eskualdeko Garraio Zerbitzuaren telefonogunean.

Eskualdeko Garraio Zerbitzua lurralde historikoan autobusen linea erregularrik ez duten landa gunek txikiak eta eskualde buruak lotzeko diseinatuta dago, gunek horiek lineekin konekta daitezkeen eta oinarritzko zerbitzuetara (hezkuntza, osasuna, kirol instalazioak, merkataritza eta abar) iritsi ahal izan daitezkeen.

Eskualdeko garraio zerbitzu berria hainbat berrikuntza txertatuko dira aurreko ereduarekin alderatuta. Esate baterako, bidaiariak eskualde burura edo erreferentziazko herrira hurbilduko ditu, linea erregularrekin konektatu eta oinarritzko zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, merkataritza, eta abar) eskuratu ditzaten; zerbitzua zabalduko da, eta asteburu eta jaiegun guztietan izango da abian; erreserbak webgunearen edo telefonoaren bidez egiteko zentral bat jarriko da erabiltzaileen esku; eta bidaiariak BAT txartela erabili ahal izango dute ordaintzeko, eta txartel horrek berekin dakartzan hobariak eskuratzeko aukera izango dute.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu honekin bat dator: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3. ardatza

8
6



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3.3.6. BELAUNALDIARTEKO ORDEZPENA, GAZTEEK PROIEKTU BERRIAK GARATU DITZATEN:

Gazteek garapen sozioekonomikorako proiektuak abiatzen dituztenean laguntza eta aholkua emateko sortu da ildo estrategiko hau, landa ingurunean negozioak belaunaldi batzuetatik hurrengoetara igarotzea bermatze aldera.

Lehen aipaturiko 3.3.2. ildoarekin zerikusia daukaten jarduerak jasoko dituzten proiektuak abiatuko ditu. Gainera, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez eta 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa.

3.3.7. BELAUNALDIARTEKO ORDEZPENA, NEKAZARITZAKO ELIKAGAI SEKTOREAN

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreetan sortzen diren ekintzaile berriak babesteko ibilbide orria marrazten du ildo estrategiko honek.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreetan, basogintza aprobetxatzeko eta birsortzeko plan bat sustatuko du, eta, horri begira, nekazaritzako lurzoruen banku bat zabaldu eta indartuko da, eta ez sektorerara sartu berrientzat bakarrik, baita nekazaritzako lurzoru estrategikoak kontserbatzeko ere.

Emakume nekazariak eta abeltzainak ikusgarri egiteko neurriak babestuko ditu, tartean diren beste erakunde batzuekin elkarlanean.

Azken batean, nekazaritzako elikagaien sektorearen gaikuntzaren euskarria da, eta tokiko produktuak garatzea eta finkatzea sustatzeko gailua.

Halaber, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez, 5-Genero berdintasuna eta 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa.

3.3.8 "BERPIZTU" PLANA:

Ildo estrategikoa, Foru Aldundiak Berpiztu Planari egin dion ekarpena adierazten duena; "Berpiztu" Euskadiko eskualde behartsuenen garapen sozioekonomikorako plana da, Eusko Legebiltzarrak Aiaraldea biziberritzeko Planari buruz egin zuen ponentziaren ondorioetatik sortu dena.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 8-
Enplegua eta Hazkunde ekonomikoa, eta 11-Hiri eta komunitate iraunkorrak.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 3.
ardatza





Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3. ARDATZEKO ILDO ESTRATEGIKOEN EDUKIA: ARABAREN LURRALDE GARAPENA

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoaren 3. ardatzean (Arabaren lurralde garapena) aurreikusten diren hogeita bi ildo estrategikoak honako jarduketa zehatz hauetan bereizten dira:

3.1. XEDEA. ARABA, BIZITZAZ BETERIKO LURRALDEA:

3.1.1. ILDOA LURRALDE OREKAREN ETA KOHESIOAREN ALDEKO BENETAKO KONPROMISOA. LURRALDEA KUDEATZEKO EREDU BERRI BAT GARATZEA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.1.1.1. Landa eremuan jarduteko sailarteko eta erakundearteko kontseilua.
- 3.1.1.2. Udal finantzazioaren eguneraketaren analisia.
- 3.1.1.3. Kontzejuen Araua eta Kuadrillen Araua eguneratzea.
- 3.1.1.4. Tokiko zerbitzu publikoak hobetzea eta haietan mantentze lanak egitea.
- 3.1.1.5. Toki erakundeei aholkularitza emateko eta laguntzeko zerbitzu orohartzaile berri bat diseinatzea, lurraldeko eragileen sarearekin lankidetzan aritzea.

3.1.2. ILDOA LURRALDE OREKAREN ETA KOHESIOAREN ALDEKO BENETAKO KONPROMISOA. LANDA BIZTANLERIA HANDITZEA. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.1.2.1. Erronka Demografikoari Aurre egiteko Plan Estrategikoa egitea.
- 3.1.2.2. Foru arauak, planak eta inbertsio programak egiteko orduan ikuspegi demografikoa sartzea.
- 3.1.2.3. Herritarrak landa ingurunera erakartzea eta bertan finka daitezen sustatzea.
- 3.1.2.4. Trebiñuko konderriko herritarrentzako zerbitzuak.

3.1.3. ILDOA LANDA ETXEBIZITZAK SUSTATZEA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3.1.3.1. 1.000 biztanleko baino gutxiagoko hirigune landatarretan etxebizitzak eta eraikinak birgaitzen laguntzea, beste erakunde batzuekin koordinatuta.

3.1.4. ILDOA LANDA EREMUETARAKO ZERGA TRATAMENDU BERRIA. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.1.4.1. Beharrik handiena duten eremuei (adibidez, mendialdeko eremuei) bestelako zerga tratamendu bat ematea.
- 3.1.4.2. Landa eremuetan bizi diren familientzako zerga pizgarriak ezartzea.
- 3.1.4.3. Landa ingurunean jarduera ekonomiko berriak sustatzeko neurri fiskalak hartzea.

3.2. XEDEA ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA DITUEN LURRALDEA:

3.2.1. ILDOA LANDA AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK BABESTEIA. LURRALDE OREKA. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.2.1.1 Lurraldea kudeatzeko eredu berri bat garatzea, lurraldeko oreka eta kohesioa bultzatzeko dirulaguntzen programak finkatu eta hobetzeko eta programa berriak abiarazteko.
- 3.2.1.2 Erakundeen arteko koordinazioa beste laguntza programa batzuekin eta, bereziki, LEADER/EREIN laguntza programekin.
- 3.2.1.3 Aisialdirako tokiko parkeen sarea sustatzea eta hobetzea.

3.2.2. ILDOA LANDA AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK BABESTEIA. BALIABIDE HIDRAULIKOAK. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.2.2.1. Lurraldeko baliabide hidraulikoak optimizatzea.
- 3.2.2.2. Jada funtzionamenduan dauden instalazioen osagarritasuna.

3.2.3. ILDOA LANDA AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK BABESTEIA. GARAPEN TEKNOLOGIKOA. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.2.3.1. Teknologia eta konektagarritasuna erabiltzeko eredu orokorra zehaztea eta landa eremuetan bizi direnen ongizaterako ezartzea.
- 3.2.3.2. Adinduentzako etxebizitza adimendunak sustatzeko programa bat garatzea.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ildo estrategikoak. 3. ardatza

9
0



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3.2.4. ILDOA LANDA EREMUKO KONEKTAGARRITASUN OSOA. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.2.4.1. Araban 4G sareak hedatzen laguntzea eta 5G teknologia etorkizunean ezartzeko oinarriak ezartzea.
- 3.2.4.2 Araba Smart Lurraldea
- 3.2.4.3. Teknologiaren eta konektagarritasunaren bidez garapen jasangarria eta ongizatea bultzatzeko plana egitea.
- 3.2.4.4. Herritarrentzako arreta digitala sustatzea.

3.2.5. ILDOA LANDA EREMUKO BIDE AZPIEGITURAK. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 3.2.5.1. Garraioko altzari osagarriak hobetzeko plana egitea, bide segurtasuneko, irisgarritasuneko, generoko eta iraunkortasuneko irizpideei jarraituz.

3.2.6. ILDOA LANDABIDEAK ZAINTzea ETA BERRIZTATZEA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 3.2.6.1. Landabideak zaindu eta berriztatzeko lankidetza hitzarmenak egitea.

3.2.7. ILDOA LURZORUAREN OKUPAZIOA ETA ARRAZOIZKO ERABILERA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.2.7.1. Hiri-antolamenduko plan orokor berrietan jasangarritasun-irizpideak dituzten ordenantza-ereduak idaztea, Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen arabera
- 3.2.7.2. Plangintzarako diru-laguntzen lerroa.
- 3.2.7.3. Guardia-Arabako Errioxako LPPa berrikustea.
- 3.2.7.4. Araba Erdialdeko LPPa berrikustea.
- 3.2.7.5. Geoaraba aplikazio korporatiboa garatzea.

3.2.8. ILDOA LANDA EREMUKO AZPIEGITURA TURISTIKOAK. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.2.8.1. Lurraldeko interesgune turistikoaren seinaleztapena eta zerbitzuak hobetzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

3.2.8.2. Lurralde historikoa bultzatzen duten baliabide turistikoak sustatzea.

3.2.8.3. Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia gizadiaren ondare izendatzeko mahaia sortzea.

3.2.9. ILDOA SUTEAK PREBENITU ETA ITZALTZEKO PLANA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

3.2.9.1. Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Plana.

3.2.9.2. Arabako lurralde historikoko larrialdi-planetik eratorritako plan sektorialak eta bereziak egitea: baso-suteen plana eta tokiko eremuko plan sektorialak

3.2.9.3. Landa eremuetan larrialdiak prebenitzeko programak hobetzea.

3.2.9.4. Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzua mantentzea.

3.2.9.5. Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzua hobetzea.

3.2.10. ILDOA LANDAKO INDUSTRIA ONDAREA BERRESKURATZEA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

3.2.10.1. Arabako Mendialdeko Meatze Paisaiak Zaharbertzeko Master Plana garatzea.

3.3. XEDEA. AUKERA EKONOMIKOAK ETA HERRI ERAKARGARRIAK DITUEN LURRALDEA:

3.3.1. ILDOA LANDA GARAPEN JASANGARRIA. Zazpi jarduketa hauetan gauzatzen da:

3.3.1.1 Landa Garapen Jasangarriko Plan berria (2023-2027) egitea. Erakundeen arteko lankidetzeta.

3.3.1.2 Arabako soro ureztatueta instalazio fotovoltaikoak jartzea.

3.3.1.3 Nekazaritza eta ingurumen jardunbideei, nekazaritza ekologikoari eta trantsizio agroekologikoei laguntzea.

3.3.1.4 Zailtasun naturalak dituzten ustiategiei laguntzea, eskualde menditsuetan eta eskualde behartsuetan.

3.3.1.5 Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei zuzendutako zerga neurriak, nekazaritza errentaren beherakada dela eta.

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ildo estrategikoak. 3. ardatza

9
2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 3.3.1.6 Abeltzaintza aseguruak kontratatzekeo laguntza.
- 3.3.1.7 Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietako autokontsumorako energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.
- 3.3.1.8 Ustategiko albaiariaren figura ezartzea.
- 3.3.1.9 Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak modernizatzea eta digitalizatzea.
- 3.3.1.10 Izurriteen eta gaixotasunen kontrako borroka biologikoaren proiektu pilotuak abian jartzea.
- 3.3.1.11 Lurraldearen antolamendua eta planifikazioa (lurralde plan sektorialak, lurralde plan partzialak, lege proiektuak eta abar). Erakundeen arteko lankidetzeta.

3.3.2 ILDOA: ESKUALDEKO EKONOMIA BERRAKTIBATZEA. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.3.2.1 Ekonomia berraktibatzekeo jarduerak sustatzea, tokiko eragileekin lankidetzan.
- 3.3.2.2. Baliabide naturalak baliatzea ahalbidetuko duten negozio eredu berriak garatzea.

3.3.3. ILDOA NEGOZIO EREDU BERRIAK LANDA INGURUNEAN. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 3.3.3.1. Frutagintza Garatzeko Plan Estrategikoa.
- 3.3.3.2. Baratzeko ekoizpenarekin, fruten ekoizpenarekin eta abeltzaintza estentsiboarekin zerikusia duten proiektu berriak sustatzea.
- 3.3.3.3. Arabako Errioxako olibondoaren laborantza mantentzea eta hobetzea bultzatzea

3.3.4. ILDOA TURISMOAREN, MERKATARITZAREN ETA OSTALARITZAREN ARTEKO ALIANTZAK. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 3.3.4.1. Turismoa, merkataritza eta ostalaritza elkarlotzea sustatzeko jarduerak eta ekitaldiak diseinatzea.

3.3.5. ILDOA LANDA INGURUNEN ASISTENTZIA ZENTROEKIKO KONEXIOA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 3.3.5.1. Eskualdeko garraio zerbitzua kontsolidatzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

3.3.6. ILDOA BELAUNALDIARTEKO ORDEZPENA, GAZTEEK PROIEKTU BERRIAK GARATU DITZATEN. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

3.3.6.1. Gazteek garapen sozioekonomikorako proiektuak garatzen dituztenean laguntza eta aholkua ematea.

3.3.7. ILDOA BELAUNALDIARTEKO ORDEZPENA, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAN. Bi jarduketa hauetan gauzatzen da:

3.3.7.1. Nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako ekintzaile berriei laguntzea

3.3.7.2. Emakume nekazariak eta abeltzainak ikusgarri egiteko eta indartzeko neurriak hartzea. Erakundeen arteko lankidetzak.

3.3.8. ILDOA BERPIZTU PLANA. Jarduketa honetan gauzatzen da:

3.3.8.1. Aiara Eskualdea biziberritzeko plana



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.4. 4. ARDATZA: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Klima aldaketa da Arabako Garapen Jasangarrirako II. Planaren zeharkako desafio handienetako bat.

Geure beharrianak asetzeko xedez geroko belaunaldien aukerak arriskuan ez jartzeko aginduak berekin dakar, beste kontu batzuen artean, baliabideen kontsumoari irmo eta era arduratsuan aurre egitea.

Ura, hondakinak, energia, mendiak eta abar kudeatzeko orduan eredu eraginkorrak ezarrita, asko lagunduko dugu etorkizuneko belaunaldiekin konprometitutako lurralde jasangarri eta orekatua lortzen.

Bestalde, zenbait kontzeptu —hala nola ekonomia zirkularra, produktuen eta prozesuen eraginkortasuna, dibertsifikazioa eta berrikuntza— barneratzeak indartu egingo du ekonomiaren iraunkortasunaren aldeko apustua, eta, aldi berean, indartu egingo du Arabako enpresa sarearen lehiakortasuna.

Planetak baliabide mugatuak dituela aintzat hartuta, ardatz honek defendatzen du garraio eredu jasangarri eta eraginkor baterantz eboluzionatu beharra dagoela, eta, hortaz, garraio sistema jasangarrienak (trenbidea, esaterako) integratzearen, intermodalitatearen eta lurraldearen barneko eta kanpoko konektibitatea hobetzearen alde egiten du.

Klimaren aldeko ekintza ardatzak honako lau **xede estrategiko** hauek dauzka:

- 4.1. KLIMA ALDAKETA ARINDU ETA HARTARA EGOKITZEA
- 4.2. ARABA GREEN
- 4.3. UR BALIABIDEAK ZAINDU ETA HOBETZEA
- 4.4. MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDEKO APUSTUA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4. ARDATZA: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA. XEDE ESTRATEGIKOEN AZALPENA:

Araba oso konprometituta dago hala 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin, nola berotegi efektuko gasen igorpena % 20 murrizteko erronkarekin.

Konpromiso horiei begira, ordea, aldaketa handiak egin behar dira energia politikan, garraio sisteman, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren eremuan, gure lurraldearen hiri antolamendurako dinamiketan, gure industrien ekoizteko moduan, hondakinen kudeaketan edo ur nahiz energia kontsumoan.

Araba bere ingurumen balioez eta naturaguneez harro dago. Hala, arreta Arabako ingurunearen zainketa aktiboan kokatzea da ardatz honen helburua. Ez dugu etorkizun onik edukiko, ekintza kolektibo eta banakoaren erdigunean baliabide naturalak, elikagaien ekoizpena, aire garbia, basoak, ibaiak eta Arabako Natura 2000 Sare zabal eta aberatsa jarri ezean.

4.1. KLIMA ALDAKETA ARINDU ETA HARTARA EGOKITZEA:

Xede estrategiko honek bat egiten du Araba karbono isurketa baxuak eragiten dituen ekonomia eta gizarte baterantz abiatzeko trantsizio energetikoarekin.

Larrialdi klimatikoak kezkatzen gaituenez, isurketak murrizteko xedea zabaldu nahi da xede estrategiko honen bidez, funtsezko jasangarritasun energetikoa lortzeari begira. Zentzu horretan, Arabako Lurralde Historikoan Klima Aldaketari aurre egiteko Plana egin eta onetsiz amaitu nahi du xede honek, begirada 2050ean jarrita, Araban energia berriztagarriak sortzeko proiektuak sustatuko baititu, beste erakunde batzuekin elkarlanean.

4.1. xede estrategikoaren beste misioetako bat izango da, berriz, energia aurrezteko eta energia eraginkortasuna lortzeko proiektuak eta ibilgailu elektrikoaren hedapena sustatzeko laguntzen lerro bat hornitzea.

Era berean, ez du ahazten klima aldaketaren aurkako borroka Arabako ekonomia ehundurari aukera berriak ekar dakizkiokeela. Ildo horretan, ekonomia zirkularrarekin zerikusia daukaten enpresen kluster bat sustatzeko aukera jasotzen du.

**DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 4.
ardatza**

96



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Azkenik, baina garrantzi maila berarekin, hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea eta horiei balioa ematea sustatuko duten ekintzak, tresnak eta proiektuak bultzatuko dira xede honen bidez.

Honako bost ildo estrategiko hauek osatzen dute *Klima aldaketa arindu eta hartara egokitzea* izeneko xedea:

4.1.1. KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO EKINTZAK:

Jarduketa ildo honen bidez, Arabako lurralde historikoko ekintza klimatikorako estrategia jorratuko da, KLIMA ARABA 2050 deiturikoa.

Aldi berean, Arabako lurralde historikoan isurtzen diren berotegi efektuko gas guztien inbentarioa egingo da.

Amaitzeko, Europako erakundeek onetsi duten URBANKLIMA proiektua (Europako LIFE proiektu integrala) ezarriko da.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak eta 13-Klimaren aldeko ekintza.

4.1.2. AZPIEGITURA BERDEA ETA KONEKTIBITATE EKOLOGIKOA:

Ildo estrategiko honetan, lurraldea azpiegitura berdeen sare batez hornitzeko jarduketak jasotzen dira, konektibitate ekologikoari eta iragazkortasunari bide emate aldera; hala nola: faunaren igarobideak, hainbat ekosistemaren konektibitatea...

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak eta 13-Klimaren aldeko ekintza.

4.1.3. KARBONO URRIKO EKONOMIA LEHIAKORRA BULTZATZEA:

Arabaren trantsizio ekologikoa zainduko duten laguntza ekonomikoak. Arreta berezia emango zaio iturri berriztagarrietatik datozen energiak sortzeko proiektuen sustapenari.

Landa eremuetan energia berriztagarrien hainbat esperientzia pilotu egitea aurreikusten da (adibidez, proba laborategiak), ondoren Araba osora zabaltzeko.

Azkenik, Garoñako zentral nuklearra eraisteko plan bat diseinatu eta abiarazteko asmoa jasotzen du ildo honek.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 7-Energia berriztagarriak, 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak eta 13-Klimaren aldeko ekintza.

4.1.4. EKONOMIA ZIRKULARRAREKIN LOTURIKO ENPRESEN KLUSTER BAT SUSTATZEA:

Plan orokorrak helburu dituen sektore estrategikoen multzoa (1. ardatzean aipatu dira) osatzen du ildo estrategiko honek. Izan ere, ingurumen babesari eta birziklapenari esker sortzen den aukeraren inguruan Araban enpresak garatzen laguntzeko asmoa dauka.

Ekonomia zirkularrarekin zerikusia daukaten enpresa berriak sustatzeko ekintzen bidez egituratzen da, ekoizpenaren eta baliabide kontsumoaren fluxu zirkularraren fasea edozein izanik ere, Araban erabiltzen diren materialen dibertsifikazioa eta erresilientzia lortze aldera.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 2-Goserik ez, 8-Enplegua eta hazkunde ekonomikoa eta 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak.

4.1.5. HONDAKINAK PREBENITZEA, BERRERABILTZEA, BIRZIKLATZEA ETA HAIEI BALIOA EMATEA:

Ildo estrategiko honek honako lau norabideetan zabaltzen du jarduteko eremua: hondakinak kudeatzeko laguntzak, birziklatzeko azpiegitura publikoak, araudia eta erakundeen antolaketa eta sentsibilizazio jarduerak.

Lehenengoari dagokionez, Arabako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plana garatzen jarraitzeko eginkizun orokorrarekin jarraituko du. Berritasun modura, honako hauek nabarmentzen dira: materia organikoa modu deszentralizatuan kudeatzeko laguntzen programa eta hiriko biohondakinak lehenengo sektoreko materia organikoarekin kudeatzeko proiektua.

Azpiegiturak jartzeari dagokionez, papera birziklatzeko edukiontziak berriztatzeaz gain, Araba osoan ontzien edukiontzi handiagoa ezartzeko ikerketa egitea jasotzen du ildo honek, bai eta hondakin handietarako instalazio bat eta konposterako instalazio berri bat jartzeko azterlanak eta horien instalazioa bera jasotzen ere.

Hirugarren jarduera eremua (erakundeen antolaketa) estaltzeko, Arabako hondakinen partzuergoa eratuko da, eta beste erakunde batzuekin elkarlanean arituko gara Gardelegi zabortegean jarduteko orduan.

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 4. ardatza

98



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Azkenik, ildo hau osatzeko, hondakinen eta ekonomia zirkularraren arloan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko hainbat ekintza egingo dira.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 2-Goserik ez, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak.

4.2. ARABA GREEN:

Arabako lurraldearen % 28 babestuta dago, eta, hortaz, Euskadiren birika naturala izateko eta, aldi berean, hein handi batean karbonoaren estolda zuloa izateko ardura dauka.

Bestetik, Araban biodibertsitatea kontserbatzeak bermatzen du klima aldaketaren aurrean egokitzea, etorkizuneko belaunaldientzako bermetzat hartuta hori.

Bada, naturagune babestuetako biodibertsitatea klima aldaketari egokitzeko berme gisara kudeatzea da 4.2. xede honen erronka nagusia.

Xede hau hiru helburutan bana daiteke: Arabako eta bertako naturaguneen biodibertsitatea zaintzea, narritatutako tokiak lehengoratzeko eta baso masak kontserbatzea.

Lehenik eta behin, xede honek Arabako ekosistemen eta lehorreko habitat nagusien narriadura eteteko asmoa dauka, kudeaketa integral, planifikatu eta sistemiko baten bidez horien egoera hobetuz.

Bigarrenik, habitatak hobetzen eta narriatutako tokiak lehengoratzen jarraituko du, aisialdirako edo askotariko ekosistemetan zerbitzu berriak jartzeko eremu publiko berriak sortuz.

Azkenik, zuhaitziak kontserbatuta sekulako ekarpena egingo zaie berotegi efektuko gasen murrizketari, klima aldaketaren kontrako borrokari eta ekonomia zirkularraren nahiz bioekonomiaren garapenari. Gainera, basoek oreka hidrologikoari laguntzen diote, higadura saihesten dute, hondamendi naturalak prebenitzen dituzte, eta biodibertsitatea indartzen dute.

Honako hiru ildo estrategiko hauek osatzen dute *Araba Green* izeneko xedea:

4.2.1. ARABAKO NATURA ONDAREA:

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 4. ardatza

99



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Plangintzatik hasita benetako inbertsiorainoko diziplinak biltzen dituzten jarduketan sorta koherente bat diseinatu da.

Plangintzaren alorrean, Araban natura ondarea kontserbatzeko erregulazio berri bat ezartzeko aukera aztertuko da. Alorra osatzeko, Kontserbazio Bereziko Eremuak, Hegaztien Babes Bereziko Eremuak, hezeguneak eta biotopoak kudeatzeko neurriak planifikatuko dituen tresna berri bat abiatuko da. Eta, amaitzeko, ekosistemek eta biodibertsitateak ematen dituzten onurak ebaluatzeko azterlan xehe bat egingo da.

Inbertsioen kapituluan, proiektu handiak egingo dira ildo honen pean: Prao de la Paul urmaela egokituko da, eta behatoki bat jarriko; Añanako Gatz Harana - Caicedo Yusoko aintzira - La Uña mendia ingurunea osatzen duen biotopoen bideak jarriko dira, Martiodako fauna lehengoratzeko zentroa berriztatu eta handituko da, eta Gorbeia eta Valderejo natura parkeetako aparkalekuak egokituko dira.

Amaitzeko, gure natura ondarearen balioari eta zainketari buruzko hainbat dibulgazio eta sentsibilizazio jarduerak egingo dira.

Ildo honek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauek betetzen laguntzen du: 12-Hiri eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

4.2.2. NARRIATUTAKO EREMUAK LEHENGORATZEA:

Ildo estrategiko honen bidez, Arabako habitat eta eremu narriatuak hobetu nahi dira, ekosistema berriak sor daitezela.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 12-Hiri eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

4.2.3. BASOEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA:

Berritasun nabarmenen artean, zerga sistema berdea proposatzen da ildo estrategiko honetan, jabe publiko eta pribatuak mendiak kontserbatu eta kudeatzera bultzatzeko asmoarekin.

Gainera, mendi publikoak antolatzeke planei eta mendi pribatuetan basoen kudeaketa jasangarria izateko plan teknikoei bultzada ematen jarraituko dugu.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Aldi berean, neurri hauen hedapenari heltzen dio ildo honek: oihaneko dibertsifikazioa, basoetako suteen kontrako prebentzioa, basoen osasuna, abandonua saihesteko belaunaldien ordezipena eta jabetzaren elkarketa.

Osagarri modura, erabilera publikoko mendien katalogoa eguneratzen, baso erreserben katalogora zuhaitzi berriak sartzen eta beroa sortzeko galdaretarako edo *district heating* sistemarako baso biomasaren erabilera areagotzen ahaleginduko da. Basoen Aholkularitza Batzordea sortzeak helburu horiek lortzen lagunduko du.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 2-Goserik ez, 7-Energia berriztagarriak, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak, 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak eta 15-Lurreko ekosistemak.

4.3. UR BALIABIDEAK ZAINDU ETA HOBETZEA:

Arabako lurralde historikoan uraren zikloarekin zerikusia daukaten baliabideen kudeaketa eraginkorragoa izatea da xede honen eginkizun bakarra.

Horri begira, Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailea garatzen jarraituko du, 2020-2023 aldirako adierazi diren lehentasunezko obrak jorratuz eta planaren berrikuspenak eginez, lurraldean horniduraren, saneamenduaren eta arazketaren arloan dauden ur premien arabera.

Honako bi ildo estrategiko hauek osatzen dute *Ur baliabideak zaindu eta hobetzea* izeneko xedea:

4.3.1. UR BALIABIDEEN KUDEAKETA ERAGINKORRA:

Legegintzaldi honetarako esparru akordioan onetsi diren azpiegitura hidraulikoetan hartutako konpromisoak gauzatuko dira ildo estrategiko honen bidez, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailean jasotzen diren konpromisoak gauzatuko ere (gaur egungo premien arabera eguneratu eta berrikusiko da plana).

Halaber, ur hornidura bermatzeko orduan dauden arazoak konpontzeko irtenbideak diseinatu eta eraikiko dira, ibaien emari ekologikoak errespetatuta.

Azkenik, Urbide-Arabako Uren Partzuergoa hazten eta sendotzen lagunduko du.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 6-Ura eta saneamendua, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 14-ltsaspeko bizitza.

4.3.2. URAREN KALITATEA HOBETZEN LAGUNTZEA:

Hasiera batean, Zadorra ibaiko eta Uribarri-Ganboa urtegiko uraren kalitatea hobetzen lagundu nahi du, ibaiak goiko tartearekin konektatzeko duen gaitasuna indartuz (iturburutik urtegrainokoa).

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 6-Ura eta saneamendua eta 14-ltsaspeko bizitza.

4.4. MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDEKO APUSTUA:

Honako hauek dira mugikortasun jasangarriaren aldeko xede hau gidatzen duten oinarriko printzipioak: mugikortasuna eskubide gisa, xede klimatikoak, prozesuen digitalizazioa eta kudeaketaren berrikuntza.

Bestalde, honela definitu dezakegu xede hau: mugikortasuna gizartearen parekidetasunari eta ingurumenaren jasangarritasunari bide emateko elementu gisa indartzea, garraioa ekonomiaren indar dinamizatzaile hartzen duen pertzepzio tradizionalari kontra eginez.

Zehazki, xede honek ibilgailu pribatuaren aurreko benetako aukera gisa sustatu eta hobetu nahi du foru garraio publikoa.

Gainera, mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egiten du, zeinak lotura estu-estua daukan AFAk azpiegitura jasangarrietan, ibilgailu elektrikoaren sustapenean eta bizikletaren erabileraren hedapenean aurrez aurre izango dituen erronka nagusiekin.

Foru Aldundian bertan mugikortasun jasangarriaren ideia barneratu dadin, Arabako mugikortasun jasangarrirako plan berria idazteaz gain, eredu eman beharko da; hala nola, norbanakoen ibilgailuen flota modu jasangarrian eraldatuz.

Honako sei ildo estrategiko hauek osatzen dute *Mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua* izeneko xedea:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.4.1. AZPIEGITURA JASANGARRIEN PROIEKTU HANDIAK:

Foru erakunde honentzat eta Arabako gizarte osoarentzat oro har, funtsezko jarduketa ildo da honako hau, plan honen jomugak eta foru eskumenak gaindi litzaketen lan oso garrantzitsuak jasotzen baititu mugikortasun jasangarriaren arloan.

Bada, Abiadura Handiko Trenaren lanak amaitzea eskatzeko kudeaketez ari da, Arabako hiriburuaren aurreko eta ondorengo bi tarteetan. Aldi berean, Madrilerantz eta penintsularen mendebalderantz salgaien trenbide korridorea sortzea eskatuko da.

Estatuaren titulartasuneko eta exekuzioko lanon batez besteko epeetan ageriko atzerapenak sortzen ari direnez, lan handia egin behar da zentzu horretan.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak eta 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

4.4.2. GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALITATEA INDARTZEA:

Foru Aldundiak ematen duen zerbitzu publikoa hobetzea da ildo estrategiko honen xedea, eta, horri begira, hiriarteko garraioaren linea erregularrak eta eskualdeko garraioa hobetu nahi dira. Bada, arlo honetan, Bilbo-Iruñea autobus linea emateko lizitazioa nabarmentzen da, zeina luzapenean dagoen, edota Gasteiz Forondako eta Loiuko aireportuekin lotzeko linea erregular eta zuzen bat martxan jarri izana.

Bezeroei ematen zaien zerbitzua hobetzeko arloan (zehazki, prozedurak digitalizatzeko eta integrazeko jarduketeki dagokienez), ildo honek aurrera egin nahi du garraio publiko mota guztien tarifen —Araba barrukoetan nahiz beste lurralde batzuekikoetan— integrazioan; hiriarteko linea erregularretan txartelak erreserbatu eta erosteko aplikazio bat ezarri nahi du Alavabusen webgunean, eta BAT txartela linean kargatzeko aukera eskaini.

Intermodalari dagokionez, ildo honek elkarreragingarritasun handiagoa lortu nahi du hiriarteko autobusen, tranbiaren eta Gasteizko hiri autobusen artean; hortaz, Arabako Mugikortasunaren Agintaritza finkatzen saiatuko da, koordinazio eta plangintza organo gisara.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 9-Berrikuntza eta azpiegiturak, 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 12-Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak.

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 4. ardatza

10
3



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.4.3. IBILGAILU ELEKTRIKOAREN ERABILERA:

Legegintzaldiaren hasieratik, ildo hau Vitoria-Gasteiz Mobilit Lab izenekoaren garapenean zentratuta dago, Gasteizko Udalarekin elkarlanean garatu beharreko ekimena izaki. Gasteizen hiri garraioaren arloko joera berriak ikertzeko, probatzeko eta ezartzeko berrikuntza zentroa izango da, eta, bestek beste, honako gai hauei helduko die: kale adimendunak, autobus eta auto autonomoak, ibilgailu elektrikoa, aparkaleku adimendunak, trafikoari aplikaturiko Big Data, zama lanetarako sistema adimendunak eta abar.

Berrikuntza zentro hori sortzeari begira, kanpoko aholkularitza enpresa espezializatu bat kontratatu da azterlan bat egin dezan. Azterlan horretan, Gasteizko eta Arabako premiekin bat egingo duen zentroa hobekien nola eratu zehaztuko da (fisikoki, birtualki edo bietara).

Bada, ildo honek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu honekin egiten du bat: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak.

4.4.4. BIZIKLETA BIDEAK ETA IBILBIDE BERDEAK:

Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen arloko Arabako Lurralde Plan Partziala ezartzearekin zerikusia daukaten jarduketa guztiez arduratzen da ildo estrategiko hau, bai eta bide berdeak eta ibilbide berriak egokitzeko eta hobetzeko proiektu guztiez ere.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 12-Hiri eta komunitate jasangarriak, 13-Klimaren aldeko ekintza eta 15-Lurreko ekosistemak.

4.4.5. ARABAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA:

Ildo honek aurrekoa osatzen du. Hasteko, Arabako Mugikortasun Jasangarrirako II. Plana egingo da, sailek hainbat ekarpen egingo dizkiote Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen arloko Arabako Lurralde Plan Partzialari, bizikleta erabiltzea errazteko neurriak sustatuko dira Arabako Bizikletaren Kontseiluaren bidez, eta nahitaezko mugikortasunaren arloan sustatuko da aipaturiko lurralde plana.

Ildo hau 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin bat dator: 11-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 15-Lurreko ekosistemak.

4.4.6. MUGIKORTASUN JASANGARRIA FORU IBILGAILUETAN:

Arabako Foru Aldundiaren ibilgailuen flota eraldatzeko proiektu pilotu bat ezarriko da, foru ibilgailuen flota berriztagarria eta jasangarria izan dadin, hainbat

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 4. ardatza

10
4



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023
LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA**

zerbitzuz eta sailek partekatuta erabil dezaten eta geolokalizazioa izan dezan, kudeaketa eraginkorragoa izateari begira.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauei lotuta dago: 12-Hiri eta komunitate jasangarriak eta 16-Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

DFA-AFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Xede estrategikoak. 4. ardatza

10
5



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4. ARDATZEKO ILDO ESTRATEGIKOEN EDUKIA: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA.

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoaren 4. ardatzean (*Klimaren aldeko ekintza*) aurreikusten diren hamasei ildo estrategikoak honako jarduketa zehatz hauetan bereizten dira:

4.1. XEDEA. KLIMA ALDAKETA ARINDU ETA HARTARA EGOKITZEA:

4.1.1. ILDOA KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO EKINTZAK. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 4.1.1.1. Klima Araba 2050. Arabako lurralde historikoaren ekintza klimatikoko estrategia.
- 4.1.1.2. Arabako lurralde historikoko berotegi efektuko gasen inbentarioa egitea.
- 4.1.1.3. Urbanklima, Europako Life proiektu integrala.
- 4.1.1.4. Lurralde antolamenduan klima aldaketaren ikuspegia txertatzea.

4.1.2. ILDOA AZPIEGITURA BERDEA ETA KONEKTIBITATE EKOLOGIKOA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 4.1.2.1. Azpiegitura Berdeen Plana.

4.1.3. ILDOA KARBONO URRIKO EKONOMIA LEHIAKORRA BULTZATZEA. Sei jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 4.1.3.1. Araban energia berriztagarriak sortzeko proiektuak sustatzea.
- 4.1.3.2 Araban eguzki parke bat eta aldameneko lurretan nekazaritza eta ingurumeneko proiektu bat sortzeko lanak bultzatzea. Ekienea proiektua.
- 4.1.3.3 Eguzki energia fotovoltaikoa sortzea, kontsumo kooperatiben araubidean. Ekiola proiektua.
- 4.1.3.4 Trantsizio energetikoa sustatzeko laguntzen lerroak ezartzea.
- 4.1.3.5 Iturri berriztagarrietatik H2 berdea ekoizteko proiektuei laguntzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.1.3.6. Bi landa eremutan energia berriztagarrien esperientzia pilotuak abiaraztea.

4.1.4. ILDOA EKONOMIA ZIRKULARRAREKIN LOTURIKO ENPRESEN KLUSTER BAT SUSTATZEA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

4.1.4.1. Ekonomia zirkularrarekin loturiko enpresa berriak sustatzeko ekintzak egitea.

4.1.5. ILDOA HONDAKINAK PREBENITZEA, BERRERABILTZEA, BIRZIKLATZEA ETA HAIEI BALIOA EMATEA. Bederatzi jarduketa hauetan gauzatzen da:

4.1.5.1. Arabako hondakinen partzuergoa sortzea.

4.1.5.2. Gasteizen konpost instalazio bat jartzeko azterlana egitea eta, ondoren, instalazioa eraikitzea.

4.1.5.3. Materia organikoa deszentralizatuta kudeatzeko laguntzak ematea.

4.1.5.4. Tratamendu mekaniko biologikoko eta ontziak sailkatzeko instalazioetako errefusa balioztatzeke planta bat aztertzea eta ondoren gauzatzea

4.1.5.5. Hiriko biohondakinak lehen sektoreko materia organikoarekin kudeatzeko proiektua egitea

4.1.5.6. Hondakin handietarako instalazio bat jartzeko azterlana egitea eta, ondoren, instalazioa eraikitzea.

4.1.5.7. Ontzien edukiontzi handiagoa ezartzeko azterlana egitea.

4.1.5.8. Paper edukiontziak berritzea.

4.1.5.9. Hondakinen eta ekonomia zirkularraren arloan sentsibilizatzeko eta kontzientziako ekintzak egitea.

4.2. XEDEA. ARABA GREEN:

4.2.1. ILDOA ARABAKO NATURA ONDAREA. Bost jarduketa hauetan gauzatzen da:

4.2.1.1. Kontserbazio Bereziko Eremuak, Hegaztien Babes Bereziko Eremuak, hezeguneak eta biotopoak kudeatzeko neurriak planifikatuko dituen tresna sortzea.

4.2.1.2. Añanako Gatz Harana - Caicedo Yusoko aintzira - La Uña mendia ingurunea osatzen duen biotopoen bideak jartzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 4.2.1.3. Prao de la Paul urmaela egokitu eta behatoki bat jartzea.
- 4.2.1.4. Gorbeia eta Valderejo natura parkeetako aparkalekuak egokitzea.
- 4.2.1.5. Gure natura ondarearen balioa jendarteratzeko ekintzak egitea.

4.2.2. ILDOA NARRIATUTAKO EREMUAK LEHENGORATZEA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 4.2.2.1. Habitat eta eremu narriatuak hobetzea, ekosistema berriak sor daitezen.

4.2.3. ILDOA BASOEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA. Hamar jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 4.2.3.1 Baso eremuak kontserbatzeko eta haien ingurumen balioa eta balio ekonomikoa gehitzeko laguntzak.
- 4.2.3.2 Partikularren mendietako basoen kudeaketa iraunkorrerako planak bultzatzea.
- 4.2.3.3. Onura publikoko mendien katalogoa eguneratzea.
- 4.2.3.4 Basoen osasunari eta espezieei buruzko ikerkuntza eta espermentazioa. Erakundeen arteko lankidetzak.
- 4.2.3.5 Basoko lanak, basoen suteak prebenitzeko.
- 4.2.3.6. Zerga sistema berdea ezartzeko proposamena. Sailen arteko lankidetzak.
- 4.2.3.7 Basogintza sektorea berregituratzea eta berroneratzea.
- 4.2.3.8 Lankidetzak partzuergoekin eta mendiko larreak kudeatzen dituzten elkarteekin.
- 4.2.3.9 Artzaintza eta abeltzaintza estentsiboaren kudeaketa aktiboa. Prebentzio neurriak eta teknologikoak.
- 4.2.3.10 Ehiza-espezieen jarraipen jasangarria egiteko eta kalteak prebenitzeko plan teknikoak.

4.3. XEDEA. UR BALIABIDEAK ZAINDU ETA HOBETZEA:

4.3.1. ILDOA UR BALIABIDEEN KUDEAKETA ERAGINKORRA. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 4.3.1.1. Urbide-Arabako Uren Partzuergoari laguntzea.
- 4.3.1.2. Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko 2020-2023 aldirako Plan Zuzentzailea berrikustea eta esparru

AFA-DFA 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa. Ildo estrategikoak. 4. ardatza

10
8



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

akordioan onetsitako azpiegitura hidraulikoen arloan hartutako konpromisoak gauzatzea.

- 4.3.1.3. Ur hornidura bermatzeko orduan dauden arazoak konpontzeko irtenbideak diseinatu eta eraikitzea, ibaien emari ekologikoak errespetatuta.

4.3.2. ILDOA URAREN KALITATEA HOBETZEN LAGUNTZEA. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

- 4.3.2.1. Zadorra ibaiko eta Uribarri-Ganboa urtegiko uraren kalitatea hobetzea.

4.4. XEDEA. MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDEKO APUSTUA:

4.4.1. ILDOA AZPIEGITURA JASANGARRIEN PROIEKTU HANDIAK. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 4.4.1.1. Arabako AHTaren obrak amaitzeko bultzada
4.4.1.2. Madrilerantz eta penintsularen mendebalderantz salgaien trenbide korridorea sortzeko bultzada.
4.4.1.3. AHTa Gasteizen lurperatzeko lanak.

4.4.2. ILDOA GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALITATEA INDARTZEA. Hamar jarduketa hauetan gauzatzen da:

- 4.4.2.1. Arabako Mugikortasunaren Agintaritza koordinazio eta plangintza organo gisa kontsolidatzea.
4.4.2.2. Arabako garraio publiko mota guztien tarifen integrazioan aurrera egitea.
4.4.2.3. Hiriarteko autobusen, tranbiaren eta Gasteizko hiri autobusen arteko elkarreragingarritasuna garatzea.
4.4.2.4. Hiriarteko linea erregularretan txartelak erreserbatu eta erosteko aplikazio bat ezartzea Alavabusean webgunean.
4.4.2.5. Garraio publikoan hobariak aplikatzeko ereduak aztertzea.
4.4.2.6. Bilbo-Iruñea linea erregularra (AFA) emateko lizitazioa.
4.4.2.7. BAT txartela linean kargatzeko APP bat ezartzea.
4.4.2.8. Kontratazio orrietan ingurumen arloko klausulak sartzen jarraitzea.
4.4.2.9. Gasteizko tranbian eta autobus elektrikoan inbertitzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.4.2.10 Beste erakunde batzuekiko lankidetzeta, hitzarmen eta proiektu bateratuen bidez.

4.4.3. ILDOA IBILGAILU ELEKTRIKOAREN ERABILERA. Jarduketa honetan gauzatzen da:

4.4.3.1. Vitoria-Gasteiz Mobility Lab

4.4.4 ILDOA: BIZIKLETA BIDEAK ETA IBILBIDE BERDEAK. Hiru jarduketa hauetan gauzatzen da:

4.4.4.1 Bide berdeak eta ibilbide berriak egokitu eta hobetzeko proiektuak egitea.

4.4.4.2 Nerbioiko Parke Lineala garatzen jarraitzea.

4.4.4.3 Bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko Arabako Lurralde Plana izapidetzea.

4.4.5. ILDOA ARABAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA. Lau jarduketa hauetan gauzatzen da:

4.4.5.1. Arabako Lurralde Historikoko Hiri arteko Garraioaren II. Mugikortasun Plana egiten hastea.

4.4.5.2. Bizikleta erabiltzea errazteko neurriak sustatzea Arabako Bizikletaren Kontseiluaren bidez.

4.4.5.3. Bizikleta Bideen Lurralde Plana nahitaezko mugikortasunaren arloan sustatzea.

4.4.5.4. Arabako bizikletaren estrategia egitea eta onartzea.

4.4.6. ILDOA MUGIKORTASUN JASANGARRIA FORU IBILGAILUETAN. Jarduketa bakarrean gauzatzen da:

4.4.6.1. Arabako Foru Aldundiaren ibilgailuen flota eraldatzeko proiektu pilotu bat abian jartzea, flota berriztagarria izan dadin.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

5. 2030 AGENDAREN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIKO ELKARREKIKOTASUNA:

Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoan aurreikusten diren hamahiru xede estrategikoek bat egiten dute NBEren 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburu hauekin eta Euskadi-Basque Country 2030 Agendaren jomuga hauekin:

1.1. XEDEA. HAZKUNDE SENDOA, KALITATEZKO ENPLEGUAREKIN:

1.1.1. ILDOA KALITATEZKO ENPLEGUAREN SORKUNTZA INDARTZEA.

- 1.1.1.1. Kuadrilletan eta udalerrietan enplegua sustatzea; 8. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 40. eta 42. jomugekin eta 11. GJHarekin eta 61. jomugarekin bat dator.
- 1.1.1.2. Kontratazio mugagabea sustatzea, arreta berezia jarriz 45 urtetik gorakoengan; 8. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 40. eta 41. jomugekin bat dator.
- 1.1.1.3. Lanbide heziketako ikastetxeetan ekipamenduak hornitzen laguntzea; 4. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 25. eta 28. jomugekin eta 8. GJHarekin eta 41. jomugarekin bat dator.
- 1.1.1.4. Prestakuntzari eta birziklapenari bide ematea eta profesionaltasun ziurtagiriak lortzen laguntzea; 4. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 28. jomugarekin eta 8. GJHarekin eta 41. eta 42. jomugekin bat dator.
- 1.1.1.5. Enplegurako prestakuntza sustatzea; 4. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 28. jomugarekin eta 8. GJHarekin eta 40. eta 41. jomugekin bat dator.
- 1.1.1.6. Kuadrilletako eta udalerrietako enplegu anezkak indartzea; 8. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 40. eta 42. jomugekin eta 11. GJHarekin eta 61. jomugarekin bat dator.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

1.1.2. ILDOA PRESTAKUNTZA AURRERATUA SUSTATZEA.

- 1.1.2.1. Arabako campusean unibertsitateko titulazio eta graduondoko programa berriak sustatzea; 4. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 26. jomugarekin eta 8. GJHarekin eta 40. eta 41. jomugekin bat dator.
- 1.1.2.2. Prestakuntza duala garatzea erakunde eskudunekin lankidetzan, Arabako sektore eta jarduera estrategikoei lotutako fakultate eta prestakuntza zentro berriak erakarriz; 4. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 26. eta 28. jomugekin eta 8. GJHarekin eta 40. eta 41. jomugekin bat dator.

1.1.3. ILDOA INDUSTRIA BULTZATZEA ETA BIRSORTZEA.

- 1.1.3.1. Lurraldea sustatzeko jarduerak garatzea; 9. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 50. jomugarekin eta 11. GJHarekin eta 61. jomugarekin bat dator.
- 1.1.3.2. Industrialde lehiakorrak garatzea, jarduera ekonomikoen ezarpena errazteko, eta bermatzea proiektu handiak ezartzeko espazio egokiak daudela; 9. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 48. eta 50. jomugekin eta 11. GJHarekin eta 62. jomugarekin bat dator.
- 1.1.3.3. Alokairuaren ordainketa geroratzea, Arabako Garapen Agentziaren industrialdeetan kokatutako enpresentzat; 9. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 48., 49. eta 50. jomugekin bat dator.
- 1.1.3.4. Lizentzia industrialak lorpena bizkortzeko neurriak; 9. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 48., 49. eta 50. jomugekin bat dator.
- 1.1.3.5. Arabako industria azpiegituraren eskaintza eta eskaria aztertzea, jarduteko behar berriak eta erabiltzen ez diren espazioak berreskuratzeko aukerak identifikatzeko; 9. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 48. eta 50. jomugekin eta 11. GJHarekin eta 62. jomugarekin bat dator.
- 1.1.3.6. Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, lurzorua merkaturatua eraginkorra eta gardena izan dadin errazteko, eta hobetzea industria azpiegituren eskatzaileei emandako zerbitzua; 9. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA

Planaren 50. jomugarekin eta 11. GJHarekin eta 61. jomugarekin bat dator.

- 1.1.3.7. Inbertsio proiektuak erakartzeko neurri pertsonalizatuak koordinatzea; 8. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 42. jomugarekin eta 9. GJHarekin eta 50. jomugarekin bat dator.
- 1.1.3.8. Inbertsioak erakartzen diharduten beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea; 8. GJHarekin eta Euskadiko 2030erako Planaren 42. jomugarekin eta 9. GJHarekin eta 50. jomugarekin bat dator.

1.1.4. ILDOA HEMENGO EKOIZPEN SEKTOREEN BERRIKUNTZAREN ETA TEKNOLOGIAREN ALDE EGITEA.

